Urriko Iraultzaren porrotaren ostean, CEDAren Biurtekoak, errepresio gogorra hedatu zuen ezkerreko zein abertzaleen mugimenduen aurka, Euskadiko hainbat udaletan gobernadore zibilak izan zuen esku-hartzea izan zelarik isla nabarmen bat. Beste bat ezkerreko mugimenduen aurkako errepresioa izan zen, non langile eta sindikalista ugari izan ziren atxilotuak eta espetxeratuak. Horren adibide da Alejandro Garcia, pertsona honi Debako sozialistek Iruñeko espetxera idatzi zioten, hauteskunde garaia zela eta bozkatzeko gaiez hitz egiteko. Errepresio horren beste adibide gordin bat, herriko sozialisten idazkari funtzioak bete zituen Julian Huerta jauna zen. Julianek, funtzio hauek bete zituen 1935ko urriak 26tik, 1936ko apirilak 30era. Bera izatez, Durangon bizi zen, baina bere jardun politikoa zela eta errepresialiatua izan zen Urriko gertakariak zirela eta. Ondorioz denboraldi bat Deban pasa behar izan zuen, Fronte Popularraren garaipenarekin batera bere herrira itzuli zelarik.

Esto crispó los ánimos, en vez de tranquilizarlos. Así, el 8 de septiembre de 1933, se organizó un acto político de Unión Regionalista en el frontón de Deba, organizado por Fernando del Valle, y que tenía como orador a Antonio Goicoechea. Pero unos militantes venidos de Eibar entraron disparando, e interrumpieron el acto. A la hora de evacuar el local, comenzó una pelea entre esos militantes y los tradicionalistas, creándose un enorme alboroto y, en consecuencia, hubo varios heridos. Al principio Fernando del Valle no identificó a nadie, pero más tarde, durante la Guerra Civil, en el consejo de guerra contra Pedro García Ansola le acusó de haber organizado esa acción, aunque varios testigos lo situaban como mero espectador en el acto político<sup>59</sup>.

La situación estalló en 1934. Durante ese año hubo un suceso muy significativo: la Revolución de Octubre. Estando gobernando el Bienio Negro la represión contra los trabajadores aumentó. Estos optaron por puntos de vista revolucionarios y empezaron una campaña de movilizaciones. Eran demostraciones de fuerza contra el Gobierno y tenían como objetivo voltear la situación. Aunque esos actos realizados por los sindicatos y partidos izquierdistas tuvieron un efecto visible en Bizkaia, en Gipuzkoa fue limitado porque los sindicatos y partidos principales de esa provincia tuvieron una postura más flexible. Aun así, el mayor efecto lo tuvo en el valle del Deba, en los alzamientos de Arrasate y Eibar. En el caso de Eibar, los movimientos de izquierdas, tras conseguir tomar bajo control las armerías del pueblo, tomaron el pueblo bajo control. De todos modos, una columna de guardias armados enviado desde Bilbo silenció el intento de revolución. En el caso de Deba, el movimiento izquierdista convocó una huelga general, como en los demás pueblos, y lograron paralizar el pueblo; en el caso concreto de los trabajadores del tren, casi todos se unieron a la convocatoria<sup>60</sup>. También se dio un intento de actos violentos, pues unos militantes intentaron hacer una acción ofensiva contra Fernando del Valle usando líquidos inflamables. Pero Tomás Rodríguez Egaña hizo saber a Fernando sobre las intenciones de esas personas, y este se escondió, evitando que se realizara la agresión<sup>61</sup>.

Tras el fracaso de la Revolución de Octubre, el Bienio del CEDA desplegó una dura represión contra los movimientos izquierdistas y nacionalistas. Un reflejo claro de ello fue la intervención que hizo el gobernador en varios Ayuntamientos de Euskadi. Otro fue la represión contra movimientos izquierdistas, donde fueron detenidos y encarcelados muchos trabajadores y sindicalistas. Uno de ellos era Alejandro García, pues los socialistas de Deba le escribían a la cárcel de Iruñea para hablar sobre temas electorales porque era época de elecciones. Otro crudo ejemplo de esa represión fue la ejercida contra el señor Julián Huerta, que ejerció las funciones de secretario de los socialistas locales entre el 26 de octubre de 1935 y el 30 de abril del 1936. Él realmente vivía en Durango, pero a consecuencia de su actividad política fue represaliado, a raíz de los sucesos de octubre. En consecuencia tuvo que pasar una temporada en Deba pero, con

<sup>59</sup> AIRMN, 543/38 urgentziako prozedura sumarismoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 543/38.

<sup>60</sup> AIRMN, 1313/37 urgentziako prozedura sumarismoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1313/37.

<sup>61</sup> Id.

orr.

Ildo beretik, Francisco Sanchez Maciá, Debako karabineroa, erbesteratua izan zen, Debatik pasa zenean Indalecio Prieto PSOEko buruari kasu egiteagatik salaketa bat jaso ostean<sup>62</sup>.

Gatazka horiek erakusten dute, ideia ezkertiar zein errepublikarrek ere bazutela bere indarra herrian. Hauek orokorrean, herriko fabrika eta harrobietako zein trenbideetako langileen baitan antolatzen ziren. Beste indargune nagusi bat, herriko kaskoan bizi ziren merkatari edota ofizio gizon-emakumeetan aurkitzen zuten. Gatazka guzti hauek, 1936ko altxamenduaren ostean eztanda egin zuten, zeinetan herriko antolakunde ezkertiarrek mobilizaziorako gaitasun nabarmena erakutsi zuten. Indar erakustaldi honek, bere erantzuna izango zuen eskuindarren aldetik, herria altxatuen esku geratu ostean errepresio eta urraketa ugari burutu zituztelarik hauen aurka.

### Emakumeak politikan

Emakumearen egoera euskal gizartearen 30eko hamarkadan ez zen batere erraza. Beraien familia eta gizarteak, bigarren paper bat izatera mugatzen zituzten, etxeko lanak egin eta familiaren zaintzaren ardura ezarri. Eliza katolikoaren indarrak eragin nabarmena izan zuen emakumearen zapalkuntzan, bere papera gizona eta familiaren zerbitzari hutsa izatea zela promulgatzen baitzuten pulpituetatik.

Hezkuntzan ere, hasieratik bereizten zituzten neska eta mutilak (auzo eskoletan izan ezik) eta hezkuntza ezberdindu ematen zitzaienten, gizonetzkoak zientzia eta hizkuntza ikasten zuten bitartean, emakumeei etxeko laboreak, jostea... irakasten zitelarik.


la victoria del Frente Popular, pudo volver al pueblo. Del mismo modo, el carabinero de Deba Francisco Sánchez Maciá fue exiliado, porque fue acusado de saludar al dirigente del PSOE Indalecio Prieto cuando paso por el pueblo<sup>62</sup>.

Esos conflictos demuestran que los ideales izquierdistas y republicanos también tenían su fuerza en el pueblo. Normalmente se organizaban en torno a los trabajadores de las fábricas, canteras y de los ferrocarriles del pueblo. Otro punto fuerte eran los comerciantes y hombres y mujeres de oficio del casco urbano. Todos esos conflictos estallaron tras el alzamiento de 1936, y las organizaciones izquierdistas locales mostrarán una gran capacidad para la movilización. Esa demostración de fuerza tuvo su respuesta por parte de los derechistas, porque cuando el pueblo quedó en manos de los sublevados, aplicaron la represión y cometieron muchas vulneraciones contra ellos.

### Las mujeres en la política

La situación de la mujer en la década de los 30 en la sociedad vasca no era nada fácil. La familia y la sociedad los limitaba a un plano secundario, imponiéndoles la responsabilidad de hacer los trabajos de casa y el cuidado de los familiares. La fuerza de la Iglesia católica tenía un enorme efecto en la opresión sobre la mujer, porque desde los púlpitos se proclamaba que su ser limitaba a ser mera sirvienta del hombre y de la familia.

En el ámbito de la educación separaban en seguida las chicas y los chicos (excepto en las escuelas de barrio) y se les daba una educación diferenciada: mientras los hombres aprendían ciencia y lenguajes, a las mujeres se les enseñaba a hacer las labores de casa, coser.



**Emakume erraketistak Deban.**  
(Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA / Indalecio Ojanguren). / **Mujeres raquetistas en Deba.** (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Indalecio Ojanguren).

<sup>62</sup> EAH, sig. Caja 112 N° 3 y 5 / AHE, sig. Caja 112 N° 3 y 5.

Debaren kasuan, egoera ez zen ezberdina, dokumentazioa aztertzen badugu, ikus dezakegu erakunde publikoetan ez direla apenas agertzen, bertako langileen baitan ez direlarik aipatzen, ez bada bere familiako baten laguntzaile bezala, Arzabalgo zentrolean esate baterako. Bizitza publikoan beraien jarduna oso mugatua zuten, orokorrean herriko komertzioetako gestore gisa agertzen ziren bakarrik.

Hala ere, honek ez du esan nahi herriko politikan eragirik ez zutenik edota ideia politiko propioak ez zutenik, testigantzetan aipatzen duten moduan, emakumeak ez ziren politikatik isolatuak bizi eta ideia propioak zituzten. Horrela eman ziren kasuak familiarekin edo gizonarekin ezadostasun politikoengatik banandu ziren emakumeak, edota bere jardun politikoa zela eta herritik ihes egin behar izan zutenak<sup>63</sup>.

Ulacia Esnaolatarrena ere kasu nabarmena izan zen, Maria eta Tomasa ahizpak eta Aniceta Esnaola Osak, zapata denda bat zuten herrian, ezkertiarrek ziren eta udatiarrekin tentsio uneak izan zituzten, politika zela eta. Ondorioz, segur aski herritik ebakatu behar izan zuten, anairekin, 1940an gerra kontseilu batean amaitu zen prozesu judizial bat abiatu baitzuten beraien aurka<sup>64</sup>.

Kasu nabarmenena agian, Eugenia Galdos eta Catalina Gasconen kasuak izan zen, biak trenbideetako langileak ziren eta herriko ezker mugimenduko partaide ziren eta beraien ideiak publikoki adierazten zituzten. Emakumeak eta ezkertiarrek izanik, tropa frankistak herrian sartzean, erreprezioaren jo puntuan egon ziren, hurrengo egunetan fusilatua izan zirelarik. Beste aipamen berezi bat merezi du Asunción Díaz Egañak, pertsona hau, Debako Agrupación Socialistaren sorreran parte hartu zuen, bere Komiteko batzordekide izendatu zutelarik, beraz gain, 1934ean, beste bi emakume ere alderdi sozialistara afiliatuak zeuden herrian<sup>65</sup>.

Politikari emakumeen beste adierazpide bat Robustiana Mugicarena da. Txikitatik idaztea zaletazun izan zuen eta, ofizio bilakatu zuen eta hainbat obra eta artikulua idatziz, euskara eta erlijioa izan zituelarik gai nagusiak. 1921ean CNV (Comunion Nacionalista Vasca) alderdiarekin batera, Abertzale Atzari Batza eratu zuen, Deban eta Ondarroan taldeak sortuz. Alderdia, berriro EAJrekin batzean, Emakumeen Abertzaleen Batzako kide izatera pasa zen, bertako lehendakari izan zelarik 1935tik aurrera. Bere jardun politikoa zela eta, deserria eta erbestea pairatu behar izan zituen<sup>66</sup>.

Hemen aipatzen ditugunak, bere afiliazio politikoa edota jarduna ezagutzen ditugun pertsonak dira. Honek ez du esan nahi herriko bizitza publikoan parte hartzen zuten emakume bakarrik izan zirenik, baizik eta gaur egunera arte, guregana iritsi diren izenak aipatzea zaigula posible baizik.

## Sindikatuak eta langile mugimendua

Ekonomiaz hitz egin dugun unean, aipatu da industria ez zela herriko motore nagusia eta honek eragina izan zuen langileen izaera eta honen baitan sortzen ziren mugimen-

En Deba la situación no era diferente. Si analizamos la documentación veremos que las mujeres casi no aparecen en las instituciones públicas, no se las menciona entre los trabajadores locales, a no ser que fuera como ayudante de algún familiar (por ejemplo, en la central de Arzabal). Su actividad en la vida pública era muy limitada, y normalmente aparecen como gestoras de los comercios locales.

De todos modos, eso no quiere decir que no tuvieran influencia en la política local o que no tuvieran ideas políticas propias. Tal como mencionan en los testimonios, las mujeres no vivían aisladas de la política y tenían ideas propias. Así, hubo casos en los que fueron separadas por desavenencias políticas con la familia o el marido, o las que tuvieron que huir del pueblo por su actividad política<sup>63</sup>.

Un caso destacado fue el de las hermanas María y Tomasa Ulacia Esnaola y su madre Aniceta Esnaola Osa. Tenían una zapatería en el pueblo, y al ser de izquierdas tuvieron momentos de tensión con los veraneantes, a cuenta de la política. Por lo tanto, seguramente tuvieron que irse del pueblo con su hermano porque habían iniciado un proceso judicial contra ellas que terminaría en un consejo de guerra en 1940<sup>64</sup>.

Pero, tal vez, el caso más destacado sea el de Eugenia Galdos y Catalina Gascon, trabajadoras de ferrocarriles y miembros de los movimientos de izquierdas ambas. Expresaban públicamente sus ideas. Siendo mujeres e izquierdistas, al entrar las tropas franquistas en el pueblo, estuvieron en el punto de mira de la represión, y a los pocos días fueron fusiladas. Otra mención especial debe ser para Asunción Díaz Egaña. Asunción participó en la creación de la Agrupación Socialista de Deba, y fue nombrada vocal de su comité. Además de ella, en 1934 solo había otras dos mujeres afiliadas al partido socialista en el pueblo<sup>65</sup>.

Otro ejemplo de mujer política es el de Robustiana Tene Mugica. Su afición desde pequeña fue la escritura, y lo convirtió en oficio. Escribió varias obras y artículos, en los que el tema principal eran el euskera y la religión. En 1921, junto al partido CNV (Comunion Tradicionliasta Vasca), formó la "Abertzale Atzari Batza", creando grupos en Deba y Ondarroa. Cuando el partido volvió a unirse con el PNV, pasó a ser miembro de "Emakumeen Abertzaleen Batza" y a partir de 1935 fue su presidenta. Debido a su actividad política, tuvo que sufrir el destierro y el exilio<sup>66</sup>.

Las mujeres que mencionamos aquí son personas de las que conocemos su afiliación o actividad política. Eso no quiere decir que fueran las únicas mujeres que participaban en la vida pública local, sólo que son los únicos nombres que nos han llegado hasta nuestros días, por ahora.

## Los sindicatos y el movimiento obrero

Quando hemos hablado sobre economía, hemos mencionado que la industria no era el motor principal del pueblo, y eso tenía su efecto en la naturaleza de los trabajadores y

<sup>63</sup> Ikus emakumeen atala. / Ver el capítulo "Las mujeres".

<sup>64</sup> AIRMN, 3800 aurretiko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 3800.

<sup>65</sup> EAH, sig. Caja 104 N°3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 N°3 a 5.

<sup>66</sup> Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia / Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia, conseguido de la página: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mugica-egana-robustiana/ar-82601/>.

orr.

du eta sindikatuetan. Horrela, Pedro Barruso historialariak Gipuzkoa Erdibidea bezala definitzen zuen zonaldean aurkitzen zen Deba, zonalde industrial eta nekazal guneen artean, erdizka industrializatutako herri bat zelarik<sup>67</sup>.

Nekazaritza eta turismotik kanpoko ekonomia, hiru zutabe nagusitan banatzen zen. Alde batetik, industria arloa dugu, hauetako adierazle nagusia Reiner enpresa zelarik. Horretaz gain beste hainbat enpresa txiki aurkitzen ziren, Trecutarren irin fabrika, Marquieguitarren larru-ontze fabrika edota lixiba fabrika bezalakoak. Horretaz gain, ontzi armadoreak eta harrobietan lan egiten zuten konpainiak zeuden. Azken hauek, adokinak produzitzen zituzten, kaleetako zolak egiteko. Bigarrena, zerbitzuetan lan egiten zuten enpresa txiki eta norbanakoak aurkitzen ziren, igeltseroak, mekanikariak... Arlo honetan, 1932ko urtekarian ikus dezakegun bezala, aroztegiek pisu nabarmena zuten, 6 enpresa txiki zenbatu daitezkeelarik. Hauei, herriko komertzioak gehitu behar zaizkie, lehengaiak, elikagaiak... herrian saltzeaz arduratzen zirelarik. Hirugarrenik, trenbide sarea zegoen, Deba, Irun-Bilbo tren linearen baitan aurkitzen zelarik, herritar ugari egiten zuten lan bertan, izan estazioan, barre-rain bezala edota trenbidearen mantenuan eta segurtasunean.

en los movimientos y sindicatos que surgían en torno a ellos. Así, el historiador Pedro Barruso coloca a Deba en una zona que define como la zona intermedia de Gipuzkoa. Es decir, entre zona industrial y rural, siendo un pueblo industrializado a medias<sup>67</sup>.

La economía de fuera de la agricultura y el turismo tenía tres ejes principales. Por un lado tenemos la industria, siendo el mayor representante la empresa Reiner. Además de este había varias empresas pequeñas; por ejemplo, la fábrica de harina de los Trecu, la fábrica de curtidos de los Marquiegui y la fábrica de lejía. Además, había compañías de armadores de barcos y de canteras. Estos últimos producían adoquines para empedrar las calles. En el segundo eje estaban las empresas pequeñas y las individuales: albañiles, mecánicos... En ese ámbito, como podemos ver en el anuario de 1932, las carpinterías tenían un gran peso específico, pudiéndose contar 6 empresas pequeñas. A estos hay que sumarles los comercios locales que se ocupaban de vender en el pueblo materias prima, alimentos... Y el tercer eje sería la red de ferrocarriles. Por Deba pasaba la línea férrea Irun-Bilbo, y muchos debarras trabajaban allí, fuera en la estación, como guardabarrera, o los que trabajaban en el mantenimiento o seguridad de las vías.



UGT sindikatuaren kartel bat. (Euskal Memoria). / Cartel del sindicato UGT. (Euskal Memoria).

<sup>67</sup> BARRUSO P., El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994. / BARRUSO, P.: El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.

Industria handirik gabeko herria izanik, hainbat industria eta enpresa txikitari banatua zegoen Deban, hori dela eta herrian garatu zen sindikalgintza era geldo eta pausatuta eman zen. Hala ere, honek ez du esan nahi ez zegoela mugimendu ezkertiarrik edota klase ikuspegi herrian, 1931ko hauteskundeetako istiluek erakusten duten bezala. Ideia sozialista eta ezkertiarrik garatuak zeuden herriko langileen artean, baina hauek ez zeuden era nabarmen eta masiboan antolatuta ikuspegi lokal batetik. Kasu honetan, Errepublikako urte guztietan pasako den moduan, Eibarko antolakunde politiko zein sindikalek eragin nabarmena izan zuten Debaren bilakaeran eta bertan emango diren gertakiarrietan. Ildo beretik, herri industrializatuagoetatik ideia politiko berriak iristen joan ziren Debara, bere antolakuntza politiko eta sozialean isla izango zutenak.

Errepublikaren garaiko lehen langileen aldarrikapen nabarmena, 1931ean azaroak 30ean aurkitzen dugu, 38 langabetuk udalari idatzi zion dokumentuan. Bertan, beraien egoera ekonomiko txarra salatu eta lana eskatzen zuten, berari norbanakoei sinatua aurkeztu zuten, inolako talde politiko edo sindikalek babestu gabe.

Sindikatu bati buruz dugun lehen aipamena, 1931ko azaroak 16koa da Organizacion Obreros Vascos-ena da non bere lehendakariak, Martin Arriolak, kexa bat aurkeztu zuen udalean, udal langile baten lan baldintzak zirela eta<sup>68</sup>. Antolakunde hau, denborara Solidaridad Obreros Vascos (SOV) bilakatuko da. Mugimendu hau, 1929tik loraldi nabarmen aurkitzen zen Gipuzkoan eta 1930erako Deban taldea sortu zuen<sup>69</sup>. 1933. urtean, sindikatu honek izena aldatu zuen, Solidaridad Trabajadores Vascos izena hartuz (STV, euskaraz ELA). ELA sindikatuak, hedapen zabala izan zuen Gipuzkoan, izaera abertzalea zuten herrietan batez ere, bertako langile euskaldun ugari afiliatu zirelarik bertan. Debako trenbideetako langileei bideratua, abertzaleek 1933an AOV Ferrocarriles Deva (Asociación Obreros Vascos) taldea eratu zuten, trenbideetako langileei laguntza eskaintzeko<sup>70</sup>. Urte berean, Debako AOV taldeak, portuko obrer komisioan egoitea eskatu zuen, herriko langabetuen alde lan egiteko.

Errepublikaren gaineko urte hauetan, ez dago aipamenik klase gatazka esanguratsuren batena, ez delarik greba edota ildo horretako mobilizatorik aipatzen. Horrela, aipamen nagusiak, egun seinatuetan udalari ekintza konkretuak burutzea izan zen, errepublika eguna edo maiatzaren 1ean musika banda egotea edota garizuman musika bandak jotzea eskatuz. SOVen kasuan 1933ko apirilak 28an, udalari eskaera luzatu zion maiatzak 1ean udal bandak musika jo zezan<sup>71</sup>.

Mugimendu espainiar, errepublikar edo sozialistei dagokienez. Lehen aipamena, 1932ko azaroak 26koa da, non lehen aldiz Agrupacion Republicana-Socialista de Deva aipatzen den. Mezu honetan, suntsitutako Reiner fabrikako langileentzat lana eskatzen zuten, industria honek sute bat jasan ostean. Deban ez zen PSOEn baitako taldea sortu

Deba era un pueblo sin grandes industrias, al contrario, tenía varias pequeñas industrias y empresas y, por ello, el sindicalismo se desarrolló lenta y pausadamente. De todos modos, eso no quiere decir que no hubiera ningún movimiento izquierdista ni ninguna perspectiva de clase en el pueblo, tal como lo demuestran los alborotos de las elecciones de 1931. Los ideales socialistas e izquierdistas estaban desarrollados entre los trabajadores del pueblo, pero, desde un punto de vista local, no estaban organizados de forma destacada ni masiva. Durante todos los años de la República, las organizaciones políticas y sindicales de Eibar tuvieron una gran influencia en el desarrollo de Deba y en los sucesos que ocurrirán en él. Del mismo modo, desde pueblos más industrializados irán llegando a Deba nuevas ideas políticas que tendrían su reflejo en la organización política y social local.

La primera reivindicación destacada durante la República fue el 30 de noviembre de 1931, cuando 38 desempleados escribieron un documento al Ayuntamiento. Firmaron un documento individualmente, sin el apoyo de ningún grupo político ni sindical, denunciando su mala situación económica y reclamando empleo.

La primera cita que tenemos sobre un sindicato es del 16 de noviembre de 1931, cuando el presidente de Organización de Obreros Vascos, Martin Arriola, presentó una queja al Ayuntamiento a cuenta de las condiciones laborales de un empleado municipal<sup>68</sup>. Con el tiempo, esta organización se convertiría en Solidaridad de Obreros Vascos (SOV). Este sindicato tuvo un florecimiento destacado desde 1929 en Gipuzkoa, y para 1930 ya tenía un grupo formado en Deba<sup>69</sup>. En 1933, este sindicato cambió su nombre a Solidaridad de Trabajadores Vascos (STV; ELA en euskera). El sindicato STV tuvo una amplia difusión en Gipuzkoa, sobre todo en pueblos de tendencia abertzale, donde se afiliaron muchos trabajadores euskaldunes. Orientado a los trabajadores de los ferrocarriles de Deba, en 1933 los abertzales crearon el grupo AOV (Asociación Obreros Vascos) Ferrocarriles Deva<sup>70</sup>. El mismo año, este grupo pidió estar en la comisión de obras del puerto, para trabajar a favor de los desempleados del pueblo.

Durante el resto de los años de la República, no se menciona ningún conflicto de clase destacable, ni ninguna huelga o movilización parecida. Así, las menciones más importantes fueron las peticiones concretas que se le hicieron al Ayuntamiento en días señalados; por ejemplo, pidiendo que la banda de música estuviera el día de la República y el 1 de mayo, o que la música de banda tocara en Cuaresma. En el caso de SOV, hizo una petición al Ayuntamiento el 28 de abril de 1933, para que la banda municipal tocara música el 1 de mayo<sup>71</sup>.

En cuanto a movimientos españoles, republicanos o socialistas, la primera mención es del 26 de noviembre de 1932, cuando se menciona por primera vez la Agrupación Republicana-Socialista de Deva, pidiendo empleo para los trabajadores de la fábrica Reiner destrozada a consecuencia

<sup>68</sup> EAH, DUA, sig. 077, 232 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 232.

<sup>69</sup> BARRUSO P., El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994. / BARRUSO, P.: El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.

<sup>70</sup> BARRUSO P., El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994. / BARRUSO, P.: El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.

<sup>71</sup> EAH, DUA, sig. 077, 258 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 258.

orr.

arte ildo honetako sindikaturik sortu eta hau 1934an gauzatu zen. Honek ez du esan nahi herritarrak ez zeudenik sindikatu hauetara afiliatuak, baizik eta ez zegoela talde moduan herrian antolatua.

Ildo beretik, herriko langileak UGT eta SNF sindikatuera afiliatua zeuden, frankisten errepresioa jasan zuten herritarren aurka irekitako Gerra Kontseiluetan ikus daitekeen moduan. Horretaz gain, Debako trenbideetako langileak ere antolatuak zeuden, Sindicato Nacional Ferroviario-ren (SNF) baitan, hau UGTaren gertukoa zen sindikatu baitzen. Azpimarragarria da SNFren kasua, sindikatu hau, modu nabarmen batean mobilizatu zen Gerra Zibilaren garaian, herriko trenbideetako langile gehienek ondorioz errepresio orokor eta gordina pairatu zutelarik.

Herrian Agrupación Socialista sortzearekin batera, hauen gertukoak ziren antolakunde eta sindikatu sarea eratuz joan ziren, horien artean garrantzitsuena, Oficios Varios sindikatuaren kasua izan zen. Hauek, lan artisauen baitan lan egiten zuten langileak antolatzeko sortu ziren. Horretaz gain, Deba bezelako herri txiki eta industria gutxikoetan, mugimendu sozialistaren baitan biltzen ziren langile eta norbanakoak antolatzeko erabiltzen ziren. Bertan, gehienbat igeltseroak, arotzak, mekanikoak... biltzen ziren, hots, industria batean lan egiten ez zuten langileak. Pedro Garcia Ansola zuen lehendakari, udal zinegotzia. UGT sindikatuaren gertukoa zen, sozialistek berau osatzeko biler bat burutu zutelarik 1936ko urtarrilak 19an, alderdiaren egoitzan. Pedro Garcia eta Hilario Urain izendatu ziren ordezkariak<sup>72</sup>. Kontuan izan behar da hau, herri askotan era honetako sindikatuak anarkistengandik gertuago egoten baitziren. Azkenik, Debak ere bazuen Sindicato Obrero Metalurgico de Guipuzkoaren herriko sail bat, Agrupación Socialistaren baitan antolatua zegoena<sup>73</sup>.

Azkenik, anarkismoaren harira, Gipuzkoaren kasuan oso datu gutxi daude beraien bilakaeraren inguruan eta hauek zonalde industrialetara mugatzen ziren. Batez ere, Donostia eta inguruko herrietara. Errepresioaren arloan ikus daitekeen bezala, biltzea lortu ditugun datuen arabera, CNTkoak ziren debarrak bazeuden, baina hauek ez ziren Deban bizi, baizik eta beste herri batzuetan, Eduardo Bort Esnaola izan ezik<sup>74</sup>. Hala ere, herrian militante anarkista batzuk bazeuden bezala, CNTak, talde bat zuen Deban, 1934an bidalitako eskutitz batengatik dakigunez eta hau, Sindicato Unico bezala ezagutzen zen. Aipagarria da hau, izan ere, Deba bailara osoan, Arrasate, Bergara eta Deban bertan soilik zeuden taldeak eta orotara Gipuzkoan soilik 7 udalerrikan zuen CNTak ordezkariak<sup>75</sup>.

Nekazaritza munduari dagokionez, sektore honetan, ezkerreko klase sindikatuak ez zuten erro sakonik, orokorrean industria arloan lan egiten baitzuten azken hauek. Baina honek ez du esan nahi nekazariak antolatzeko eta elkar defenditzeko gaitasunik ez zutenik. Horrela, hainbat dira udalean talde edo auzoen izenean burutzen dituzten

de un incendio. Hasta que no se creó un grupo en torno al PSOE, en Deba no se formó un sindicato de esa tendencia, y eso se produjo en 1934. Eso no quiere decir que no hubiera debarras afiliados a estos sindicatos, sino que en el pueblo no estaban organizados como grupo.

Del mismo modo, sabemos que había trabajadores locales afiliados a UGT y SNF (tal como se puede ver en los consejos de guerra abiertos contra debarras que sufrieron la represión franquista), algunos incluso antes de que se formara el grupo en el pueblo. Además, los trabajadores de los ferrocarriles de Deba también estaban organizados en torno al Sindicato Nacional Ferroviario (SNF), sindicato cercano a UGT. Es de destacar el caso de SNF. Este sindicato se movilizó de forma destacada durante la Guerra Civil y, por ello, la mayoría de los trabajadores de ferrocarriles del pueblo sufrieron una dura y cruda represión.

Al mismo tiempo que en el pueblo se creó la Agrupación Socialista, también se fue formando la red de organizaciones y sindicatos cercanos a ella, siendo la más importante de ellas el sindicato Oficios Varios. Este sindicato se formó para organizar los trabajadores artesanos. Pero también se utilizaban, en pueblos pequeños y de poca industria como Deba, para que se organizaran los trabajadores e individuos afines al movimiento socialista. Sobre todo se reunían albañiles, carpinteros, mecánicos... esto es, trabajadores que no trabajaban en una industria. El presidente era el concejal Pedro García Ansola, y era cercano al sindicato UGT. Los socialistas convocaron una asamblea para su formación en la sede del partido, el 19 de enero de 1936 Se nombraron como representantes a Pedro García e Hilario Urain<sup>72</sup>. Es una cuestión a tener en cuenta, porque en muchos pueblos este tipo de sindicatos solían estar más cerca de los anarquistas. Por último, en Deba también había una sección local del Sindicato Obrero Metalúrgico de Guipuzcoa, organizado en torno a la Agrupación Socialista<sup>73</sup>.

En cuanto al anarquismo, tenemos que decir que en el caso de Gipuzkoa hay muy pocos datos sobre su evolución, y sobre todo se limitaba a zonas industriales; sobre todo a Donostia y alrededores. Como se puede ver en el ámbito de la represión, según los datos que hemos conseguido recopilar, había debarras dentro de CNT, pero no vivían en Deba sino en otros pueblos (excepto Eduardo Bort Esnaola)<sup>74</sup>. De todos modos, tal como había militantes anarquistas en el pueblo, CNT también tenía un grupo en Deba. Era conocido como Sindicato Único, y lo sabemos por una carta que enviaron en 1934. Es muy significativo esto porque en todo el valle del Deba, solo había grupos en Arrasate, Bergara y Deba, y en toda Gipuzkoa, en total, CNT solo tenía representación en 7 municipios<sup>75</sup>.

En cuanto al mundo rural, en este sector los sindicatos izquierdistas de clase no tenían profundas raíces, porque estos sobre todo trabajaban en el ámbito industrial. Pero esto no quiere decir que los agricultores no tuvieran capacidad organizativa y para defenderse entre sí. Así, realizaron va-

<sup>72</sup> EAH, sig. Caja 104 N°3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 N°3 a 5.

<sup>73</sup> EAH, sig. Caja 104 N°3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 N°3 a 5.

<sup>74</sup> CHUECA J., Gurs: el campo vasco, Txalaparta, Tafalla, 2007. / CHUECA, J.: Gurs: el campo vasco, Txalaparta, Tafalla, 2007.

<sup>75</sup> BARRUSO P., El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994. / BARRUSO, P.: El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.



eskariak. Horretaz gain, Deban ere sortua zuten beraien interesak defendatzeko antolakundea.

rias peticiones en el Ayuntamiento en nombre de grupos o barrios. Además, en Deba ya tenían creada la organización para defender sus intereses, pues Eusko Nekazarien Bazku-



**Eusko Nekazarien Bazkuna-ren bilkura Loiolan.** (Aranzadi Z.E. / Imanol Elias funtsa). / Asam-blea en Loiola de Euskal Nekazarien Bazkuna. (s.c. Aranzadi / Fondo Imanol Elias).

Horrela, Eusko Nekazarien Bazkunak, talde bat zuen eratua herrian. Hau, Gipuzkoako nekazarien sindikatu abertzalea zen, Polikarpo Larrañagak 1933an sortua. EAJK nekazaritza-politikaz zuen irizpideari lotu zitzaion. Katolizismoa, euskalduntasuna eta legearen barnean jokatzeko oinarri hartuta, nekazarien bizi-baldintzak hobetzea eta nekazariari laguntza eskaintzea zuen helburu<sup>76</sup>. Debako taldearen sorrera, 1934ko martxoak 11ko antolakundearen lehen asanblean aurkitzen da, gainontzeko beste 51 herrirekin batera eta 4200 familia barnebiltzen zituena Euskal Herri mailan<sup>77</sup>. Bere lehen aipamena Errepublikara garaian, 1936ko ekainak 22an dugu, non Itziarrera doan errepidea konpontzea eskatu zuten<sup>78</sup>.

Ilido beretik, nekazarien antolakunde zen Federacion de Sindicatos Agrícolas de Guipuzkoak, kexa bat txertatu zuen,

na ya tenía formado un grupo en el pueblo. Este sindicato abertzale de los agricultores gipuzkoarras lo creó Policarpo Larrañaga en 1933. Se unió al criterio de la política agraria del PNV. Tomando como base el catolicismo, la condición de vasco y jugar dentro de la ley, tenía como objetivo mejorar las condiciones de vida de los agricultores y ofrecerles ayuda<sup>76</sup>. La creación del grupo de Deba fue en la primera asamblea de la organización, el 11 de marzo de 1934. Junto con otros 51 pueblos de Euskal Herria, en total unía a más de 4200 familias<sup>77</sup>. Su primera mención durante la República fue el 22 de junio de 1936, donde pedían que se arreglara la carretera que iba a Itziar<sup>78</sup>.

En los mismos términos, añadió una queja en la Federación de Sindicatos Agrícolas de Guipuzcoa, diciendo que el método que se usaba para pesar los animales en el matadero

<sup>76</sup> Eusko Nekazarien Bazkuna, Auñamendi Eusko Entziklopedia, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euzko-nekazarien-bazkuna/ar-43254/-tik-lortua>. / Eusko Nekazarien Bazkuna, Auñamendi Eusko Entziklopedia, conseguido de la página <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euzko-nekazarien-bazkuna/ar-43254/>.

<sup>77</sup> Id.

<sup>78</sup> BARRUSO P., El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994. / BARRUSO, P.: El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.

orr.

hiltegian animaliak pisatzeko zegoen metodoa ez zela egoia eta abletzainen interesen aurkakoa zela esanez<sup>79</sup>.

1934tik aurrera, langabezia bilakatu zen ardua nagusia antolakunde hauentzat. Horrela, udalak herriko langileentzat aterabideak eta lan publikoa eskaintzea aldarrikatu zuten. Horretaz gain, lan publiko hauetan, herriko langileek egin beharko lukete lan, langabetuek lehentasuna zutelarik. Ildo horretan lan egin zen Udalak, eraiki zituen bi txaletetan eta baita ere Lastur-Itziar errepidean ere. 1934ko abuztuak 5ean, Herriko Langileen Buletina eratu zen, langabezia murriztu eta langileei lana aurkitzeko tresna bezala<sup>80</sup>. 1936ko maiatzean 67 pertsona zeuden izena emanda zerrenda honetan.

### Autogobernu estatutua. “Ardoaren Estatutua”

Lehen egunetako gatazkak lasaitu eta udalbatza eratzea lortu zenean, aurreko urteetako dinamikarekin hautsi nahi izan zuen lehen unetik udal gobernu berriak, horrela, hainbat keinu egin zituzten, izan erregearen erretratu kendu eta Gernikako Arbolaren koadro bat ipini edota Alfonso XIII izena zuen kaleari aurretik zuena itzuliz, Araquistainegatik aldatuz<sup>81</sup>.

Baina gauza ez zen azaleko aldaketan geratu, baizik eta oinarrizko aldaketak ere burutu zituzten, udal berriaren lehen bilkuran. Horrela, Azpeitia, Bergara, Zumaia eta Andoainen eskaerekin bat egin zuen Debako udalak ere, Gipuzkoako eta Euskadiko Autonomia Estatutua erredaktatzearen aldeko apustua eginez, udalen kompetentzia izan beharko litzatekeena.

Gipuzkoako udalen asanbladarekin bat egin zuten horrela, alkatea izendatuz Debako ordezkari bezala. Horretaz gain, Eusko Ikaskuntzari estatutu berriaren diseinua abiarazteko enkarguarekin bat egin zuten<sup>82</sup>.

Horrela, izaera lokala eta asanblearioa izan zuen mugimendu anitz bati eman zitzaion hasiera, bere lan esparrua Hego Euskal Herria zuena. Honekin, euskal herritarren burujabetza eta eskubideak berreskuratzea zuten helburu. Mugimendu hau, euskal abertzaletasunaren oinarrietan aurkitzen ziren sustraiak ukitzea lortu zuen eta ilusio eta mobilizazio handiak burutu ziren proiektu honen baitan.

Gai hau, euskal politikaren ardatzetako bat bilakatu zen Errepublikara garaian, non udalek, momentuko marko legalarekin hautsi nahi izan zuten, herritarren eskubideen defentsan. Lehen Gerra Karlistaren (1833-1840) mendeurrena eta Foruen deuseztapenaren (1876) 60 urteurrena ematen ziren urteak ziren eta honek mugimendua indartzea ahalbidetu zuen. Hala ere, Debako udalean ez zegoen erantzun bateratu bat, izan ere, herriko bi ordezkari ezketiarrek, Antia eta García, Gipuzkoako Aldundia Osatzen zuen Batzorde Kudeatzailearekin egiten zuten bat eta Aldundiak Estatutua lantzeko sortutako batzordeetan parte hartzen zuten, udalak, hauei uko egin zitelarik, zilegitasuna herrietan kokatzen baitzuen<sup>83</sup>.

no era muy adecuado y era contrario a los intereses de los ganaderos<sup>79</sup>.

A partir de 1934, la principal preocupación de estas organizaciones fue el desempleo. De este modo, los Ayuntamientos reclamarán soluciones y empleo público para los trabajadores del pueblo. Además, en esos empleos públicos deberían trabajar los trabajadores locales, teniendo prioridad los desempleados. El Ayuntamiento trabajó en esa dirección, en los proyectos de los dos chalets y la carretera de Lastur-Itziar. El 5 de agosto de 1934, creó el Boletín de Trabajadores Locales, como herramienta para buscar empleo a los desempleados y así disminuir la tasa de desempleo<sup>80</sup>. En mayo de 1936, había 67 personas registradas en ese boletín.

### El estatuto del autogobierno. “El estatuto del vino”

Cuando se calmaron las disputas de los primeros días y se logró formar la corporación municipal, el nuevo gobierno municipal quiso desde el primer momento romper con la dinámica de los años anteriores. De ese modo, hicieron varios gestos, como quitar el retrato del rey y poner un cuadro del Árbol de Gernika, o devolverle su nombre anterior, esto es, calle Araquistain a la calle Alfonso XIII<sup>81</sup>.

Pero la cosa no quedó en cambios superficiales, también hicieron cambios de base en la primera asamblea del nuevo Ayuntamiento. Así, el Ayuntamiento de Deba se unió a las peticiones de Azpeitia, Bergara, Zumaia y Andoain, apostando para que se redactara el Estatuto de Autonomía de Gipuzkoa y Euskadi, que debería ser competencia de los Ayuntamientos.

Se unieron así con la asamblea de municipios de Gipuzkoa, nombrando al alcalde como representante de Deba. Además, se unieron a la petición del encargo de iniciar el diseño del nuevo estatuto a la Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntza<sup>82</sup>.

De ese modo, se dio inicio a un movimiento plural de carácter local y asambleario, que tendría como su ámbito de trabajo en Hego Euskal Herria, y que tenían como objetivo recuperar la soberanía y los derechos de los vascos. Ese movimiento logró emocionar las bases del nacionalismo vasco, y se realizaron grandes e ilusionantes movilizaciones dentro de este proyecto.

El Estatuto fue uno de los ejes de la política vasca durante la República. Los Ayuntamientos quisieron romper con el marco legal del momento, en defensa de los derechos de los ciudadanos. Eran los años de los centenarios de la Primera Guerra Carlista y 60 aniversario de la abolición de los Fueros, y esto posibilitó reforzar el movimiento. De todos modos, en el Ayuntamiento de Deba no había una respuesta consensuada, porque los dos representantes izquierdistas del pueblo, Antia y García, estaban de acuerdo con la Comisión Gestora que constituía la Diputación de Gipuzkoa, y participaban en las comisiones que había creado la Diputación para elaborar el Estatuto; en cambio, el Ayuntamiento renunciaba de ellos, pues consideraba que la legitimidad estaba en los pueblos<sup>83</sup>.

<sup>79</sup> EAH, DUA, sig. 078, 124 folioa. / AHE, AMD, sig. 078, f. 124.

<sup>80</sup> EAH, DUA, sig. 077, 89 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 89.

<sup>81</sup> EAH, DUA, sig. 077, 33 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 33.

<sup>82</sup> EAH, DUA, sig. 077, 34 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 34.

<sup>83</sup> EAH, DUA, sig. 077, 40 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 40.



1931ko ekainaren 14ean, Debako talde bat Lizarran, ekitaldi politiko batean. Zutik ezkerretik eskuinera / Un grupo de debarras en un acto político de Lizarra el 14 de junio de 1931. De pie de izquierda a derecha: Sagarna, Jose Mugica, Jose Maria Urquiri, Florencio Marquiegui, Manolo San Sebastian, Roman Arostegui, Fidel Barrera, Pepe Izaga, Leonardo Ortuzar, Ignacio Aguirre. Belauniko: Teodoro Aguirre, Celestino Iriondo, Jose Maria Urbieta, Antonio Azcoitia (Deva ayer 260 fotografías liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA) / Del libro Deva ayer 260 fotografías, biblioteca del Koldo Mitxelena Kulturunea., DFG).

1931ko ekainaren 1ean, Azpeitian, udalerrien bilkura egin zen, non Eusko Ikaskuntzak "Euskal Estatuaren Estatu Orokorra" proiektuaren zirriborroa aurkeztu zuen. Bertan, hainbat eskumen Espainiako Estatuaren kontrolpean uzten ziren, tartean elizaren eta estatuaren arteko harremana. Puntu hau, polemikoa izan zen euskal eskumarentzat (tartean EAJ) eta ondorioz aldatu egin zen, Euskadik eskumena izan zezan gai honetan. Berau berretsi egin zen Lizarrako bilkuran ere. Guztira, estatutuaren aldeko mugimenduan barnebiltzen ziren Hego Euskal Herriko 520 udaletatik 480k onartu zuten proiektu hau, Lizarrako Estatutua izena ipiniz<sup>84</sup>. Ekainaren 15ean, erabakia berretsi zuen Debako udalak bere bilkuran<sup>85</sup>.

Irailaren 22an, hiriburuetako alkateek Madrilera bidaiatu egin zuten, bertan Gorteetan proiektua aurkezteko eta bertan elizaren eta estatuaren arteko harremanen gaineko puntuagatik errefusatu egin zuten proiektua.

Hala ere, Espainiako Gorteek atea ixteak ez zuen proiektua geratu. Errepublikako legedi berria baliatuz, udaliek bigarren saiakera bat burutzearen aldeko hautua egin zuten. Horrela, Debako udalak, Tolosa, Azpeitia, Andoain, Bergara, Zumaia, Ordizia eta Oñatiko udalekin batera, Hego Euskal Herriko udalerrri guztiei deia egin zien Donostian bilkura egiteko. Bertan, udalen bilgune bat eratzea proposatzen zuten, Bidasoaz honako lau probintzietarako estatutu berri bat diseinatu eta herritarren eskubideak defendatzeko<sup>86</sup>.

El 11 de junio de 1931 se celebró en Azpeitia la Asamblea de Municipios Guipuzcoanos y, en ella, la Sociedad de Estudios Vascos presentó el borrador del proyecto que había redactado: "Estatuto General del Estado Vasco". En ese borrador se dejaban varias competencias bajo control del Estado español, entre ellas la relación entre la Iglesia y el Estado. Ese punto fue polémico para la derecha vasca (entre ellas el PNV) y, por lo tanto, se cambió para que Euskadi tuviera la competencia en ese tema. Éste también se corroboró en la asamblea de Lizarra. En total, de los 520 municipios de Hego Euskal Herria que conformaban este movimiento, 480 aceptaron ese proyecto, y lo nombraron como Estatuto de Estella<sup>84</sup>. El 15 de junio, el Ayuntamiento de Deba corroboró la decisión en su pleno<sup>85</sup>.

El 22 de septiembre, los alcaldes de las capitales viajaron a Madrid para presentar el proyecto en las Cortes, pero el proyecto fue rechazado por el punto sobre las relaciones entre Iglesia y Estado.

Aun así, eso no paralizó el proyecto. Aprovechando la nueva legislación de la República, los Ayuntamientos decidieron realizar un segundo intento. El Ayuntamiento de Deba, junto a los de Tolosa, Azpeitia, Andoain, Bergara, Zumaia, Ordizia y Oñati, hicieron un llamamiento a todos los municipios de Hego Euskal Herria para realizar una asamblea en Donostia. Proponían crear un punto de unión de los municipios, para diseñar un nuevo estatuto para las cuatro provincias a

<sup>84</sup> BUCES CABELLO J., Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016. / BUCES CABELLO, J.: Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016.

<sup>85</sup> EAH, DUA, sig. 077, 39 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 39.

<sup>86</sup> EAH, DUA, sig. 077, 80 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 80.

orr.

Gipuzkoako udalerrriak Donostian batu ziren, Florentzio izan zelarik debarren ordezkaria. Gainontzeko hiru hiriburuetan bezala lau probintzietarako proiektu berria diseinatzea erabaki zen.

1932ko maiatzaren 22an, Iruñean bilera deitu zuen estatutuaren batzordeak<sup>87</sup>. Bertan, probintzien arteko haustura eman zen, karlistak proiektutik irten zirelako. Ondorioz, Nafarroako udalerrriak honi bizkar ematea ekarri zuen. Honek, proiektuan bertan geldiene bat eragin zuen, ahalik eta 1933ko maiatzean, Bilboko udalak, Batzorde Kudeatzaileari eskatu zion Estatutu Autonomikoa bezala ezagutzen zena, udalen onspenera pasatzea eta ondoren erreferendumak burutzea<sup>88</sup>. Udal gehienek ideia honekin bat egin zuten, egoera desblokeatze aldera eta azarorako erreferendum bat zehazteko geratu ziren.

este lado del Bidasoa y para defender los derechos de los ciudadanos<sup>86</sup>. Los municipios gipuzkoarras se juntaron en Donostia, siendo Florencio el representante de los vecinos de Deba. Como en las tres otras capitales, se decidió crear un nuevo proyecto para las cuatro provincias.

La comisión del estatuto convocó una reunión para el 22 de mayo de 1932 en Iruñea. Allí se dio la ruptura entre las provincias, pues los carlistas salieron del proyecto,<sup>87</sup> y eso trajo que los municipios navarros le dieran la espalda. Eso produjo un parón en el proyecto, hasta que en mayo de 1933 el Ayuntamiento de Bilbo pidió a la Comisión Gestora que el Estatuto autonómico aprobado en Iruñea lo ratificaran los Ayuntamientos y, después, se realizaran referéndums<sup>88</sup>. La mayoría de los Ayuntamientos aceptaron esa idea, para desbloquear la situación, y quedaron para concretar un referéndum para noviembre.



**Emakumeak autogobernu estatutuaren erreferendumean bozkutzen.** (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA / Indalecio Ojanguren). / **Mujeres votando en el referéndum por el Estatuto de autogobierno.** (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Indalecio Ojanguren).

Erreferenduma, 1933ko azaroak 5ean eman zen, Deban proiektuak babes oso zabala lortu zuelarik, kontuan izaten badugu 1875 pertsonak eman zutela bozka eta horietatik 1838 baiezkokoak izan zirela. Bozketa eman zen hiru probintzietan, 426 309 pertsonak bozkatu zuten, 411 576 baiezkoko kontatu zirelarik<sup>89</sup>. Udalak, azaroak 12an, datuak aurkezteko egin zen ekimenean hartu zuen parte, Gernikan.

El referéndum se celebró el 5 de noviembre de 1933, y en Deba consiguió un respaldo muy amplio: de las 1875 personas que dieron el voto 1838 dijeron que sí. En las tres provincias que se hizo el referéndum, votaron 426 309 personas y de ellas 411 576 dijeron que sí<sup>89</sup>. El Ayuntamiento participó en la iniciativa que se hizo en Gernika el 12 de noviembre, para presentar los datos.

<sup>87</sup> EAH, DUA, sig. 077, 147 folioa. / AHE, AMD, sig. 077, f. 147.

<sup>88</sup> EAH, DUA, sig. 077, 262 folioa. / EAH, DUA, sig. 077, 262 folioa.

<sup>89</sup> Eusko Jaurlaritz, Segurtasun saila, Hauteskundeak, <http://www.euskadi.eus/referendum-del-estatuto-de-autonomia-de-1933/web01-nejeduki/es-tik-lortua>.

Honek, aukera berriak ireki zituen Estatutua lortze aldera, momentuko legislazioa baitzuen oinarri. Hala ere, 1933ko azaroan eman ziren hauteskunde orokorretan, eskuindarrek eraturako blokeak irabazi zituen hauteskundeak. Honek, eskuin-nazionalismo espainiarraren indartze nabarmena ekarri zuen, korrante zentralizatzaile nabarmen baten baitan mugitzen zena. Ondorioz, Madriletik begi txarrez ikusten zen euskal udalen mugimendua eta prozesua oztopatzen hasi ziren.

Ondorio nabarmenena, 1934ko abuztuak 8an eman zen, non Gipuzkoako Gobernadoreak, telegrama bat igorri zion Debako udalari eta bertan alkatea kargugabetu eta Marcelino Egaña izendatzen zuen lehendakari berria<sup>90</sup>. Egaña, hurrengo bilkuran kargua ez onartzea erabaki zuen eta berarekin batera ezetza eman zuten zinegotzi guztiek. Del Valle jauna, Comución Tradicionalistakoa, ez zen bertan aurkitzen, baina hurrengo batzarrean kargua onartu zuen, gainontzeko zinegotzi guztien gaitzespena jasoz. Ildo bereetik, Gipuzkoako Udalen Zuzendaritzaren irizpideak jarraituz, udal zinegotzi guztiek dimititu egin zuten, Gobernu Zentralaren jarreraren aurkako protesta bezala, irailaren 9an.

### Biurteko Beltza: 1934-1936

Esan bezala, 1933ko azaroaren 19an, Espainiako Estatuko hauteskunde orokorrak eman ziren, bertan, alderdi ezkertiarrek banaka aurkeztu ziren eta eskuindarrak berriz antolakunde bateratu batzuen baitan CEDA (Confederación Española de Derechas Autonomas eta Renovación Española). EAJak hauteskunde hauetan karlistekin hausten du. Emaizetan, EAJk garaipen argi bat izan zuen Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren baturan, 12 diputatu, eskuin espainolak 3 eta ezkerreko alderdiek 2 lortu zituztelarik. Debaren kasuan, 1423 pertsonak bozkatu zuen eta EAJk irabazi zuen alde handiz<sup>91</sup>.

Hala ere, Estatu mailan, eskuindarren garaipena eman zen eta Alejandro Lerroux izendatu zuten Espainiako Estatuko Gobernu Burua. Honek, Biurteko Beltza deituriko garaia hasiera eman zion, biurteko zuzentzailea, kontserbadorea edota kontrairaultzailea bezala ere ezagutua. Garai honek, ezaugarri bereizgarritzat, espainiar abertzaletasunaren loraldi bat izan zuen, balore tradizionalistetan oinarritua eta elizarenganako hurbilketa batekin. Horretaz gain, boterea zentralizatzeke joera nabarmen bat garatu zuen Madrileko gobernu zentralak.

Euskal udalek, Nafarroako udalik gabe, Euskal Estatutua aurrera eramateko bideari ekin ziotenean, aurrez aurre talka egin zuen gobernadore zibilarekin, zeinek mugimendu honetako alkateak kargugabetu zituen eta zinegotzien dimisioaren ostean, Fernando del Valle jauna, tradizionalista, geratu zen udal zinegotzi bakar moduan, gobernadore zibilak behin behineko zinegotzi batzuk ezarri zituen arte. 1934ko abenduak 15ean, Alejo Lizaraburua, Estanislao Maiztegi, Pancracio

Esto daba nuevas oportunidades para conseguir el Estatuto, porque se basaba en la legislación vigente. Pero en las elecciones generales de noviembre de 1933, ganó el bloque formado por los derechistas. Eso reforzó notablemente el nacionalismo derechista español, que se movía en torno a una evidente corriente recentralizadora. Por lo tanto, desde Madrid se veía con malos ojos el movimiento de los municipios vascos y empezaron a obstaculizar el proceso.

Con esa reorganización de las responsabilidades políticas, se dio un cambio en las relaciones de poder entre las fuerzas políticas del pueblo. En Deba, como en los otros pueblos costeros como Zarautz, Zumaia, etc. la fuerza principal la formaban los abertzales. Hasta ahora, el pueblo lo controlaban las fuerzas derechistas, siendo el PNV el partido principal. Pero al crearse los Comités de Defensa las fuerzas de izquierdas consiguieron un poder importante. De ese modo, tuvieron la responsabilidad de las gestiones principales hasta que el pueblo fue tomado por las armas por los sublevados. Los miembros del PNV, en general, se responsabilizaron del Orden Público y Florencio Marquiegui estuvo como presidente del Comité. De todos modos, debido a los enfrentamientos que tuvo con los izquierdistas para gestionar la situación, estos lo destituyeron de su puesto. Aunque fue expulsado, Florencio Marquiegui siguió siendo alcalde del Ayuntamiento y tenía un peso importante en la gestión local<sup>109</sup>. Ese suceso ocurrió después del 10 de agosto, pues no se menciona en los documentos sobre el Comité.

En cuanto a las responsabilidades del Comité de Defensa, la mayoría de las personas acusadas y juzgadas de haberla organizado y de ser jefes de ella fueron miembros de movimientos izquierdistas; en cuanto a los militantes del PNV, la mayoría fueron juzgados por realizar guardias armadas.

Tomás Rodríguez Egaña, en el consejo de guerra realizado contra él, nombró a los miembros del Comité de Defensa de Deba, y se ve claramente el gran peso que tenían las fuerzas izquierdistas en esa organización:

El médico derechista José Alberto Palanca, pasó el verano de 1936 en Deba, e identificó como autoridades destacadas del pueblo a Julián Amilibia Machimbarrena, Roque Vitoria, Antonio Valderrama Barrenechea, Carlos Villamil Artiach y José Manuel Ostolaza Zabala<sup>111</sup>.

El Comité de Deba creó varias comisiones para la gestión del pueblo, para responsabilizarse de los diferentes ámbitos del día a día y del esfuerzo de guerra:

- Comisión de abastecimiento
- Comisión de finanzas
- Comisión de transporte
- Comisión de comunicación
- Comisión de beneficencia
- Comisión de guerra

En cuanto a la economía, se responsabilizaron de llevar a cabo políticas para la subsistencia de los ciudadanos y de conseguir recursos para el esfuerzo de guerra. La comisión de finanzas trabajaba en torno a dos ejes principales. Por un lado, tomó dos

<sup>109</sup> AIRMN, 8-37 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 8-37.

<sup>110</sup> AIRMN, 1313/37 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 1313/37.

<sup>111</sup> GARCIA ELOSUA E., "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCÍA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

leen eskubideen defentsan, bi erabaki nagusi hartu zituen, bat enpresek soldatak bi astean behin ordaintzeko agindua ematea, beratu bete ezearan udalak enpresarien kontu korranteak konfiskatu eta ordainketak egiteko eskumena izango zuelarik. Bigarrena, gerra luzatu egingo zela ikusita, abuztuaren 4ean, enpresak berriro irekitzeko agindua eman zuen, altxamendua eman zen unetik askok produkzioa eten baitzuten. Langileak bertan lan egin ahal zezaten, beraien eta familiaren ongizatea bermatu ahal izateko<sup>112</sup>.

Finantza komisioren beste arduretako bat, bere izenak dioen bezala, kapital ekonomikoa lortzea izan zen, gerra esfortzua sostengatzeko, hots milizianoentzako armak, hornidurak, soldatak ordaindu etab. Horrela, postalak, zigiluak, bonoak etab. emititu ziren. Beste finantzaketa mota bat, herriko eskuindarrei isunak jartzean edota hauei diru eskaerak egitean oinarritzen zen; honen gaineko ardurak Francisco Josuek izan zuen eta ondorioz altxatuek epaitu egin zuten Gerra Kontseilu batean<sup>113</sup>. Gainera, herriko pertsonen kapitalaren gaineko informea bidali zen Donostiara, altxatuen "lagunak" ziren ikusteko. Horietako batzuen gainean atxilotze aginduak iritsi ziren beranduago.

Horniduren arloa izan zen beste ardatz nagusietako bat. Helburua, hornigaiak gizartearen ahalik eta era ekitatiboenean banatzea zen. Horrela, herriko pertsona edota enpresek hornigaiak edo janaria pilatzea ekiditen jardun zuten, tartean miaketak eginez, esaterako J. J. Trecu jaunaren semeen aurka, garia eta irina ezkututzen zutelakoan. Hauek, irina produzitzen zuten errota mekanikodun industria bat baitzuten. Horretaz gain, gariaren produkzioari garrantzia eman zitzaion, herriko nekazariei instantzia bat igorri zitzaielarik, gariaren uztaren gaineko lehen-tasuna ezarri eta bildu ostean bakoitzak bere kuota udalari eman beharko ziola gogoraraziz. Defentsa Batzordeak ondoren probintziako Hornidura Komisiorekin produkzioaren banaketa gestionatzen zuen, behar zen lekuetara bidaliz<sup>114</sup>.

Hornidurekin lotuta, probintziako industria batzuk gerrarako mobilizatuak izan ziren Probintziako Lan Komisioren aldetik. Hauen produkzioa komisioren ardurapean geratu zen, gerra esfortzua sostengatze aldera. Deban, enpresa bakarra mobilizatu zen, Guillermo Marquieguiren larru-ontze fabrika zehazki<sup>115</sup>.

Asistentzia sozialaren kasuan, Benefizentzia komisioren bat eratu zen, gerrak sortu zitzaizkeen kalteen ondorioak arintze aldera. Horrela, familia edota norbanakoei laguntzea izan zuen helburu honek, tartean baita gerratik ihesi zetozen pertsonak ere. Horren adibide bezala, abuztuaren 6an, Aldaba auzotik (Tolosa) familia bat iritsi zen Debara, altxatuek beraien etxea tirokatu zutelako. Komiteak hauek artatu eta Benefizentziaren esku utzi zituen. Ostean herrian ezarri ziren<sup>116</sup>.

Herriko ibilgailuak konfiskatuak izan ziren gerra esfortzuarri aurre egiteko. Hauek, milizianoak behar ziren tokietara era azkar eta eraginkor batean mugitu ahal izateko aparte, Defentsa Komitearen jarduna ahalbidetzeko ere erabiltzen ziren, inguruak herriak bisitatu edota Donostiara joan ahal izateko. Komi-

importantes decisiones en defensa de los derechos de los trabajadores: una, dar la orden de que las empresas pagaran los sueldos cada dos semanas (si no lo cumplían, el Ayuntamiento tenía la autoridad para confiscar la cuenta corriente del empresario y de realizar los pagos); la segunda, el 4 de agosto, dar la orden de que se abrieran de nuevo las empresas. Viendo que la guerra se alargaba, para que los trabajadores pudieran trabajar en ellas y así poder garantizar el bienestar de ellos y de sus familias<sup>112</sup>.

Otra de las responsabilidades de la comisión de finanzas, tal como dice su nombre, era conseguir capital económico para sustentar el esfuerzo de guerra, esto es, armas para los milicianos, provisiones, pagar los sueldos, etc. Con ese objetivo, se emitían postales, sellos, bonos, etc. Otro modo de financiación era poner multas o hacer peticiones de dinero a los derechos del pueblo; Francisco Josué se encargaba de ello, y, más tarde, fue juzgado por eso<sup>113</sup>. Además, se envió a Donostia un informe sobre el capital de las personas del pueblo, para ver si eran "amigos" de los sublevados. Más tarde, vinieron órdenes de detención contra varios de ellos.

Otro eje principal fue el ámbito de las provisiones. El objetivo era que los suministros se repartieran en la sociedad del modo más equitativo posible. Por esa razón, estuvieron evitando que las personas o empresas del pueblo acumularan víveres o comida, haciendo registros puntuales (por ejemplo, contra los hijos de J. J. Trecu, que tenían una industria de molino mecánico para la producción de harina, creyendo que escondían trigo y harina). Además, dieron importancia a la producción de trigo, enviando una instancia a los agricultores del pueblo para que priorizaran la cosecha del trigo y para recordarles que, tras la recogida, cada uno tendría que dar su cuota al Ayuntamiento. Después, el Comité de Defensa, junto a la comisión provincial de abastecimiento, gestionaba el reparto de la producción, enviándolo a donde se necesitase<sup>114</sup>.

Relacionado con los suministros, la comisión provincial de trabajo movilizó para la guerra a algunas industrias de la provincia. La producción de estas quedó bajo la responsabilidad de la comisión, para apoyar el esfuerzo de guerra. En Deba solo se movilizó una empresa, la fábrica de curtidos de Guillermo Marquiegui<sup>115</sup>.

En el caso de la asistencia social, se creó una comisión de beneficencia para paliar las consecuencias de los perjuicios que pudiera crear la guerra. Su objetivo era ayudar a familias o a personas, incluso a personas que venían huyendo de la guerra. Un ejemplo de esto último fue la familia que llegó a Deba el 6 de agosto, escapando del barrio de Aldaba de Tolosa porque los sublevados habían tiroteado su casa. Los atendió el comité y los dejó en manos de la beneficencia. Después, se establecieron en el pueblo<sup>116</sup>.

Los vehículos del pueblo fueron confiscados para hacer frente al esfuerzo de guerra. Estos, aparte de usarse para llevar a los milicianos de un sitio a otro de una forma rápida y efectiva, también se usaban para hacer posible la actividad del Comité de Defensa, para visitar los pueblos de alrededor o para poder ir a Donostia. Juan Arostegui Jauregui fue uno de los que

<sup>112</sup> EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9.

<sup>113</sup> AIRMN, 3482 sumarísimo arrunta. / AIRMN, sumarísimo ordinario 3482.

<sup>114</sup> EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9.

<sup>115</sup> BARRUSO P., "Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa" kapituluak, Gipuzkoa 1936 web orrialdetik, <http://www.gipuzkoa1936.com/verano.php>. / BARRUSO, P.: Capítulo: "Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa" de la web Gipuzkoa 1936: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano.php>.

<sup>116</sup> EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9.



**Miliziano talde bat ibilgailu batean.** (Euskal Memoria). / Un grupo de milicianos en un vehículo. (Euskal Memoria).

tearentzat gidari lanetan Juan Arostegui Jauregui ibili zen, besteak beste<sup>117</sup>. Gerra kontseiluetan, Esteban Antia Ulacia jaunari egotziko diote ekintza hauen ardura<sup>118</sup>. Altxatuen hurbiltasunagatik, herria ebakuatzea tokatu zenean, ibilgailu hauek berak erabili ziren jendea Bizkaia aldera mugitzeko.

Abuztuaren hasieran ere, Ordena Publikoaren Komisia lanean hasiko zen. Deban uda pasatzen ari ziren hainbat militar itaunduak izateko Donostiara eramanak izan zirelarik.

trabajó como conductor para el comité<sup>117</sup>. En los consejos de guerra, se le atribuía a Esteban Antia Ulacia la responsabilidad de estas acciones<sup>118</sup>. Cuando por la cercanía de los sublevados tocó evacuar el pueblo, se usaron estos mismos vehículos para llevar a la gente hacia Bizkaia.

La comisión de orden público también empezó a trabajar a comienzos de agosto. Varios militares que estaban pasando el verano en Deba fueron llevados a Donostia para ser interrogados.



**Alemania naziko armadako ofizial bat Deban, zezen plazan.** (Xabier Markiegi Berasaluzek utzia). / Un oficial del ejército nazi alemán en Deba, en la plaza de toros. (cedido por Xabier Markiegi Berasaluze).

<sup>117</sup> AIRMN, 1381-37 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1381-37.

<sup>118</sup> AIRMN, 507-37 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 507-37.

Deban aurkitzen ziren estatuz kanpoko udatiarrekin izan zuten jarrera ezberdina izan zen. Dokumentuetan, nazionalitate ingelesa eta frantsesekoak zirela aipatzen da eta multzotan batu eta Donostiara eramanez izan ziren hainbat bidaiatan, hauek burutzeaz Francisco Josue Blanco arduratu zelarik<sup>119</sup>. Gai berarekin lotuta, abuztuaren 6an, gerra ontzi alemaniar bateko kapitainaren bisita izan zen herrian, suposa genezake herrian bizi ziren alemaniarren egoeratik galdezka. Honek lotura du Barrusok aipatzen duenarekin, honen arabera hainbat naziotako gerra ontziak kostaldetik gertu zeuden uneoro, Gipuzkoan ezarrita zituzten kolonien segurtasuna bermatzeko<sup>120</sup>.

Francisco Josue jaunak, ordena publikoaren arloan lan egiten zuen eta herriko irati guztiak zigilatzea proposatu zuen, soilik Donostiatik emititzen zen irati errepublikarra entzun ahal izateko herritarrek eta horrela altxatuen gaineko informazioak jaso ez zezaten. Ildo beretik, Eibarko Komitearen aginduz, telefono bidezko komunikazioen kontrola antolatu zen, horretarako Cruz Ulacia jauna herriko telefonogunean lan egiten hasi zelarik.

Abuztuan zehar, miliziak ere hainbat irteera burutu zituzten herrian. Alde batetik, herriko puntu estrategikoetan guardia armatuak burutu ziren, Udaletxean, Abasolo jauregiko espetxean edota errepideetako kontrola mantentzeko eraiki ziren kontrol postuetan. Honekin, gune estrategikoen gaineko babesa bermatu nahi zen eta lurraldearen segurtasuna mantendu. Funtzio hauek betetzeagatik asko izan ziren ondoren errepresaliatuak.

Horretaz gain, miliziak herriko hainbat mendi eta zonaldeetara mugitu ziren, ikerketa eta zaintza misioak egiten, horietako bat Santa Catalina mendira izan zen, aurreko egunetan gauetz argi misteriosuak ikusi zituztelako<sup>121</sup>.

Abuztuaren lehen astetik aurrera, Euskal Herriko probintzia askeetako antolaketan aldaketa bat ematen hasi zen. Nahiz eta Euskal Estatutua ez zen urria arte onartuko, euskal erakundeek autonomia maila altuarekin jarduten zuten. Hauek, gero eta pisu handiagoa joan ziren hartzen probintzian. Altxatuen erasoei erantzuteko Eusko Gudarostea antolatzen hasi zen Azpeitiako Loiolako santutegiaren baitan. Ildo horretatik, Azpeitiko Komandantziak herriko karabineroak Loiolara lekualdatzeko agindua eman zuen, abuztuaren 7an, egunetan bertan gauzatu zutena. Bi egun beranduago, Komandantzia berak beste jakinarazpen bat igorri zuen, Gipuzkoa guztian errekrutatzeke deia zabalduz.

Puntu honetan, debarren mobilizazio kopurua areagotu egin zen. Honen zergatia herriaren izaera soziopolitikoan aurkitu behar dugu. Lehen egunetan gehien mobilizatu ziren sektoreak ezkertiar eta errepublikazaleak izan ziren, EAJ bigarren plano batean geratu zelarik. Kontuan izan behar dugu herriko zinegotzietatik bi bakarrik zirela ezkertiarak, gainontzeko guztiak bat izan ezik EAJkoak zirelarik.

Ildo beretik dator abuztuak 9an Ferrocarriles Vascongados enpresaren adierazpena. Bertan adierazten du bere langile guztiak, abuztu hasieratik Errepublikaren Defentsarako Komisariotzaren agindupean egotera pasa zirela. Ho-

Con los veraneantes de fuera del Estado que se encontraban en Deba tuvieron una postura diferente. En los documentos se menciona que tenían nacionalidad inglesa y francesa. Los agruparon y fueron llevados a Donostia en varios viajes, siendo Francisco Josué Blanco el que se ocupó de ello<sup>119</sup>. Siguiendo con el mismo tema, el 6 de agosto, vino de visita a Deba el capitán de un buque de guerra alemán, suponemos que preguntando por la situación de los alemanes que vivían en el pueblo. Esto guarda relación con lo que menciona Barruso en su artículo, pues dice que en todo momento había buques de guerra de varias naciones cerca de la costa para garantizar la seguridad de las colonias establecidas en Gipuzkoa<sup>120</sup>.

El señor Francisco Josué trabajaba en el ámbito del orden público. Propuso sellar todas las radios del pueblo para que los debarras solo pudieran oír la radio republicana que se emitía desde Donostia y no pudieran recibir información sobre los sublevados. Del mismo modo, por orden del Comité de Eibar, se organizó el control sobre las comunicaciones telefónicas y, para ello, el señor Cruz Ulacia empezó a trabajar en la centralita telefónica local.

Durante agosto, las milicias también realizaron varias salidas por el pueblo. Por un lado, realizaron guardias armadas en puntos estratégicos del pueblo: en el ayuntamiento, la prisión del palacio Abasolo o en los puestos de control construidos para controlar las carreteras. Con eso, se quería garantizar la defensa sobre los puntos estratégicos y mantener la seguridad del territorio. Más tarde, fueron muchos los que fueron represaliados por cumplir estas funciones.

Además, las milicias se desplazaron a varios montes y zonas del pueblo a realizar misiones de investigación y custodia; una de aquellas salidas fue al monte Santa Catalina porque los días anteriores habían visto luces misteriosas por la noche<sup>121</sup>.

Desde la primera semana de agosto empezó a darse un cambio en la organización de las provincias libres de Euskal Herria. Aunque el Estatuto Vasco no se aceptaría hasta octubre, las instituciones vascas actuaban con un nivel de autonomía alto. Estas irán tomando cada vez más peso en la provincia y, así, empezó a organizar en el santuario de Loiola (Azpeitia) el Ejército Vasco para responder a los ataques de los sublevados. En ese sentido, el 7 de agosto la comandancia de Azpeitia dio la orden de trasladar a Loiola los carabineros locales; la orden se hizo efectiva en el mismo día. Dos días más tarde, la misma comandancia envió otra notificación haciendo el llamamiento para reclutar en toda Gipuzkoa.


A partir de ese momento el número de movilizados creció en Deba. Durante los primeros días del alzamiento los que más se movilizaron fueron los de los sectores izquierdistas y republicanos, y el PNV se quedó en un segundo plano. Tenemos que tener en cuenta que de los concejales del pueblo solo dos eran de izquierdas, y todos los demás, excepto uno, eran del PNV.

El comunicado que hizo Ferrocarriles Vascongados el 9 de agosto vino en ese sentido. En él se dice que desde comienzos de agosto todos sus trabajadores pasarán a estar bajo las órdenes de la Comisaría de Defensa de la República. De esa manera

<sup>119</sup> EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9.

<sup>120</sup> BARRUSO P., Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa, <http://www.gipuzkoa1936.com/verano.php-tik-ortua>. / BARRUSO, P.: Capítulo: "Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa" de la web Gipuzkoa 1936: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano.php>.

<sup>121</sup> EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N° 8 y 9.



Debako trenbideko langileen eta debar guztiei mobilizazio deia (EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9). / Llamamiento a la movilización a los trabajadores de ferrocarriles y a todos los debarras (AHE, sig. Caja 112 N° 8 y 9).

rrela uler dezakegu trenbideetan lan egiten zuten debarren aurka altxatuek burutu zuten erreprosió bortitza.

Abuztuaren 10a, egun nabarmena izan zen Deban. Bertara CNT-FAIko miliziano batzuk etorri ziren Donostiatik, ikerketa eta miaketa batzuk egiteko aginduarekin. Hauek burutu ostean, Jose María Alcibar Itziarko parrokoa atxilotu zuten, bere sermoietan gehiegikeriaz jokatzearen akusaziopean. Beraien funtzioa apaiza Donostiara eramatea zen. Hala ere, Oriotik jakinarazpen bat iritsi zen, Jose María Alcibarren gorpua agertu zela esanez. Marquiegui alkatea eta Josue atxilotutako pertsonengatik galdetzera joan ziren Donostia-  
ra, berau baliatuz kexa bat aurkeztu zutelarik, gehiegikeria gehiago ez emateko neurriak hartzea konprometitu zirelarik Probintziako eta Debako batzordeak<sup>122</sup>.

Egun hauetatik aurrera, altxatuen aurkako erantzuna Azpeitian eratzen hari zen Eusko Gudarostearen gain eratorri zen eta ondorioz herrian, beronen antolakuntza eta gestioaz soilik arduratu ziren. Ildo honetatik, Abuztuak 10eko gertakariaren harira, eskuindarren gaineko kontrol zorrotzago baten fase bat ireki zen.

podemos entender la dura represión que ejercieron los sublevados contra los trabajadores de ferrocarriles debarras.

El 10 de agosto fue un día destacado en Deba. Habían venido unos milicianos de CNT-FAI desde Donostia, con la orden de realizar varias investigaciones e inspecciones. Tras realizarlos, detuvieron al párroco de Itziar, José María Alcibar, bajo la acusación de “extralimitarse en sus predicaciones religiosas”. Su función era llevar al párroco a Donostia. De todos modos, llegó una notificación desde Orio, diciendo que apareció el cuerpo del párroco de Itziar. El alcalde Marquiegui y Josué fueron a Donostia a preguntar por las personas detenidas y, aprovechando la ocasión, presentaron una queja; los Comités de Defensa de Deba y de la provincia se comprometieron a tomar medidas para que no se dieran más excesos<sup>122</sup>.

A partir de esos días, la responsabilidad de la respuesta contra los sublevados recayó en manos del Ejército Vasco que empezó a crearse en Azpeitia y, por lo tanto, en el pueblo solo se responsabilizaron de su organización y gestión. En ese sentido, a raíz de los acontecimientos del 10 de agosto, se inició una fase de mayor control sobre los derechistas.

#### DEFENSA KOMITEKOAK IZATEAGATIK EPAITUAK / LOS JUZGADOS POR SER DEL COMITÉ DE DEFENSA

IZENAK / NOMBRES	AFILIAZIOA / AFILIACIÓN	ARDURA / RESPONSABILIDAD
ALCIBAR IRIONDO, CARLOS		Ordena publikoa, herriko ebakuazioan jardun zuen ibilgailu batean. / Orden público, trabajó en la evacuación del pueblo con un vehículo.
AMILIBIA MACHIMBARRENA, JULIAN	PC eta JSU	Ordena publikoa. / Orden público.
AMUCHASTEGUI ECHAVE, LUIS	EAJ	Ordena publikoa. / Orden público.
ANTIA ULACIA, ESTEBAN	Izquierda Republicana	Ordena publikoa. Garraio eta Zerbitzu burua. / Orden público, jefe de la sección de transportes.
AROSTEGUI JAUREGUI JUAN	EAJ	Guardia armatuak. / Guardias armadas.
AROSTEGUI URAIN, RAMON	EAJ	Guardia armatuak. / Guardias armadas.
BERASALUCE, FELIX	SOV	

<sup>122</sup> EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9. / EAH, sig. Caja 112 N°8 y 9.

IZENAK / NOMBRES	AFILIAZIOA / AFILIACIÓN	ARDURA / RESPONSABILIDAD
ECHEVARRIA GALDOS, FERMIN	SNF	Ordena publikoa, konfiskazioak. / Orden público, confiscaciones.
EGAÑA URBIETA, ANTONIO		Guardia armatuak. / Guardias armadas.
EGAÑA URBIETA, MARIANO	SNF	Guardia armatuak. / Guardias armadas.
ESNAOLA IRAOLA, JOSE AGUSTIN	ANV	Ordena publikoa, konfiskazioak. / Orden público, confiscaciones.
GARCIA ANSOLA, PEDRO	UGT	Lan komisarioa. / Comisario de trabajo.
GIMENEZ GARAY, LAUREANO		Guardia armatuak. / Guardias armadas.
IBAÑEZ LARRAMENDI, GENEROSO	PSOE	Ordena publikoa, konfiskazioak. / Orden público, confiscaciones.
ICIAR CAPEROCHIPI, JOSE		Guardia armatuak. / Guardias armadas.
IDIAQUEZ GARATE, FRANCISCO		Guardiak eta konfiskazioak. / Guardias y confiscaciones.
IDIAQUEZ GARATE, JUAN	ANV	Guardiak eta konfiskazioak. / Guardias y confiscaciones.
IRIONDO IRIONDO, MANUEL		Hornidura. / Abastecimiento.
JOSUE BLANCO, FRANCISCO	PSOE, Socorro Rojo Internacional	Ordena publikoa. Komiteko txostenean aipatzen da, atxiloteta eta irratien zigilatzeak burutzen. Gerra kontseiluan Finantza burua ere dela esaten da. / Orden público. En el informe del comité se menciona que participó en la realización de detenciones y sellado de radios. En el consejo de guerra se dice que también era jefe de finanzas.
LOMBIDE SAN MARTIN, JOSE MARIA	EAJ	Itziarke ordezkaria, errekrutamendua. / Representante de Itziar, reclutamiento.
MANCISIDOR ODRIEZOLA, TOMAS		Guardia armatuak. / Guardias armadas.
MARQUIEGUI OLAZABAL, FLORENCIO	EAJ	Defentsa Komiteko burua (denborara kanporatua). / Jefe del Comité de Defensa (más tarde, expulsado).
OSTOLAZA EGAÑA, JOSE	PSOE eta UGT	Guardia armatuak. / Guardias armadas.
OSTOLAZA ZABALA, JOSE MANUEL		
RIESGO ANSOLA, FRANCISCO		Guardia armatuak, Udaletxean eta espetxean. / Guardias armadas en el ayuntamiento y la prisión.
SALEGUI EGAÑA, FELIX	EAJ	Guardiak (Donostian, bertan bizi zelako). / Guardias en Donostia (porque vivía allí).
SORAZU ESNAOLA, ANGEL	SOV	Guardia armatuak. / Guardias armadas.
ULACIA ESNAOLA, CRUZ	Izquierda Republicana	Telefono zerbitzua. / Servicio telefónico.
URAIN EGAÑA, HILARIO		Guardiak herrian. / Guardias en el pueblo.
URQUIRI URAIN, JOSE MARIA	EAJ	
VALDERRAMA BARRENECHEA, ANTONIO		
VILLAMIL ARTIACH, CARLOS	PCE	
VITORIA ECHEVERRIA, ROQUE	Union Republicana	
ZUBIAURRE OÑEDERRA, JOSE		Guardiak Donostian, Japoniako konsulatuan. / Guardias en Donostia, en el consulado japonés.

## Debako eskuindarren aurkako errepresioa

Abuztuak 10eko gertakariak, laku batean harri bat botatzea bezalakoa izan ziren, ondorio kate bat ekarri zuten. Horrela, Defentsa Komiteak identifikatuta zituzten eskuindar ugari atxilotuak izan ziren, gehiegikeria gehiago sahiesteko helburuarekin eta beraien segurtasuna bermatzeko. Hauek, Abasolo jauregian sortu zen espetxera eraman zituzten<sup>123</sup>. Deban atxilotu ziren altxamenduaren aldekoen kopurua aldakorra da kontsultatzen den iturriaren arabera, baina 35

## La represión contra los derechistas de Deba


Los sucesos del 10 de agosto trajeron consigo una cadena de sucesos. Muchos de los derechistas identificados por el Comité de Defensa fueron detenidos, con el objetivo de evitar más excesos y garantizar su seguridad. En Deba fueron llevados a la prisión creada en el palacio de Abasolo<sup>123</sup>. El número de detenidos en Deba que estaban a favor del alzamiento cambia según la fuente que se consulte, pero se calcula que el comité detuvo a alrededor de 35 per-

<sup>123</sup> TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.3,N.1295. / TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS, Lb.3, N.1295.

orr.

pertsonen bueltan atxilotu zituela komiteak kalkulaten da<sup>124</sup>. Jose Alberto Palanca militar frankistak, 54 pertsona Donostiara eramanak izan zirela aipatzen du<sup>125</sup>, asko ostean herrira itzuli zirenak.

sonas<sup>124</sup>. El militar franquista José Alberto Palanca menciona que fueron llevadas 54 personas a Donostia<sup>125</sup>, muchos de los cuales volverían al pueblo después.



Abasolotarren Agirre jauregia, defentsa komitearen kartzela izan zena. (Kutxa Fototeka). / El palacio Agirre de los Abasolo fue la cárcel del comité de defensa. (Kutxa Fototeka).

Palancak azaltzen du, Debako udatiarren artean, eskuindar ugari aurkitzen zirela, hauek, lehen egunetan, beraien burua babesten saiatu ziren. Datu deigarri bezala, armak zituzten pertsonak, herriko zubitik ibaira bota zituzten, konfiskatuak izan ez zitezten. Horietako bat, itsasbeherarekin agertu egin zen eta buzo batez saiatu ziren gainontzekoak lortzen baina ez zuten arrakastarik izan errepublikarrek. Beste batzuk, mendiz ihes egiteko plana diseinatzen saiatu ziren, baina zonaldearen ezagutza ezagatik baztertu zuten. Hala ere, herritik ihes egin zuten udatiarrak ere egon ziren, tartean Enrique Cardenas Rodriguez eta Troncoso izeneko militar bat<sup>126</sup>.

Kontuan izan behar da, atxilotu ziren pertsona gehienak, altxatuaren alde lerratu ziren alderdi politikoetakoak, eskuindarrekin lerratzen ziren militarrek edota altxamenduan alde zeuden enpresario eta boteredun jendea zela (ondoren frankismoan herriko alkate izan zen Fernando del Valle edota Jose Mari Eizaguirre eta Jose Urain esaterako). Hau dela eta, preso egon ziren pertsona hauek, ondoren debarren aurka eginiko Gerra Kontseiluetan burutu zituzten deklarazioak testuinguru honetan ulertu behar ditugu. Estatu frankistak burutu bahi zuen errepresio eta "garbiketa" prozesuaren baitan. Ondorioz, aipatzen dituzten gertakari asko gehiegizkoak edota errealtatetik aldentuak egongo ziren.

Palanca explica que entre los veraneantes de Deba había muchos derechistas y, durante los primeros días, intentaron protegerse a sí mismos. Hay que mencionar, como dato llamativo, que las personas que tenían armas las tiraron del puente al río, para que no fueran confiscadas. Una de ellas apareció con la marea baja, y aunque los republicanos intentaron encontrar las restantes con la ayuda de un buzo, no tuvieron éxito. Otros intentaron diseñar un plan de huida por el monte, pero lo abandonaron por el desconocimiento del terreno. De todos modos, hubo veraneantes que consiguieron huir del pueblo, entre ellos, dos militares. Uno llamado Enrique Cárdenas Rodríguez y, el otro, un tal Troncoso<sup>126</sup>.

Hay que tener en cuenta que la mayoría de las personas detenidas eran de partidos políticos que se alinearon con los sublevados, militares que se alinearon con los derechistas, o empresarios y gente de poder que estaba en favor del alzamiento (por ejemplo, José Mari Eizaguirre, José Urain y el que durante el franquismo fue alcalde del pueblo: Fernando del Valle). Las declaraciones que hicieron estos luego en los juicios hay que tomarlos en contexto, dentro del proceso de represión y depuración que realizó el estado franquista. Por lo tanto, muchos de los sucesos que mencionaban eran exagerados o alejados de la realidad.

<sup>124</sup> URGOITIA J.A., *Cronica de la Guerra Civil en la Euskadi Peninsular*, 2001. / URGOITIA, J. A.: *Cronica de la Guerra Civil en la Euskadi Peninsular*, 2001.

<sup>125</sup> GARCIA ELOSUA E., *Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)*, Deba aldzakaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", *Revista Deba*, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

<sup>126</sup> Id.





Debarren eta udatiarren arteko argazkia Santa Katalinan, 1934 urtean. Ezkerretik eskuinera, lehen lerroan goitik hasita, Faustino Urain txistularia (lanpostutik kanporatua frankistek), Tomasa Ulacia zapata dendaria (gerra kontseiluan epaitua bere alabekin batera, epaiketa aurretik hil zen), Angel Benta (Ostolaza eskolako irakaslea). Eserita, Cárdenas sendia (Manuel gizona defentsa komiteak atxilotua), Jose Manuel Ostolaza (Ostolaza eskolaren sortzailea, altxatuen jazarpena zela eta erbestera ihes egin behar izan zuten), Alvaro Ruiz (Deban epaile izan zen altxatuekin). ("Deva ayer 260 fotografías" liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / Fotografía de debarras y veraneantes en Santa Catalina, en 1934. De izquierda a derecha, en primera fila empezando desde arriba: el txistulari Faustino Urain (expulsado de su puesto por los franquistas), la zapatera Tomasa Ulacia (juzgada en consejo de guerra junto a sus hijas; murió antes del juicio) y Ángel Benta (profesor de la escuela Ostolaza). Sentados, la familia Cárdenas (el marido Manuel, detenido por el comité de defensa), José Manuel Ostolaza (fundador de la escuela Ostolaza, tuvo que huir al exilio debido a la persecución de los sublevados) y Álvaro Ruiz (fue juez de Deba con los sublevados). (Del libro Deva ayer, 260 fotografías, Biblioteca del Koldo Mitxelena Kulturunea, DFG).

Horretaz gain, testuinguruan esan dugun gisan, Deban udan zehar, turista eta udatiar ugari egoten ziren herrian eta hauen gaineko kontrola ere areagotuz joan zen. Espainiako Estatuko udatiarrak zirenak, ikertuak izan ziren eta altxatuekiko gertutasuna erakutsi zutenak Donostiara eramanak izan ziren, beste asko herriko espetxean atxilotuta geratu ziren. Herriko espetxean ez ziren denbora luzez egoten, egun batzuk baizik, non itaunketa batzuen ostean erabakitzen zen aske utzi edota Donostiara edota beste lekuren batera eramanak izatea. Beste kasu batzuetan, etxean bertan zaintzapean geratzen ziren.

Además, dentro del contexto que hemos mencionado, en Deba durante el verano solía haber muchos turistas y veraneantes, y el control sobre ellos fue aumentando. Los que eran veraneantes del Estado español fueron investigados, y los que habían mostrado cercanía hacia los sublevados fueron llevados a Donostia; otros muchos quedaron detenidos en la cárcel del pueblo. No solían pasar mucho tiempo encerrados, solo unos pocos días. Durante ese tiempo se les realizaban interrogatorios y, en base a eso, se decidía si dejarlos libres o llevarlos a Donostia, o algún otro sitio. En otros casos, se quedaban en casa bajo custodia.

DEBAKO DEFENSA KOMITEAK ATXILOTUTAKO JENDEA / GENTE DETENIDA POR EL COMITÉ DE DEFENSA DE DEBA  
 Deban atxilotutako herritar eta udatiar batzuk / Algunos debarras y veraneantes detenidos en Deba

IZENAK / NOMBRES	KARGUA / CARGO
ARESTI, JOSE MARIA	
ARISTONDO, ANTONIO	Itziariko udaltzaina , Akebarro ezizenez ezaguna / Guardia municipal de Itziar, conocido como "Akebarro"
BAIGORRI	Teniente Koronelaren semea / Hijo del teniente coronel Baigorri
BERISTAIN, ANTONIO	
BERISTAIN ODRIUZOLA, ANTONIO	"Gaintza", itziartarra / De Itziar, conocido como "Gaintza"

Orr.

IZENAK / NOMBRES	KARGUA / CARGO
<b>BOMBIN, LUIS</b>	Atxilotua, Donostiara eramana. Etxean preso izan zuten gero / Detenido, llevado a Donostia. Después lo tuvieron preso en casa
<b>BUSTAMANTE, RAMON</b>	Bere semea ere atxilotu zuten / También detuvieron a su hijo
<b>CARDENAS PASTOR, MANUEL</b>	Arkitektoa, Debako udatiarra / Arquitecto, veraneante en Deba.
<b>CHAVARRI SENDIA</b>	Emaztea eta semea / Esposa e hijo
<b>CORDON ARAGUISTAIN, ANTONIO LOPEZ</b>	Falangeko kidea izan zen frankismoan. Salaketak burutu zituen gerra kontseiluetan / Fue miembro de la Falange durante el franquismo. Hizo acusaciones en los consejos de guerra
<b>DE LARRAMENDI, HERNANDO</b>	
<b>DEL PRADO ORTIZ, DIONISIO</b>	Atxilotua, Donostiara eramana. Etxean preso izan zuten gero / Detenido, llevado a Donostia. Después lo tuvieron preso en casa
<b>DEL VALLE LERSUNDI, FELISA</b>	
<b>DEL VALLE LERSUNDI, FRANCISCO</b>	Monarkikoa. Deban atxilotua, Bilbon egon zen preso / Monárquico. Detenido en Deba, estuvo preso en Bilbao
<b>ECHEVERRIA, HERACLIO</b>	Itziarren atxilotu eta Eibarko Komiteari entregatu / Detenido en Itziar y entregado al Comité de Eibar
<b>EGUIA, TIBURCIO</b>	Eibarko Komitearen aginduz, Bergarara eramán / Llevado a Bergara por orden del Comité de Eibar
<b>EIZAGUIRRE MENDICUTE, JOSE MARIA</b>	Epailea izan zen. Gero alkatea izan zen frankismoan / Fue juez. Luego fue alcalde durante el franquismo
<b>ESNAOLA MACAZAGA, JOSE MANUEL</b>	
<b>GOICOECHEA</b>	Artilleria Komandante erretiratua / Comandante de artillería retirado
<b>HERNANDO, VIRGILIO</b>	
<b>JIMENEZ DE LA SERNA, JOSE</b>	
<b>MARTINEZ, LAMBERTO</b>	
<b>MURILLO DELGADO, ANDRES</b>	Debako udatiarra. CNTko milizianoek atxilotua abuztuak 10ean. / Veraneante de Deba. Detenido por los milicianos de CNT el 10 de agosto.
<b>TRONCOSO, JOSE</b>	Estatu Nagusiko Komandantea / Comandante del Estado Mayor
<b>URAIN MUGURUZA, JOSE</b>	
<b>VILDÓSOLA LARRUCEA, IGNACIO</b>	Larruceatarren iloba / Sobrino de los Larrucea
<b>ZULAICA, DANIEL</b>	Eibarko Komitearen esku utzi / Lo dejaron en manos del Comité de Eibar
<b>ZULAICA, LUCAS</b>	Eibarko Komitearen esku utzi / Lo dejaron en manos del Comité de Eibar

DEBAKO DEFENTSA KOMITEAK DONOSTIARA BIDALITAKO MILITARRAK ETA KARABINEROAK /  
MILITARES Y CARABINEROS ENVIADOS A DONOSTIA POR EL COMITÉ DE DEFENSA DE DEBA

IZENAK / NOMBRES	KARGUA / CARGO
<b>FERRER ANTON, JOSE</b>	Ontzi kapitaina / Capitán de barco
<b>FERRER ANTON, MIGUEL</b>	Fragata kapitaina / Capitán de fragata
<b>MEDIAVILLA MEDIERO, MIGUEL</b>	Abiazio kapitaina / Capitán de aviación
<b>SANCHIS CARRILLO, JUAN</b>	Karabineroen tenientea / Teniente de carabineros
<b>VILLALON</b>	Infanteria Komandantea / Comandante de infantería

ERREPUBLIKARREK FUSILATUAK / FUSILADOS POR LOS REPUBLICANOS

IZENAK / NOMBRES	OHARRAK / OBSERVACIONES
<b>ALCIBAR GOROSTOLA, JOSE MARIA</b>	Itziarko koadjutorea. Anarkista talde batek atxilotu eta fusilatu zuten abuztuak 10ean. / Coadjutor de Itziar. Fue detenido y fusilado por un grupo de anarquistas el 10 de agosto.
<b>AZTIRIA ZABALA ANCHIETA, JOSE JOAQUIN</b>	Karlista. Debako alkatea izan zen, Primo de Riveraren diktaduran, 1924-1930 urteetan. Bilboko Angeles Custodios espetxean fusilatua, 1936ko azaroak 5ean. / Carlista. Fue alcalde de Deba durante la dictadura de Primo de Rivera, entre los años 1924-1930. Fusilado en la cárcel Angeles Custodios de Bilbao el 5 de noviembre de 1936.
<b>FEO, MIGUEL "EL NEGUS"</b>	Telegrafista. Falangista. 1936ko abuztuak fusilatu zuten. Ondoren emakume telegrafista bat bidali eta hondartzan hilda agertu zen. / Telegrafista. Falangista. Fusilado el agosto de 1936 (Después fue enviada otra telegrafista y fue encontrada muerta en la playa).

IZENAK / NOMBRES	OHARRAK / OBSERVACIONES
<b>IDARRETA AGUIRRE, RAMON</b>	Hotel Devako jabea. Lersundi kalean bizi zen. Irailak 22an fusilatu zuten. / Dueño del Hotel Deva. Vivía en la calle Lersundi. Lo fusilaron el 22 de septiembre.
<b>LARRUZZA LAMBARRI, JOSE</b>	Militarra. Karlista, Debako udatiarra Deban atxilotua Carlos eta Javier semeekin batera eta Kursaaletik pasa ostean, Bilbon Cabo Quilates ontzian espetxeratu. 1936ko abuztuak 31an fusilatu. / Militar. Carlista. Veraneante detenido en Deba junto a sus hijos. Tras pasar por el Kursaal, fue encarcelado en el barco Cabo Quilates en Bilbo. Fusilado el 31 de agosto de 1936.
<b>LARRUZZA SAMANIEGO, CARLOS</b>	Karlista, Debako udatiarra, Deban atxilotua izan zen bere anai Javier eta aita Joserekin. Kursaaletik pasa ostean, Bilbon Cabo Quilates ontzian espetxeratuak izan ziren. 1936ko abuztuak 31an fusilatu. / Carlista; veraneante detenido en Deba junto a su padre y su hermano, y tras pasar por el Kursaal, fue encarcelado en el barco Cabo Quilates en Bilbo. Fusilado el 31 de agosto de 1936.
<b>LARRUZZA SAMANIEGO, JAVIER</b>	Karlista, Debako udatiarra, Deban atxilotua izan zen bere anai Carlos eta aita Joserekin. Kursaaletik pasa ostean, Bilbon Cabo Quilates ontzian espetxeratuak izan ziren. 1936ko abuztuak 31an fusilatu. / Carlista. Veraneante detenido en Deba junto a su padre y su hermano. Tras pasar por el Kursaal, fue encarcelado en el barco Cabo Quilates en Bilbo. Fusilado el 31 de agosto de 1936.
<b>MEDIAVILLA MEDIERO, MIGUEL</b>	Abiazio ofiziala. Debako udatiarra Donostian fusilatu 1936ko uztailen. / Oficial de aviación. Veraneante de Deba fusilado en Donostia el julio de 1936.
<b>MURILLO DELGADO, ANTONIO</b>	Udatiarra. Monarkikoa, Renovacion Española alderdikoa. Abuztuak 10ean atxilotua Deban, CNTko kide batzuk fusilatu, itziaroko parrokoaren berdina. Polloen agertu zen gorpua. / Veraneante. Monárquico del partido Renovación Española. Detenido en Deba el 10 de agosto, fusilado por los mismos miembros del CNT que fusilaron al párroco de Itziar. El cuerpo apareció en Polloe.
<b>NAVA AGUIRRE, FELIPE</b>	Karlista, Lersundi kalean bizi zen. Hotel Devaren administradorea. Irailak 22an fusilatu zuten Deban bertan. / Carlista; vivía en la calle Lersundi. Administrador del Hotel Deva. Fue fusilado el 22 de septiembre en Deba.
<b>SAINT GIRONS, FABIAN</b>	Karlista. Mendaroko txokolateroa, Deban atxilotu zuten 1936ko abuztuak 10ean. Donostian fusilatu zuten. / Carlista. Chocolatero de Mendara, detenido en Deba el 10 de agosto de 1936. Fue fusilado en Donostia.
<b>SANCHIZ CARRILLO, JUAN</b>	Debako Karabineroen tenientea Donostian ospitalean operazio zain zegoela atera eta fusilatu zuten. / Teniente de los carabineros de Deba; cuando estaba esperando a que fuera operado en el hospital de Donostia, lo sacaron y lo fusilaron..
<b>SIERRA BUSTAMANTE, LUIS</b>	Debar udatiarra, Ingeniarien komandantea, gobernadore zibila izana, Donostian fusilatu 1936ko irailak 6an. / Veraneante debarra, comandante de ingenieros y ex-gobernador civil. Fusilado en Donostia el 6 de septiembre de 1936.
<b>VILLABASO</b>	Villabaso militarren semea, debar udatiarra, Amaiak-Bat taldeko atezaina. / Hijo del militar Villabaso, veraneante debarra, portero del equipo Amaiak-Bat.

## Debarren mobilizazioa

Debako herritarren mobilizazio inguruan hitz egiterako unean, hainbat fase ezberdin finka genitzake, baina bi izan ziren nagusiki, lehena, altxamendua eman eta Deba tropa frankisten esku erori zen egunera bitartekoa eta bigarrena altxatuen tropek herria hartu zutenetik aurrera.

Lehen mobilizazio garrantzitsua, altxamenduaren lehen egunetan eman zen eta herriko Defentsa Komitearen antolaketaekin batera eman zen. Horrela, lehen borroken protagonismoa herriko mugimendu ezkeriarrek izan zuten, herriko EAJrekin iritsitako akordio baten arabera, herriko gestioa hauei utzi zien eta milizianoak zutabeetan Donostiara borrokatzera joan baitziren, Jose Agustin Esnaola Iraolaren kasua esaterako<sup>127</sup>. Gipuzkoaren defentsako lehen borroketan parte hartu zutenak.

Behin Donostia mantentzea lortu zenean eta fronteak egonkortu ostean, miliziano joandako asko itzuli egin ziren herrira eta Defentsa Komitearekin lan egin zuten askok. Egoera egun hauetan, tentsiodun barealdi bat bezalakoa izan zen, fabrikak berriro irekiz eta asko lanera itzuliz.

Baina honek ez zuen mobilizazioa eten, baizik eta indarrak berbideratu egin ziren. Horrela, herriko kudeaketaz eta gestioaz arduratu ziren. Herrian guardiak egin ziren, kontrol postuak ezarri sarreretan, altxamenduaren jarraitzaileak eta sustengatzaileak izan zitezkeen pertsonen gaineko

## La movilización de los debarras

A la hora de hablar sobre la movilización de los debarras, son dos las principales fases que se pueden diferenciar: la primera, desde el alzamiento hasta que Deba cayó en manos de los franquistas, y la segunda, a partir de que las tropas sublevadas tomaron el pueblo.

La primera movilización importante se dio en los primeros días del alzamiento y fue junto a la creación del Comité de Defensa local. Así, el protagonismo de los primeros combates lo tuvieron los movimientos izquierdistas del pueblo. Según un acuerdo al que llegaron con el PNV, la gestión municipal se dejó en sus manos y los milicianos fueron en columnas a combatir a Donostia. Ese fue el caso, por ejemplo, de José Agustín Esnaola Iraola<sup>127</sup>. Los que participaron en los primeros combates por la defensa de Gipuzkoa.

Una vez que se consiguió mantener Donostia, y tras estabilizar los frentes, muchos de los milicianos volvieron al pueblo y muchos trabajaron para el Comité de Defensa. Durante esos días, la situación era de calma tensa, abriéndose de nuevo las fábricas y muchos volviendo al trabajo.

Pero eso no interrumpió la movilización. Al contrario, se redirigieron las fuerzas. Así, se encargaron de la gestión del pueblo. Se hicieron guardias en el pueblo, se establecieron puestos de control en las entradas, realizaron el control sobre las personas que creían seguidoras y sustentadoras

<sup>127</sup> AIRMN, 3117/40 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 3117/40.



Gudari eta milizianoen zutabe bat Alegian, Donostiako seinalea atzean dutela. (Euskal Memoria). / Columna de gudaris y milicianos en Alegia con una señal de Donostia detrás. (Euskal Memoria).



Miliziano talde bat kontrol postu batean Alegian. (Kutxa Fototeka). / Un grupo de milicianos en un puesto de control de Alegi. (Kutxa Fototeka).

kontrola burutu zuten, beharrezkoa izanez gero atxiloteta eta konfiskazioak burutuz. Hala ere, lehen egunetik frontean borrokatu zuten milizianoak ere egon ziren, Elizondo Urain Bernardoren kasuan, mediku hau, Tolosako defentsan ziharduten milizianoak artatzen hari zela, zauritu eta hil egin zen abuztuak 12an<sup>128</sup>.

del alzamiento y, si era necesario, también realizaban detenciones y confiscaciones. También hubo milicianos que combatieron en el frente desde el primer día; por ejemplo, el médico Bernardo Elizondo Urain. Bernardo fue herido mientras estaba atendiendo a los milicianos que defendían Tolosa y, en consecuencia, murió el 12 de agosto<sup>128</sup>.

<sup>128</sup> EAH. / AHE



Miliziano talde bat, armak eskuan lruneko defentsa postu batean. (Kutxa Fototeka, Marin funtsa). / Un grupo de milicianos con las armas en un puesto de defensa de Irun. (Kutxa Fototeka, Marin funtsa).

Data hauen bueltan justuki, abuztua hasieran, Eusko Gudarostea antolatuz hasi zen, Loiolako Santutegiaren bueltan, eta honek debarren mobilizazioen goraldi bat ekarri zuen. Herriko autoritateak berak, adin militarrean zeuden gazteen mobilizazioa sustatzen jardun zuten. Mobilizazio deiari kasu egin zien gazteak, 200 inguru izan ziren. Izan gudari edo miliziano, batailoietan antolatzen hasi ziren, hauek, agintari militarrek hautatu zuten oinarritzko unitate militarra izan baitzen. Eusko Gudarosteko batailoi guztiak baina ez ziren berdinak, Defentsa Komiteetan gertatzen zen bezala, hauetan ere norbakoek militatzen zuten edota ideologikoki gertukotzat jotzen zituzten alderdi edo sindikatuen baitan antolatu ziren. Horretaz gain, bazeuden ere batailoi komunak, alderdi konkreturen baten kontroletik kanpo eratu zirenak, Montaña edota Ingenieros deituriko batailoiak esaterako.

Por esas fechas, a comienzos de agosto, empezaron a organizar el Ejército Vasco en los alrededores del santuario de Loiola, y eso produjo un aumento en la movilización de los debarras. Las autoridades del pueblo anduvieron promoviendo la movilización de los jóvenes que estaban en edad militar. Fueron alrededor de 200 los jóvenes que hicieron caso a la llamada de movilización. Fueran gudaris o milicianos, empezaron a organizarse en batallones, pues esa fue la unidad militar básica que eligieron las autoridades militares. Pero todos los batallones del Ejército Vasco no eran iguales, como en él Comité de Defensa, en estos también militaban personas individuales o se organizaban en torno a partidos y sindicatos ideológicamente cercanos. También había batallones comunes, creados fuera del control de un partido concreto; por ejemplo, el batallón Montaña y el batallón Ingenieros.



ANVko gudarien desfilea. (Euskal Memoria). / Desfile de los gudaris de ANV. (Euskal Memoria).

Orr.

Horrela, euskal abertzaleak, ELA, EAJ, ANV... alderdiak antolatutako batailoietan txertatu ziren (Saseta, Ariztimuño, Lenago il...) eta gudari bezala ezagutuko dira. Espainiar Estatu mailako alderdi eta sindikatu ezkertiarretakoak berriz, UGT, PSOE, CNT, IR, PCE... miliziano bezala ezagutuko dira eta beraien batailoi propioak sortu zituzten (Amuategui, Meabe, UHP, Rusia, Bakunin...). Herritar gehien mobilizatu zituen batailoia, Amuategui izan zen, 17 debarrekin eta Saseta 14rekin. Hala ere, Eusko Gudarosteko kideen artean, ohikoa zen batailoiez aldatzea, gerraren bilakaera zela eta batailoietan sortutako hildakoak ordezkatzeko, pertsona bera batailoi batean baino gehiagotan borrokatzera iritsiz.



Saseta batailoien ikurrina. (Euskal Memoria). / Ikurriña del batallón Saseta. (Euskal Memoria).

Mobilizatuen artean, herriko langile, nekazari, militar, enpresario, mediku... aurkitzen ziren. Bakoitzak, beraien lanpostua eta bizitza albo batera utzi eta armak hartuz, espainiar militarren altxamenduaren aurka borrokatu zuten.

Mobilizatu zirenen artean, oso perfil anitzak aurkitzen ditugu, kasu partikular gisa, Jose Arana Gorostegi esaterako, 1911ko apirilaren 27an jaio zen, Portuan, Jose eta Juliána zirelarik bere gurasoak<sup>129</sup>. Futbolari profesional izatea lortu zuen, defentsan postuan, 1931 denboraldian Alavesarekin jokatzeko hasi zelarik. Alavesetik FC Bartzelonarekin jokatzera pasa zen eta hurrengo denboraldia Osasunarekin jokatu zuen<sup>130</sup>. Altxamendua eta ondorengo gerra zibila zela eta, Eusko Indarra batailoian izen eman zuen (ANVren batailoi bat)<sup>131</sup>. Iparraldeko frontearen gainbehera zela eta, Frantziako Estatuan errefuxiatu zen, bertako hainbat futbol taldetan jokatu baitzuen. Gerra amaitutakoan, Espainiako Estatura itzuli zen, non SLB (Soldadu Langileen Batailoiak) batera bidalia izan zen<sup>132</sup>. 1941-42 denboraldian, Espainiako Estatuko ligan jokatu zuen berriro eta 1947a arte liga profesionalean jardun zuen<sup>133</sup>.

Debako indar polizia, lehen unetik mobilizatuak izan zirela ikusi dugu. Horrela, karabineroen kasuan, gerra kontseiluetan

Así, los abertzales (ANV, ELA, PNV...) entraron en batallones organizados por los partidos (Saseta, Ariztimuño, Lenago il...) y se les conocerá con el nombre de "gudaris". Los de partidos y sindicatos izquierdistas de nivel estatal (UGT, PSOE, CNT, IR, PCE...) serán conocidos como milicianos y crearon sus propios batallones (Amuategui, Meabe, UHP, Rusia, Bakunin...). Los batallones que más gente movilizaron en Deba fueron, Amuategui con 17 debarras y Saseta con 14. De todos modos, entre los miembros del Ejército Vasco era habitual cambiarse de batallón, para cubrir bajas, muchas personas combatieron en más de uno.



UHP batailoien ikurra daraman bizar-xafla. (Euskal Memoria). / Hoja de afeitarse con el símbolo del batallón UHP. (Euskal Memoria).

Entre los movilizados había gente de todo tipo: trabajadores, agricultores, militares, empresarios, médicos... Cada uno de ellos dejó a un lado su vida y su puesto de trabajo, cogió las armas y luchó contra el alzamiento de los militares españoles.

Entre los movilizados, vemos perfiles muy variados. Mencionaremos aquí el caso particular de José Arana Gorostegi. Nació el 27 de abril de 1911, en el puerto, y era hijo de José y Juliána<sup>129</sup>. Logró ser futbolista profesional (en concreto, defensa) y en la temporada de 1931 empezó a jugar con el Alavés. Del Alavés fue al FC Barcelona, y la siguiente temporada jugó con el Osasuna<sup>130</sup>. Debido al alzamiento y a la posterior guerra civil, se alistó en el batallón Eusko Indarra (un batallón de ANV)<sup>131</sup>. Debido a la caída del Frente Norte, se refugió en el Estado francés, y jugó en varios equipos de fútbol de allí. Al terminar la guerra volvió al Estado español, donde fue enviado a un BDST (Batallón de Soldados Trabajadores)<sup>132</sup>. En la temporada 1941-42 volvió a la liga del Estado español y jugó como profesional hasta 1947<sup>133</sup>.

Hemos visto que las fuerzas policiales de Deba fueron movilizadas desde el primer momento. Entre los carabineros tenemos, por ejemplo, a los hermanos Melara Huertas, que

<sup>129</sup> DDU, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>130</sup> Base de Datos Histórica de Fútbol, <https://www.bdfutbol.com/es/jj/11013.html> -tik lortua. / Base de Datos Histórica de Fútbol, conseguido de la página <https://www.bdfutbol.com/es/jj/11013.html>.

<sup>131</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 4, A0128106. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 4, A0128106.

<sup>132</sup> AGMG, BDST, 557 kaxa, 16851 espediente. / AGMG, BDST, caja 557, exp. 16851.

<sup>133</sup> Ceroacero web horrialdea, <https://www.ceroacero.es/player.php?id=167188>-tik lortua. / Página web Ceroacero: <https://www.ceroacero.es/player.php?id=167188>.

Otros debarras fueron obligados por las autoridades franquistas a trabajar en el frente aprovechando los BDST (Batallones de Soldados Trabajadores). José María Urbietta Egaña tampoco volvería de esta condena. Murió por heridas de metralla cuando estaba en un batallón de trabajos forzados en Monreal del Campo (Aragón), el 12 de enero de 1938<sup>153</sup>. Fermín Astigarraga Mendizabal se encontraba como él, pero en Teruel y, aprovechando la cercanía del frente, logró escapar al bando de los Republicanos, pasando información sobre el frente y las fuerzas militares de los sublevados. Por esa razón, cuando lo apresaron otra vez los sublevados, fue condenado a 12 años de prisión<sup>154</sup>. Es un caso parecido el de Pedro Gastiain Arrieta, un joven de 20 años, condenado por delito de traición, por escapar del bando de los sublevados<sup>155</sup>.

**EUSKO GUDAROSTEAN BORROKAN JARDUN OSTEAN, ALTXATUEN PRESO EGIN ETA MATXINATUEN ARMADAN BORROKATZERA BEHARTUAK IZAN ZIREN DEBARRAK / DEBARRAS QUE TRAS COMBATIR CON EL EJÉRCITO VASCO FUERON APRESADOS POR LOS FRANQUISTAS Y FUERON OBLIGADOS A COMBATIR EN SU EJÉRCITO**

<b>IZENAK / NOMBRES</b>	
<b>ALCORTA AIZPURUA, EUGENIO</b>	<b>ICIAR CAPEROCHIPI, JOSE</b>
<b>ARAMBERRI ARAQUISTAIN, PEDRO</b>	<b>LAMARIANO LAMARIANO, JOSE</b>
<b>ARRIZABALAGA OSTOLAZA, JESUS</b>	<b>LASQUIBAR AROSTEGUI, LEANDRO</b>
<b>AZPIRI FERNANDEZ, JOSE MARIA</b>	<b>MANCISIDOR ICIAR, SEBASTIAN</b>
<b>BEITIA ESNAOLA, ROQUE</b>	<b>URBIETA EGAÑA, JOSE MARIA</b>
<b>BUSTAMANTE GANDARA, MANUEL</b>	

<sup>151</sup> AIRMN, 15023/38 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 15023/38.

<sup>152</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>153</sup> Monreal del Campoko erregistro zibila, 29 tomoa, 55 folioa, 3 atala. / Registro civil de Monreal del Campo, tomo 29, f. 55, capítulo 3.

<sup>154</sup> AIRMN, 12903/42 urgentziako prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 12903/42.

<sup>155</sup> Sabino Arana Fundazioko datu basea. / Base de datos de la Fundación Sabino Arana.



Altxatuen hurbiltasuna zela eta, ehundaka izan ziren Debatik ihes egitea erabaki zutenak, baina beste debar asko herrian geratu ziren, izan familia zaintzen, ezintasunagatik edota gerra beraien ez zihoala kontua pentsatuz. Hala ere, altxatuak herrira sartu eta lehenengo gauzetako bat antolatuz zutena indarrezko errekrutamentua izan zen, adin militarrean aurkitzen ziren gizon gehienak frontera bidaliz. Orduan, paradoxa zitala eman zen, herri bereko pertsonak lubakiaren bi aldeetan aurkitu ziren eta are larriagoa, familia bereko jendea, lehengusuak edota anaiak elkarren aurka borrokan jardun zuten. Irastorza Korta sendiaren kasuan, Felix Irastorza Korta, EAJko afiliatua zen eta Eusko Gudarosteko kidea, herritik ebakatu behar izan zuen. Bere anaia Tomas, herrian geratu zen eta frankistek indarrez errekrutatua izan zen, Iparraldeko Frontean elkarren aurka borrokatzen egon zirelarik<sup>156</sup>.

Debarren mobilizazioaren harira, hutsune nabarmenak daude gertaeren kontaketa egiterako unean, garai horietako dokumentazioaren suntsiketa dela eta. Hala ere, 1942an, udalari hala eskatuta, honek informe bat burutu zuen "Mugimendu Nazionalaren" alde eta aurka jardun zutenen inguruan, baina berau oso mugatua da, batez ere altxatuen aurka jardun zutenen aldetik. Hau herriak, Francoketikoz zuen "atxikimendu" edo "fideltasuna" adierazteko nahi bezala uler dezakegu. Zerrenda honetan, 102 pertsona zerrendatzen dira, eta tamalez askoren inguruan, gerran jardun zutela soilik dakigu, ez garelarik gai izan zein bandotan jardun zuten zehazteko<sup>157</sup>. Ea denborak eta dokumentazio berriak etorkizunean izen hauen inguruan argi pixka bat igortzea lortzen duen.

Por la cercanía de los sublevados, cientos de personas decidieron huir de Deba. Pero mucha gente tuvo que quedarse en el pueblo, cuidando la familia, por imposibilidad o pensando que la guerra no iba con ellos. Pero una de las primeras cosas que organizaron los sublevados al entrar al pueblo fue el reclutamiento forzoso, mandando al frente la mayoría de los hombres que estaban en edad militar. Entonces, se dio una paradoja ruin, pues personas del mismo pueblo se vieron combatiendo a los dos lados de la trinchera y, aún peor, gente de la misma familia, primos o hermanos, estuvieron combatiendo entre ellos. En el caso de la familia Irastorza Korta, Félix era afiliado de PNV y miembro del Ejército Vasco, y tuvo que huir del pueblo. Su hermano Tomás se quedó en el pueblo y fue reclutado a la fuerza por los franquistas, estuvieron combatiendo entre ellos en el Frente del Norte<sup>156</sup>.

Sobre la movilización de los debarras, hay grandes vacíos en el relato de los hechos, por la destrucción de la documentación de la época. En 1942 se le pidió al Ayuntamiento que hiciera un informe sobre los que participaron a favor y en contra del "Movimiento Nacional". Pero ese informe es muy limitado, sobre todo en cuanto a los que se movilizaron en contra de los sublevados. Esto se puede entender como un intento de demostrar la adhesión y fidelidad que tenía el pueblo hacia Franco. En esa lista aparecen 102 personas y, por desgracia, en muchos casos solo sabemos que combatieron en la guerra, pero no somos capaces de precisar en qué bando lo hicieron<sup>157</sup>. Esperamos que con el tiempo y con la nueva documentación, en el futuro tengamos un poco de luz sobre esos nombres.

GERRA ZIBILEAN BORROKATU ZUTENEN BAINA BERAIEAN GAINEN DATURIK LORTU EZ DIREN DEBARREN ZERRENDA /  
LISTA DE DEBARRAS QUE COMBATIERON EN LA GUERRA CIVIL PERO DE LOS CUALES NO HEMOS CONSEGUIDO NINGUNA INFORMACIÓN

IZENAK / NOMBRES		
AGUIRIANO AROCENA, JOSE	ARAQUISTAIN MENDIZABAL, SATURNINO	CAREAGA IRIONDO, PEDRO
AGUIRRE ELORZA, IGNACIO	ARRIZABALO ECHEBARRIA, JOSE	CELAYA GOYA, EMILIO
AIZPURUA AGUIRRE, JOSE	ASPIAZU FERNANDEZ, JOSE MARIA	CELAYA GOYA, IGNACIO
AIZPURUA ARAMBERRI, ANGEL	ASTIGARRAGA LANDA, JOSE MANUEL	ECHEBARRI ARAMENDIA, ANDON
AIZPURUA BERISTAIN, VICTOR	AZPIAZU ECHEVERRIA, IGNACIO	EGAÑA ALCIBAR, JOSE DOMINGO
AIZPURUA SALEGUI, JOSE MANUEL	AZPIAZU SALEGUI, ALEJANDRO	EGAÑA EIZAGUIRRE, FRANCISCO
ALBISU ARRIZABALAGA, FRANCISCO	AZPIAZU SALEGUI, FAUSTINO	EGAÑA EIZAGUIRRE, JOSE
ALDABALDETRECU ARRONA, FRANCISCO	AZPIAZU SALEGUI, IGNACIO	EGUALDE LARRIZ, JOSE LUIS
ANDONEGUI ULACIA, FRANCISCO	BANDA OLAIZOLA, CELESTINO	ELORZA AGUIRRE, GERMAN
ANSOLA BERISTAIN, JOSE	BARRERA AZPIAZU, FIDEL	ELORZA BADIOLA, JOSE MANUEL
ANSOLA IRIONDO, FERMIN	BARRERA AZPIAZU, LAUREANO	ERRAZTI VILLAR, EUSEBIO
APERIBAY EGAÑA, HILARIO	BERISTAIN ALDALUR, MANUEL	ESNAOLA BERRAONDO, JESUS
ARANZAMENDI ECHEVARRIA, IGNACIO	BERISTAIN BERISTAIN, MARTIN	ESNAOLA URANGA, JOSE
ARAQUISTAIN MENDIZABAL, JOSE	CAÑO ORTIZ, EFREN	ESPARZA LAUSTANA, EMILIO

<sup>156</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>157</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

IZENAK / NOMBRES		
GASTIAIN ARRIETA, FRANCISCO	LIZARZABURU ARISTONDO, JUAN JOSE	SALEGUI EIZAGUIRRE, EMILIO
GONZALEZ AMPUERO, JOSE	LOYOLA ECHAVE, FRANCISCO	SORASU ODRIOZOLA, JOSE
IDIAQUEZ LOYOLA, JAVIER	LOYOLA URBISTONDO, JOSE RAMON	SUBINAS ELORZA, JOSE MANUEL
IDIAQUEZ LOYOLA, JOSE	MARTINEZ RODRIGUEZ, SEVERIANO	SUSAETA PEREA, GREGORIO
IMAZ ARRIZABALAGA, JOSE	MUGICA OLASAGASTI, LUIS	UDABE OSA, JOSE
IRAETA AMUCHASTEGUI, JOSE	OLAIZOLA ALCORTA, JOSE	URAIN BERSITAIN, FRANCISCO
IRASTORZA CORTA, JOSE	OLAIZOLA ECHEBARRIA, LORENZO	URANGA AZCARATE, ANTONIO
ISASTI URANGA, IGNACIO	OÑAEDERRA ALBISU, JOSE MANUEL	URBIETA GARATE, FELIPE
ISASTI URBIETA, JOSE	OÑAEDERRA IRIGOYEN, ANDRES	URBIETA ZUBIZARRETA, FRANCISCO
JIMENO RASCON, JOAQUIN	OÑAEDERRA SALEGUI, IGNACIO	URDANIBIA GASTELU, ELADIO
LANDA LAMARIANO, CASIANO	OYARZABAL ALDAY, JOSE MANUEL	VALLE DEL VALLE, RICARDO
LARRAÑAGA AZPIAZU, JULIAN	REMENTERIA BERGARECHE, BARTOLOME	ZALBA AYARZA, ROQUE
LAZCANO AZPEITIA, JOSE MANUEL	SALEGUI ARAQUISTAIN, VICTOR	

### Frontean borrokan hildako gudari zein miliziano debarrak

Debarren kasuan, dakigunez, 200 pertsona pasatxo ibili ziren gudari eta miliziano. Horietatik 20 gerraren ondorioen erruz hil ziren, Portugaleteko bonbardaketatik hasi, Legutioko erasotik pasa eta Matxitxakoko itsas batailaraino. Tamalgarria da, frankismoak biktimizekiko izan zuen jarrera zital eta hertsia onduz, oraindik familia askok beraien senitartekoak desagertuztat dituztela, jakin gabe non hil ziren edota non dauden lurperatuak.

Borroka ekintzei dagokienez, hasierako egunetan Donostiara joan ziren milizianoez gain, gehienak denbora gutxira herrira itzuli zirenak ez dago informazio askorik. Deba frankisten esku geratu zen egunera arte, bi debar hil ziren borroketan Celestino Eguino Araquistain eta Bernardo Elizondo Urain. Gainontzekoak, behin Deba altxatuen esku erorita ere, borrokan jarraitzearen aldeko hautua egin zutenak izan ziren, beraien ideien eta herriaren defentsan bizia eman zutenak.

### Gudaris y milicianos debarras muertos en combate en el frente

Que sepamos, 200 debarras combatieron como gudaris o milicianos. De ellos, 20 murieron por los efectos de la guerra: empezando desde el bombardeo de Portugalete, pasando por el ataque de Legutio y hasta la batalla naval de Matxitxako. Es triste que por la actitud ruin y cerrada que tuvo el franquismo sobre las víctimas muchas familias todavía tengan desaparecidos a sus familiares, sin saber donde murieron o donde fueron enterrados.

En cuanto a los actos de combate, además de los milicianos que en los primeros días del alzamiento fueron a Donostia y volvieron al poco tiempo a casa, no hay mucha más información. Hasta que Deba cayó en manos de los franquistas, murieron dos debarras en combate: Celestino Eguino Araquistain y Bernardo Elizondo Urain. Los demás fueron los que, aún cayendo Deba en manos de los sublevados, optaron por seguir combatiendo, y dieron su vida en defensa de sus ideales y su pueblo.

### Bonbardaketan hildakoak / Muertos en bombardeos

#### GALDONA ANDUAGA, FELIPE

Debarra, 1917ko apirilak 28an jaio zen, Jose eta Maria zirelarik bere gurasoak. Portugaleten ebakuatua aurkitzen zela, 1937ko ekainaren 15ean hil zen, aire bonbardaketa baten ondorioz<sup>158</sup>. Data hauetan, altxatuak Bilboren aurkako erasoaldian aurkitzen ziren eta Bilboko itsasadarra askotan bonbardatu zuten.

Debarra, nació el 28 de abril de 1917; sus padres eran José y María. Cuando se encontraba evacuado en Portugalete, murió el 15 de junio de 1937, a causa de un bombardeo aéreo<sup>158</sup>. Durante esas fechas, los sublevados estaban en ofensiva contra Bilbo y la ría de Bilbo fue bombardeada muchas veces.

<sup>158</sup> Debako parroquia liburua. / Libro parroquial de Deba.



Gernikaren egoera bonbardaketaren ostean. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren). / El estado de Gernika tras el bombardeo. (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Indalecio Ojanguren).

### *Frontean hildakoak / Muertos en el frente*

#### **AIZPURUA ARRIZABALAGA, VICENTE**

Deban jaio zen langilea zen Vicente. Ez zegoen ezkondua. Legutioko batailan, Villarreakoa bezala ere ezaguna hil zen, suzko armaz eginiko zaurien ondorioz 1936ko abenduaren 2an<sup>159</sup>. Azaroaren 30etik, Eusko Gudarostea, Arabako frontean erasoaldi batzuk burutzen hari zen, frontea hautsi naian, non Legutioko herria estu hartzea lortu zuten. Altxatuek, setioa arintze aldera abenduaren 2an kontraeraso batzuk burutu zituzten, non aurreko egunetan bereganatutako posizioak defendatzen hil zen Vicente<sup>160</sup>. Gernikako erregistro zibileko dokumentuan, euskal milizietako kide zela agertzen da, Loyola milizietakoa<sup>161</sup>. Beste iturri batzuek, Ingenieros 2 batailoian ere kokatzen dute<sup>162</sup>. Gernikako hilerrian lurperatu zuten<sup>163</sup>.

Vicente era un trabajador nacido en Deba, y estaba soltero. Murió en la batalla de Legutio, conocida también como la ofensiva de Villarreal, el 2 de diciembre de 1936 a raíz de las heridas producidas por arma de fuego<sup>159</sup>. Desde el 30 de noviembre el Ejército Vasco estaba realizando varios ataques en el frente de Araba, intentando quebrarlo, y lograron poner en un aprieto el pueblo de Legutio. Los sublevados realizaron unos contraataques el 2 de diciembre, para aliviar el sitio y, precisamente, Vicente murió defendiendo las posiciones recuperadas los días anteriores<sup>160</sup>. En el documento del registro civil de Gernika aparece que era miembro de las milicias vascas, de la milicia Loyola<sup>161</sup>. Otras fuentes lo sitúan en el batallón Ingenieros 2<sup>162</sup>. Lo enterraron en el cementerio de Gernika<sup>163</sup>.

<sup>159</sup> Gernikako Erregistro Zibila. / Registro civil de Gernika.

<sup>160</sup> AGUIRREGABIRIA J.M., La batalla de Villarreal de Álava: Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro, noviembre y diciembre de 1936, Ediciones Beta III Milenio, S.L., Bilbo, 2014. / AGUIRREGABIRIA, J.M.: La batalla de Villarreal de Álava : Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro, noviembre y diciembre de 1936, Ediciones Beta III Milenio, S.L., Bilbo, 2014.

<sup>161</sup> Gernikako Erregistro Zibila. / Registro civil de Gernika.

<sup>162</sup> AGUIRREGABIRIA J.M., La batalla de Villarreal de Álava: Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro, noviembre y diciembre de 1936, Ediciones Beta III Milenio, S.L., Bilbo, 2014. / AGUIRREGABIRIA, J.M.: La batalla de Villarreal de Álava : Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro, noviembre y diciembre de 1936, Ediciones Beta III Milenio, S.L., Bilbo, 2014.

<sup>163</sup> Gernikako erregistro zibilean, beste izen bat txertatua dago, Aizpurua Salegui, Jose Vicente, baina bertan aurkitzen diren datuak ikusita, Aizpurua Arrizabalaga, Vicente jaunaren akastun sarrera berantiar bat dela ondorioztatu da (Debakoa jaiotzez, Gernikan bizi zen. Gernikako erregistro zibilean soldadu identifikatzen dute. 32 urte zituelarik Legutioko frontean borrokan ari zela zauritua izango da eta Gernikara eramango dute. Bertan zaurien ondorioz hil egin zen 1937ko abenduaren 2an eta Gernikako hilerrian ehortziko dute. / En el registro civil de Gernika está registrado otro nombre, José Vicente Aizpurua Salegui, pero viendo los datos que aparecen en él, se dedujo que es una entrada errónea tardía del señor Vicente Aizpurua Arrizabalaga (Nacido en Deba, pero que vivía en Gernika. En el registro civil de Gernika lo identifican como soldado. Teniendo 32 años, fue herido combatiendo en el frente de Legutio y lo llevaron a Gernika. Murió allí, el 2 de diciembre de 1937, a consecuencia de las heridas sufridas, y fue enterrado en el cementerio de Gernika.)



Legutioko fronteko postu defentsibo bat. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/ Indalecio Ojanguren). / Puesto defensivo del frente de Legutio. (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Indalecio Ojanguren).

### ARAMBERRI ARAQUISTAIN, FRANCISCO

Itziariko Isasi baserrikoa zen, Rusia batailoian jarduten zuelarik. Lemoan eman ziren borroketan hil zen 1937ko ekainaren 2an. Bere anaia Jose Mari aurkitu zuen, Lemoako tontorrean hilda<sup>164</sup>.

Era del caserío Isasi de Itziar. Estuvo en el batallón Rusia. Murió en los combates de Lemoa, el 2 de junio de 1937. Lo encontró su hermano José Mari, muerto en la cima de Lemoa<sup>164</sup>.



Lemoatxeko trintxerak. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/ Indalecio Ojanguren). / Trincheras de Lemoatx. (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Indalecio Ojanguren).

<sup>164</sup> ZULAICA J., *Violencia vasca única metáfora y sacramento*, Nerea, Madrid, 1988. / ZULAICA, J.: *Violencia vasca única metáfora y sacramento*, Nerea, Madrid, 1988.

## ARROYO GARCIA, EUSEBIO

1911ko azaroaren 4ean Deban jaio bazen ere<sup>165</sup>, Erreenteriara bizitzera joan zen, bertako Zamalbide kalean bizi izan zelarik, bere emazte Natividad Gracia Ilarduia eta bi semerekin, Ignacio eta Gabriel. Lanbidez, jornalaria zen herri horretako paper industrian eta UGT sindikatura afiliatua zegoen eta Sociedad Obreros Papeleros ataleko idazkaria izan zen Errepublikara<sup>166</sup>. Arlo politikoan Alderdi Komunistara afiliatua zegoen (PCE). Altxamendua eman zenean, honi erantzuteko sortutako milizietan txertatu zen, San Marcoseko gotorlekuan (Erreterian dagoen gotorleku militarra) jardun zuelarik.

Gipuzkoa iparraldea altxatuek armaz hartu ostean, frontearekin batera erretiratu zen, borrokan jarraituz. Horrela, PCERI lotuta zegoen Salsamendi batailoian txertatu zen, Eusko Gudarosteko kide bilakatuz. Behin frontea egonkortzea lortu zenean, batailoia hau, Bizkaia eta Araba arteko frontea defendatzen jardun zuen. 1937ko apirilaren 4ean Otxandion eman ziren borroketan hil zen Eusebio<sup>167</sup>. Egun honetan, Salsamendi batailoia borroka gogorretan murgilduta egon zen, non airezko bonbardaketa batek batailoia guztia desagerrarazi zuen. Momentuan, 33 hildako eta 284 desagertu zenbatu ziren, azken hauek gehienak frankistek preso hartuak. Hauetako asko, frankistek fusilatu zituzten, momentuan edota egun gutxira<sup>168</sup>. Ez dakigu Eusebioren gorpua non izan zen lurperatua.

Aunque nació en Deba el 4 de noviembre de 1911<sup>165</sup>, se fue a vivir a Erretería, viviendo en la calle Zamalbide, junto a su esposa Natividad Gracia Ilarduia y sus dos hijos, Ignacio y Gabriel. De oficio era jornalero en la industria del papel de ese pueblo, estaba afiliado al sindicato UGT y, durante la República fue secretario de la sección Sociedad Obreros Papeleros<sup>166</sup>. En política estaba afiliado al Partido Comunista (PCE). Cuando se dio el alzamiento se integró en las milicias para hacerle frente, y estuvo en el fuerte de San Marcos (fuerte militar de Erretería).

Cuando el norte de Gipuzkoa fue tomado por los sublevados por las armas, se retiró con el frente y siguiendo combatiendo. Así, se integró en el batallón Salsamendi, afín al PCE, convirtiéndose en miembro del Ejército Vasco. Una vez se consiguió estabilizar el frente, este batallón estuvo defendiendo el frente entre Bizkaia y Araba. Eusebio murió el 4 de abril de 1937, en los combates que se dieron en Otxandio<sup>167</sup>. Ese día, el batallón Salsamendi estuvo involucrado en duros combates. Un bombardeo aéreo hizo desaparecer a casi todo el batallón. En el momento, se contaron 33 muertos y 284 desaparecidos, la mayoría de estos últimos hechos prisioneros por los franquistas. Muchos de ellos los fusilaron, en el momento o en pocos días<sup>168</sup>. No sabemos dónde fue enterrado el cuerpo de Eusebio.

## DEL VALLE LERSUNDI MENDIZABAL, ALFONSO GARIN IÑIGO

1912ko ekainaren 19an jaio zen, Alfonso eta Maria Luisa zirelarik bere gurasoak<sup>169</sup>. Altxamenduari erantzuteko antolatutako Eusko Gudarosteko kide izan zen Amayur batailoian. Bizkaiako hiriburua defendatzeko Larrabetzuko Bizkargi mendiaren baitan izandako batailetan parte hartu zuen eta bertan jasandako zaurien ondorioz hil zen 1937ko maiatzaren 14ean. Derioko hilerrian lurperatu zuten<sup>170</sup>.

Nació el 19 de junio de 1912, y sus padres eran Alfonso y María Luisa<sup>169</sup>. Fue miembro del batallón Amayur del Ejército Vasco. Participó en las batallas del monte Bizkargi (Larrabetzu) para defender la capital de Bizkaia; murió a raíz de las heridas sufridas, el 14 de mayo de 1937. Lo enterraron en el cementerio de Derio<sup>170</sup>.

## ECHEVARRIA ELUSTONDO, SANTOS

Deban jaio eta bizi zen, jornalari gisa lan egiten zuen 21 urteko gazte ezkongabea zelarik. Saseta batailoian borrokatu zuen, zehazki Aitzol konpainian. Elgetako frontean destinatua zegoela, zauritu egin zuten eta Bilboko ospitale probintzian hil zen, zauri horien ondorioz 1937ko maiatzaren 6an<sup>171</sup>. Derion hilobiratu zuten eta 1947ko apirilak 05ean hobitik atera zuten<sup>172</sup>, bere sendiak nahi zuen tokian hilobiratzeko.

Nació y vivía en Deba, tenía 21 años, estaba soltero y trabajaba como jornalero. Combatió en la compañía Aitzol del batallón Saseta. Mientras estaba destinado al frente de Elgeta, lo hirieron y, a causa de ello, murió en el hospital provincial de Bilbao, el 6 de mayo de 1937<sup>171</sup>. Lo enterraron en Derio, pero lo exhumaron el 5 de abril de 1947<sup>172</sup>, para que su familia lo enterrara donde quisiera.

<sup>165</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>166</sup> DUAKo soldadutza zerrendetan karabinero izendapenarekin agertzen da, baina hau baztertu egin da, ezin izan baita kontrastatu inongo datu base edo artiborekin, eta papel industriako langile kasua ordeztu bai. / En las listas de reclutamiento del AMD aparece como carabinero, pero esto se ha rechazado, porque no se ha podido contrastar en ninguna base de datos o archivo; en cambio sí se ha contrastado que era trabajador de la industria papelera.

<sup>167</sup> RODRIGUEZ OÑATIBIA A., Erretería 1936-1945, Erreteríako udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte, Erretería, 2019. / RODRIGUEZ OÑATIBIA, A.: Erretería 1936-1945, Erreteríako udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte, Erretería, 2019.

<sup>168</sup> VARGAS ALONSO F.M., Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, EHU, Leioa, 2015. / VARGAS ALONSO, F.M.: Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, UPV, Leioa, 2015.

<sup>169</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>170</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>171</sup> EAH. / AHE.

<sup>172</sup> Derioko Erregistro Zibila, 1542 agindua. / Registro civil de Derio, orden 1542.



Larrabetzuko Bizkargi gaineko trintxerak (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren). / Trincheras del monte Bizkargi en Larrabetzu. (Archivo General de Gipuzkoa, DFG/Indalecio Ojanguren).

### ECHEVERRIA SALEGUI, FELIX

1912ko azaroak 3an jaio zen, Felix eta Maria izan zirelarik gurasoak. 1932ko soldadutzako zerrendan, Bilbora bizitzera joana zela aipatzen da<sup>173</sup>. Bertan, delineatzailea zen. 1936ko altxatuen erasoei erantzunez, Jean Jaures batailoian izena eman zuen, UGTaren 8. Batailoia (Eusko Gudarosteko 48.a) eta bertan sarjentu graduazioa lortu zuen. Desagertu bezala agertzen da Salamancako artxiboetan<sup>174</sup>.

Nació el 3 de noviembre de 1912, y sus padres eran Félix y María. En la lista de reclutamiento de 1932, se menciona que había ido a vivir a Bilbo<sup>173</sup>. Allí, trabajaba como delineante. En respuesta a los ataques de los sublevados de 1936 se alistó en el batallón Jean Jaures, en el batallón 8º de UGT (el 48º del Ejército Vasco) y logró el grado de sargento. En los archivos de Salamanca aparece como desaparecido<sup>174</sup>.

### EGAÑA ALBERDI, DOMINGO

17 urte zituela, Zaldibarreruntz joaten ikusi zuten, altxatuen tropak herrira gerturatzen hari zirela ikusita, hau ebakutzeko hautua egin baitzuen<sup>175</sup>. 1937ako maiatzean San Andres batailoia, ELAren batailoia, nominetan agertzen da, gudari moduan<sup>176</sup>. Ikuspuntu hau, bat dator bere arrebari testigu batek kontatu zionarekin, Bilboren defentsako borroketan, pertsona batek Ertzañaz jantzita Artxandara igotzen ikusi baitzuen, hura defenditzera zihoazen gudariekin batera. Berau da Domingoren inguruan dugun azken data<sup>177</sup>. 1942an, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruak bere datuak eskatu zizkion Debako udalari, bere soldadutzako deialdian ez zela agertu esanez. Ohikoa izaten zen, pertsona hau desagertua bezala agertzen baitzen<sup>178</sup>.

Teniendo 17 años le vieron irse hacia Zaldibar, pues viendo que las tropas de los sublevados se acercaban al pueblo decidió huir de allí<sup>175</sup>. En mayo de 1937, aparece como gudari en las nóminas del batallón San Andrés perteneciente a ELA<sup>176</sup>. Este dato concuerda con lo que un testigo le contó a su hermana: que en los combates por la defensa de Bilbo una persona le vio subir a Artxanda vestido de Ertzaña, junto a los gudarís que iban a defender aquel lugar. Ese es el último dato que tenemos sobre Domingo<sup>177</sup>. En un documento del Archivo Municipal de Deba (AMD) de 1942 aparece una petición del campo de concentración de Miranda de Ebro al Ayuntamiento de Deba, pidiendo datos sobre él porque no ha aparecido en su reemplazo. Solía ser bastante habitual, pues esta persona constaba como desaparecida<sup>178</sup>.

<sup>173</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>174</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>175</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>176</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>177</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>178</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

### EGAÑA IDIAQUEZ, PEDRO

Durango jaioa bazen ere, Deban bizi zen eta okina zen lanbidez. 23 urte zituen eta ezkongabea zen. Altxamenduari erantzuteko sortu zen Eusko Gudarosteko kide bilakatu zen. Munguia batailoiko kide zelarik, Barazarreko frontean eman ziren borroketan zauritu eta hauen ondorioz hil egin zen Bilboko Ospitale Probintzian, 1937ko apirilak 9an<sup>179</sup>. Derion ehortzi zuten, bere hilotza 1952ko azaroak 20an bertatik atera zuten, bere sendiak nahi zuen tokian hilobiratzeko suposa genezake<sup>180</sup>.

Aunque nació en Durango vivía en Deba y de oficio era panadero. Tenía 23 años y era soltero. Se hizo miembro del Ejército Vasco, que se creó para responder al alzamiento. Siendo miembro del batallón Munguía, fue herido en los combates del frente de Barazar y, a causa de ello, murió en el hospital provincial de Bilbo, el 9 de abril de 1937<sup>179</sup>. Lo enterraron en Derio, pero su cuerpo fue exhumado el 20 de noviembre de 1952<sup>180</sup>, suponemos que para que su familia lo enterrara donde quisiera.

### EGUINO ARAQUISTAIN, CELESTINO

Deban jaio zen Celestino, baina Eibarren bizi zen, armagile gisa lan egiten zuelarik. 31 urte zituen eta ezkongabea zen<sup>181</sup>. Euskal Milizietako kide zen eta Elgetan armategi batean aurkitzen zela hil zen, 1936ko abuztuaren 10ean, leherketa baten ondorioz jasan zituen zauriak zirela eta<sup>182</sup>. Eibarren bertan hilobiratu zuten<sup>183</sup>.

Celestino nació en Deba, pero vivía en Eibar y trabajaba como armero. Tenía 31 años y era soltero<sup>181</sup>. Era miembro de las Milicias Vascas y murió a consecuencia de las heridas que sufrió en la explosión de una armería de Elgeta, el 10 de agosto de 1936<sup>182</sup>. Lo enterraron en Eibar<sup>183</sup>.

### EGUINO ARAQUISTAIN, SANTIAGO

Itziarren jaio zen<sup>184</sup> eta langilea zen. 34 urte zituen eta ezkondua zegoen, bi seme alaba zituztelarik. EGI eta ELAko afiliatua, EAJren idazkaritza orokorraren atezain postua eskatu zuen<sup>185</sup>.

Gerra hastearekin batera, Eusko Gudarostearen deiarri erantzun eta Muñatones batailoian izena eman zuen<sup>186</sup>. Horrela, Elgetako frontean aritu zen besteak beste. Bere funtzioa Ertzaintzaren barruan garatu zuen, moto gidaria izan zelarik. Lanean ari zela, moto istripu bat izan zuen eta Amorebietako Ospitalean hil zen jasandako zaurien ondorioz 1937ko martxoak 12a eta 13 artean. Ondorioz, Eibarreko hilerrian lurperatu zuten<sup>187</sup>.



Ertzañaren logoa duen botoia (Euskal Memoria). / Botón que lleva el logo de la Ertzaña. (Euskal Memoria).

Eusko Gudarosteko Ertzañen argazkia. (Euskal Memoria). / Fotografía de los ertzañas del Ejército Vasco. (Euskal Memoria).

<sup>179</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

<sup>180</sup> Derioko Erregistro Zibila, 1064. Agindua. / Registro civil de Derio, orden 1064.

<sup>181</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>182</sup> GUTIERREZ AROSA J., La Guerra Civil en Eibar y Elgeta, Eibarko Udala, Eibar, 2007. / GUTIERREZ AROSA, J.: La Guerra Civil en Eibar y Elgeta, Eibarko Udala, Eibar, 2007.

<sup>183</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>184</sup> Durango-Amorebietako Erregistro Zibila, 257 erregistro zenbakia. / Registro civil de Durango-Zornotza, nº registro 257.

<sup>185</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 16, E0010160. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 16, E0010160.

<sup>186</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>187</sup> Durango-Amorebieta Erregistro Zibila 257. erregistro zenbakia. / Registro civil de Durango-Zornotza, nº registro 257.

orr.

Nació en Itziar<sup>184</sup>, tenía 34 años, estaba casado y tenía dos hijos. Afiliado a EGI y ELA, pidió el puesto de portero de la secretaría general del PNV<sup>185</sup>.

Al comenzar la guerra, respondió a la llamada del Ejército Vasco y se alistó en el batallón Muñatones<sup>186</sup>. Entre otros sitios, combatió en el frente de Elgeta. Cumplió su función dentro de la Ertzaña, siendo conductor de moto. Mientras estaba trabajando sufrió un accidente de moto y, a consecuencia de las heridas sufridas, murió en el hospital de Zornotza, entre el 12 y el 13 de marzo de 1937. Fue enterrado en el cementerio de Eibar<sup>187</sup>.



Donostian miliziano baten hileta segizioa 1936ko irailean. (Euskal Memoria). / Cortejo fúnebre de un miliciano en Donostia, en septiembre de 1936. (Euskal Memoria).

### ELDUAYEN IBARRA, CARLOS

Deban jaio zen baina Bilbon bizi zen. Altxamendua eman zenean 18 urte zituen eta honen aurka borrokatzeko Bizkaiatik Donostiara joandako miliziar zutabeetan engaiatu zen hasieratik. 1936ko uztailak 22an hil zen, Donostian bertan, hiria bereganatzen saiatu ziren Loiola kuarteleko militar altxatuen aurkako borroketan. Polloeko hilerrian lurperatu zuten<sup>188</sup>.

Nació en Deba pero vivía en Bilbo. Cuando se dio el alzamiento tenía 18 años y se unió desde el inicio a las columnas de milicianos que fueron de Bizkaia a Donostia a combatirlo. Murió en esa misma ciudad, el 22 de julio de 1936 en los combates que se dieron entre los milicianos y los militares del cuartel de Loiola, los cuales se querían adueñar de la ciudad<sup>188</sup>.

### ELIZONDO URAIN, BERNARDO

Deban jaio zen baina Bilbon bizi zen, bertan ezkondua zegoelarik eta bi seme-alaba zituzten. Medikuntza ikasketak amaituta, mediku gisa lan egin zuen Bizkaiako hiriburuan<sup>189</sup>. Zenbait iturrik bere bizitokia Donostian kokatzen dute, baina BAHPhko (Bizkaiako Artxibo Historiko Probintziala) fitxan, zehazten da bere heriotza Bilboko Erregistro Zibilean inskribatu zela, beraz, Bizkaiako hiriburuan bizi zela ondorioztatu da<sup>190</sup>.

<sup>188</sup> Donostiako erregistro Zibila. / Registro Civil de Donostia.

<sup>189</sup> EAH. / AHE.

<sup>190</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.



ANVko afiliatua zen eta kazetari gisa ere jardun zuen, altxamendua baino urte batzuk lehenago, alderdi honen Tierra Vasca aldizkariaren erredakzioan. Altxamendua eman zenean, Bilbotik Donostiara mugitu zen, non Odol Ospitaleak eratzten berebiziko garrantzia izan zuen. Hauek, frontetik gertu aurkitzen ziren zaurituak artatzeko puntuak izaten ziren, zaurituei arreta azkar bat eskainiz beraien bizia salbatzeko helburua zutenak. Bernardo, hiri honetako portuko Euskal-Billera elkartearen antolatzailea izan zen<sup>191</sup>. Ondorioz, Donostiako Osasun Komisarioritzako arduradun bilakatu zen<sup>192</sup>. Bere prestakuntza profesionala baliatuz, Sanidad de Guipuzcoa batailoian eman zuen izena. 34 urte zituela hil zen Tolosako frontean jasandako zaurien ondorioz, 1936 abuztuaren 12an<sup>193</sup>.

Abuztuak 13ko Fronte Popularraren aldizkarian bere nekrologika aurki genezake. Bertan azaltzen da Tolosako defentsarako borroketan, zaurituak artatzen hari zela zauritu eta hil zela. Bertatik, Donostiako Ospitale Zibilera eramana izan zen, nondik hileta prozesioa abiatu zen, hilkutxa bandera gorri batekin bildua joan zen eta jende andana bildu zen bere baitan. Agur ekitaldia, Tabacalera aurrean egin zioten, Polloeko hilerrian lurperatu zutelarik ostean<sup>194</sup>.



ANVko gudariak tropen ikuskatze batean. (Euskal Memoria). / Gudaris de ANV durante una revista de las tropas. (Euskal Memoria).

Nació en Deba pero se casó a Bilbo, y tenían dos hijos. Terminó los estudios de medicina y trabajaba como médico en la capital de Bizkaia<sup>189</sup>. Algunas fuentes sitúan su vivienda en Donostia, pero en la ficha del Archivo Histórico Provincial de Bizkaia (AHPB) se especifica que su muerte se inscribió en el registro civil de Bilbo y, por lo tanto, deducimos que vivía en la capital de Bizkaia<sup>190</sup>.

Era afiliado de ANV y también estuvo trabajando como periodista, algunos años antes del alzamiento, en la redacción de la revista Tierra Vasca de ese partido. Cuando se dio el alzamiento se fue de Bilbo a Donostia, donde tuvo una gran importancia creando Hospitales de Sangre. Esos hospitales eran puntos para atender a los heridos que estaban cerca del frente, ofreciendo una rápida atención y con el objetivo de salvarles la vida. Bernardo fue organizador del Hospital de Sangre de la sociedad Euskal-Billera, formada en el puerto de esta ciudad<sup>191</sup>. Por consiguiente, se convirtió en el responsable de la Comisaría de Salud de Donostia<sup>192</sup>. Aprovechando su prestación profesional, se alistó en el batallón Sanidad de Guipuzcoa. Murió el 12 de agosto de 1936, a la edad de 34 años, por las heridas sufridas en el frente de Tolosa<sup>193</sup>.

Se puede encontrar su necrológica en la revista del 13 de agosto del Frente Popular. En ella se dice que en los combates para la defensa de Tolosa fue herido cuando estaba atendiendo a los heridos, y murió. De allí fue llevado al Hospital Civil de Donostia, donde se hizo una procesión de funeral que congregó a mucha gente, y el ataúd se llevó envuelto en una bandera roja. La ceremonia de despedida se realizó delante de Tabacalera y, después, fue enterrado en el cementerio de Polloe<sup>194</sup>.

<sup>191</sup> Frente Popular: diario de la República aldizkaria, 18. Zenbakia, 4. orrialdea. / Frente Popular: diario de la República aldizkaria, 18. Zenbakia, 4. orrialdea.

<sup>192</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 17, E0014256. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 17, E0014256.

<sup>193</sup> EAH. / AHE.

<sup>194</sup> Frente Popular: diario de la República aldizkaria, 18. Zenbakia, 4. orrialdea. / Revista Frente Popular: Diario de la República, N° 18, p. 4.

Orr.

## ESNAOLA IRAOLA, RAFAEL

Deban jaio zen, 1904ko abenduaren 31an eta PCE alderdira afiliatua zegoen<sup>195</sup>. Hala ere, Erretereriako Beheko Kanean bizi zen, Francisca Covarrubias emaztearekin eta beraien seme-alabekin (Pepita, Rafael, Agustin, Ignacio, Jose Mari, Manoli, Antoni eta Ana Maria, azken hau Frantziako Estatuan jaio zen). Francisca emazteak, Euskal Herritik ihes egin behar izan zuen eta ondorioz, epaiketa militar bat jasan behar izan zuen itzuleran. Hala ere, Altzarekin (Donostiako auzo bat), lotura handia zuten, hainbat iturritan bertakoak zirela aipatzen delarik<sup>196</sup>. Rafael ofizioz leuntzailea zen.

Altxamendua eman eta lehen uneetatik, milizietan jardun zuen, hasiera batean Altzako Lehen Konpainia Gorrian, sarjentu gradua lortuz bertan<sup>197</sup>. Ostean, Asturias aldera mugitu zen, MAOCeko Larrañaga batailoiarekin batera, bertako fronteetan borrokan zauritua izan zelarik. Itzuleran, Karl Liebnecht batailoiko kide izatera pasa zen, non kapitain gradua lortzera iritsi zen, 4 Konpainikoa zehatzagoak izateko<sup>198</sup>. 1937ko apirilaren 28an hil zen Bilbon, Durangon frontean borrokan ari zela jasandako zaurien ondorioz<sup>199</sup>. Egun horretan, Garaitik Gallanda mendirako bidean eta Durangon bertan eman ziren borrokek. Azken honetan erresistentzia gogorra eskaini zutelarik euskal miliziek, herri barruko etxebizitzetan, baina Durango egun honetan bertan erori zen. Bilboko Vista Alegre hilerrian hilobiratu zuten eta bere fitxa Bilboko lehen erregistro zibilean dago<sup>200</sup>.

Nació en Deba, el 31 de diciembre de 1904, y estaba afiliado al PCE<sup>195</sup>. Vivía en Erretereria, en la calle Beheko Kale, con su esposa Francisca Covarrubias y con sus hijos/-as: Pepita, Rafael, Agustín, Ignacio, José Mari, Manoli, Antoni y Ana María (esta última nació en el Estado francés). Su esposa tuvo que huir de Euskal Herria y, por lo tanto, a la vuelta tuvo que sufrir un juicio militar. De todos modos, tenían mucha relación con el barrio donostiarra de Alza, pues en muchas fuentes se menciona que eran de allí<sup>196</sup>. Rafael era pulidor de oficio.

Estuvo en las milicias desde los primeros momentos del alzamiento, al principio, en la Primera Compañía Roja de Alza, llegando al grado de sargento<sup>197</sup>. Después, se fue hacia Asturias con el batallón Larrañaga de la MAOC y fue herido combatiendo en el frente. A la vuelta, pasó a ser miembro de la 4ª compañía del batallón Karl Liebnecht, donde logró la graduación de capitán<sup>198</sup>. Murió en Bilbo el 28 de abril de 1937, a consecuencia de las heridas sufridas combatiendo en el frente de Durango. Fue enterrado en el cementerio de Vista Alegre en Bilbo y su ficha está en el primer registro civil de Bilbo<sup>199</sup>. El día de su muerte se dieron combates en el camino de Garai hacia el monte Gallanda y en el mismo Durango. Las milicias vascas demostraron una gran resistencia en las viviendas de dentro del pueblo, pero Durango cayó ese mismo día<sup>200</sup>.

## IDIAQUEZ EGAÑA, PEDRO

Altxamendua eman zenean, honi erantzuteko nahiarekin, Eusko Gudarostean engaiatu zen, Mungia batailoian<sup>201</sup>. Altxatuen aurrerakada zela eta, ebakuatu egin behar izan zuen eta Bilboko Altzairuzko Gerrikoan borrokatzen jardun zuen, 1937ko udaberrian. Mungia batailoiak, maiatzak 6tik borroka latzei aurre egin zien, Sollubeko defentsetatik erretiratu eta Bizkargiko defentsa posizioetara pasa zirelarik. Bertan aurkitzen zela, artilleria eta hegazkin frankistek erasoaldi bortitz bat burutu zuten Bilboko Gerrikoaren aurka, Bizkargi jo puntu nagusietako bat izanik, posizio batzuk guztiz deseginda utziz<sup>202</sup>. Erasoaldi hauen ondorioz, Pedro frontean hil zen, 1937ko maiatzaren 12an<sup>203</sup>.

Cuando se dio el alzamiento, se alistó en el batallón Munguia del Ejército Vasco, con ganas de dar una respuesta<sup>201</sup>. Debido al avance de los sublevados tuvo que huir y estuvo combatiendo en el Cinturón de Hierro de Bilbo, en primavera de 1937. El batallón Munguia tuvo que hacer frente a duros combates desde el 6 de mayo, teniendo que retirarse de las defensas de Sollube a las posiciones defensivas de Bizkargi. Estando él allí, la artillería y la aviación franquista realizaron un duro ataque contra el Cinturón de Bilbo. Uno de los objetivos principales fue Bizkargi, y varias posiciones quedaron totalmente destruidas<sup>202</sup>. Debido a esos ataques Pedro murió en el frente el 12 de mayo de 1937<sup>203</sup>.

<sup>195</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0032039. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 17, E0032039.

<sup>196</sup> RODRIGUEZ OÑATIBIA A., Erretereria 1936-1945, Erretereriako udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte, Erretereria,2019. / RODRÍGUEZ OÑATIBIA, A.: Erretereria 1936-1945, Erretereriako udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte, Erretereria, 2019.

<sup>197</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0032036. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 17, E0032036.

<sup>198</sup> VARGAS ALONSO F.M., Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, EHU, Leioa, 2015. / VARGAS ALONSO, F.M.: Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, UPV, Leioa, 2015.

<sup>199</sup> EAH. / AHE.

<sup>200</sup> URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001. / URGOITIA BADIOLA, J.A. (dir.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001.

<sup>201</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

<sup>202</sup> URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001. / URGOITIA BADIOLA, J.A. (dir.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001.

<sup>203</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.



Bizkargi gaineko trintxerak, Larrabetzun. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren). / Trincheras del monte Bizkargi en Larrabetzu. (Archivo General de Gipuzkoa, DFG/Indalecio Ojanguren).

### ISASTI URANGA, GREGORIO

Getariarra jaiotzez, Deban bizi zen<sup>204</sup>. 41 urte zituen eta ezkongabea zen. Eusko Gudarostea eratu zenean, nahiz eta adinez nagusia izan, bertan engaiatu zen altxatuen aurka borrokatzeko. Amayur batailoiko kide zela, Bilbo hiriarren defentsan jardun zuen. Horrela, Lezaman aurkitzen ziren 1937ko maiatzak 14ean, non aire bonbardaketa bat jasan zuten Amayur batailoiko ki-deek. Jasandako zaurien ondorioz hil zen, bere batailoiko kide batekin batera. Derioko hilerrian lurperatu zuten<sup>205</sup>.

Nació en Getaria, pero vivía en Deba<sup>204</sup>. Tenía 41 años y era soltero. Aunque era mayor, cuando se formó el Ejército Vasco se alistó para combatir a los sublevados. Siendo miembro del batallón Amayur estuvo defendiendo la ciudad de Bilbo. El batallón Amayur se encontraba en Lezama el 14 de mayo de 1937, cuando sufrieron un bombardeo aéreo. Gregorio murió ese mismo día a consecuencia de las heridas sufridas, junto a otro miembro del batallón. Lo enterraron en el cementerio de Derio<sup>205</sup>.

### IZAGUIRRE ECHANIZ, RAMON

Deban jaio zen baina Eibarren bizi zen. UGT-PSOeko Meabeko 3. Batailoiko kidea zen, Amuategui izenez ezagutzen zena. Zehatzagoak izateko, lehen konpainiako milizianoa zen. Bizkaiaren defentsan, frontean borrokan aurkitzen zelarik, zauritua izan zen eta ondorioz Barakaldoko Ospitale Militarera eraman zuten. 1937ko ekainaren 3an, jasandako zauriak zirela eta hil egin zen. Bertako erregistro zibilean inskribatu zuten, herriko hilerrian hilobiratuz<sup>206</sup>.

Nació en Deba pero vivía en Eibar. Era miembro del 3º batallón de Meabe, conocido como Amuategui, perteneciente a UGT-PSOE. Para ser más exactos, era miliciano de la primera compañía. Fue herido mientras combatía en el frente defendiendo Bizkaia y, por eso, fue llevado al Hospital Militar de Barakaldo; murió el 3 de junio de 1937, debido a las heridas sufridas. Fue inscrito en el registro civil de allí mismo y enterrado en el cementerio local<sup>206</sup>.

<sup>204</sup> EAHn Getarian bizi zela aipatzen da, Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basean Deban bizi zela. Azken honen aldeko hautua egingo dugu, herri honetan bertan bi Isasti Uranga agertzen baitira, bat Gurseko kontzentrazio esparruan egona. / En el AHE se menciona que vivía en Getaria y en la base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi que vivía en Deba. Optaremos por ese último dato, pues en ese pueblo aparecen otros dos Isasti Uranga (uno de ellos estuvo en el campo de concentración de Gurs).

<sup>205</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>206</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.

N.º 0169996 /18

**ACTA DE DEFUNCIÓN**

MINISTERIO DE JUSTICIA  
REGISTROS CIVILES  
REGISTRO CIVIL DE

Certificación Gratuita  
(Ley 25/1986, de 24-12)

Número \_\_\_\_\_ DISTRITO DE \_\_\_\_\_

**NOMBRE Y APELLIDOS**

*Ramón Izaguirre Echaniz*


En *Baracaldo*, provincia de *Vizcaya*, y las *casas* y del día *catorce de junio* de mil novecientos *treinta y siete*, ante D. *Julio Fernández y Lucio* y D. *Samuel Gorostiza y Ponce* Jueces municipales, y D. *Ramón Izaguirre Echaniz* Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. *Ramón Izaguirre Echaniz*, natural de \_\_\_\_\_, provincia de \_\_\_\_\_, hijo de D. \_\_\_\_\_ y de D.ª \_\_\_\_\_, domiciliado en \_\_\_\_\_, número \_\_\_\_\_, piso \_\_\_\_\_, de profesión \_\_\_\_\_ y de estado <sup>(1)</sup> \_\_\_\_\_

falleció en <sup>(2)</sup> *Baracaldo (Hospital Militar)*, el día *catorce* del actual \_\_\_\_\_, a las *veinticuatro* en el *aparte* \_\_\_\_\_, a consecuencia de <sup>(3)</sup> *heridas sufridas* según resulta de <sup>(4)</sup> *percepción facultativa* y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el cementerio de *San Vicente*. Esta inscripción se practica en virtud de <sup>(5)</sup> *certificado del Director del Hospital Militar de Baracaldo* consignándose además <sup>(6)</sup> \_\_\_\_\_

habiéndola presenciado como testigos D. *Isidoro Muñoz Pastor* y D. *Jose Gruesca Garcia* mayores de edad y vecinos de *Baracaldo*.  
Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el Sr. Juez, los testigos <sup>(7)</sup> \_\_\_\_\_, de que certifico.

*J. J. J. J.*

*Ramón Izaguirre Echaniz*



Ramón Izaguirre Echanizen heriotza ziurtagiria. (Barakaldoko erregistro zibila). / Certificado de defunción de Ramón Izaguirre Echaniz. (Registro civil de Baracaldo).

## SARASOLA GAINZA, JESUS

Deban jaio zen eta Donostiako udal langilea zen<sup>207</sup>. Errepublikaren alde ibili zen borrokan, Donostiatik hasi eta Iparraldeko Frontearen erresistentzia gune ezberdinetan. Altxatuen erasoaldiaren ondorioz gauzatutako atzerakadan, 1937ko uda amaieran Santanderrera iritxi zen. Hiriaren defentsan eman ziren borroketan jardun zuen, nahiz eta berau altxatuen tropek inguratua egon. 1937ko abuztuak 25ean hil zen frontearen<sup>208</sup>. Hurrengo egunean, eguadiako 12etan, altxatuen tropak hirian sartu ziren, berau konkistatuz<sup>209</sup>.

Nació en Deba y era empleado municipal en Donostia<sup>207</sup>. Combatió por la República, empezando en Donostia y en varios focos de resistencia del Frente Norte. En la retirada producida por el avance de los sublevados, llegó a Santander a finales de verano de 1937. Estuvo combatiendo en las batallas por la defensa de esa ciudad, aunque estaba totalmente rodeada de tropas sublevadas. Murió en el frente el 25 de agosto<sup>208</sup>, y a las 12 del mediodía del día siguiente, las tropas sublevadas entraron y tomaron la ciudad<sup>209</sup>.

<sup>207</sup> Donostia 1936-1945 proiektua, <https://www.donostia1936.eus/es/ficha/?id=1591-tik-lortua>. / Proyecto Donostia 1936-1945, conseguido de la página: <https://www.donostia1936.eus/es/ficha/?id=1591>.

<sup>208</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

<sup>209</sup> JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA L.M., Crónica de la Guerra en el Norte 1936-1937, Txertoa, Donostia, 2003. / JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, L.M.: Crónica de la Guerra en el Norte 1936-1937, Txertoa, Donostia, 2003.

## ZALBA AYARZA, RAMON

1913ko apirilaren 23an jaio zen, Debako Areatzan<sup>210</sup>. Hala ere, Azpeitian bizi zen eta 24 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean. Euzko Jaurlaritzaren deia erantzunez, Saseta batailoiko parte izatera pasa zen, bertan jardun zuelarik borrokan<sup>211</sup>. Saseta batailoia, 1937ko apirilaren amaieran, Intxortako frontean aurkitzen zen, baina hau hilabete honetako 23an erori eta gero atzeraldian aurkitzen ziren<sup>212</sup>. Sei hilabetez iraun zuen frontearen gainbehera geratu eta egoera egonkortzeko helburuarekin Bizkaian borrokan ziharduela, bizia galdu zuen Ramonek, apirilak 26an<sup>213</sup>.

Nació el 23 de abril de 1913 en Areatza de Deba<sup>210</sup>. Vivía en Azpeitia, y tenía 24 años cuando comenzó la Guerra Civil. Respondiendo a la llamada del Gobierno Vasco, se alistó en el batallón Saseta y en él estuvo combatiendo<sup>211</sup>. El abril de 1937 el batallón Saseta estaba en el frente de Intxorta, pero tras caer este el 23 de ese mes, estaba en retirada<sup>212</sup>. Mientras combatía en Bizkaia con el objetivo de estabilizar la situación, el declive del frente duraba ya seis meses. Ramón perdió la vida el 26 de abril<sup>213</sup>.



**Intxortako tontorrak bonbardaketa baten ostean.** (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/ Indalecio Ojanguren). / **Las cimas de Intxorta tras un bombardeo.** (Archivo General de Gipuzkoa, DFG/ Indalecio Ojanguren).

## ZULAICA BELOQUI, ANDRES

1911ko irailak 23an jaio zen Debako Iturkalen, Victor eta Josefaren semea zelarik<sup>214</sup>. Altxamendua ematearekin batera Euzko Gudarostea antolatuz joan zen eta Andres honen, Ingeniariaren 2. Batailoiko kide bilakatu zen. Ingeniarien batailoiak, trintxerak eta gotorlekuak prestatzeaz arduratzen ziren eta beste batzuetan, frontean, bonbardaketak eraitziko defentsak berrezarri behar zituzten. Andres zegoen batailoia, Bizkaiko frontean zehar hainbat lekutan jardun zuen, berau EAJ alderdiaren baitan eratutako batailoia izan zelarik<sup>215</sup>. Andresen kasuan, dakigun bakarra da, desagertutzat eman zutela eta familiak ez duela inoiz ezer gehiago jakin bere inguruan<sup>216</sup>.

Nació el 23 de septiembre de 1911, en la calle Iturkale de Deba y era hijo de Víctor y Josefa<sup>214</sup>. Cuando se dio el alzamiento se fue organizando el Ejército Vasco, y Andrés se alistó en el 2º batallón de Ingenieros del mismo. Los batallones de ingenieros se encargaban de preparar las trincheras y los fuertes y, otras veces, tenían que restaurar las defensas destruidas por los bombardeos en el frente. El batallón en el que anduvo Andrés, que fue formado en torno al PNV, estuvo en varios sitios del frente de Bizkaia<sup>215</sup>. En el caso concreto de Andrés, lo único que sabemos es que lo dieron por desaparecido y que la familia no ha vuelto a saber nada sobre él<sup>216</sup>.

<sup>210</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>211</sup> BUCES CABELLO J., Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016. / BUCES CABELLO, J.: Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016.

<sup>212</sup> URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001. / URGOITIA BADIOLA, J.A. (dir.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001.

<sup>213</sup> BUCES CABELLO J., Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016. / BUCES CABELLO, J.: Azpetia 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2016.

<sup>214</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

<sup>215</sup> VARGAS ALONSO F.M., "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937)", Vasconia 31, 2001, <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas31/31305343.pdf-tik-lortua>. / VARGAS ALONSO, F.M.: "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937)", Vasconia 31, 2001, de la web <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas31/31305343.pdf>.

<sup>216</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

orr.

*Eusko Gudontzidia, Matxitxakoko batailan hil ziren debarrak / Marina de Guerra Vasca. Debarras muertos en la batalla de Matxitxako*

Deba, itsas bazterreko herria izanik, itsaoarekiko lotura izan du betidanik eta hau ere debarren mobilizazioan ere nabaritu zen. Eusko Jaurlaritzak antolatutako Gudontzidian ere debarrak aurkitzen zirelarik. Hauetako batzuk, Matxitxakoko batailan borrokatu eta bizia eman zuten.

Altxatuen itsas armada, errepublikarra baino askoz botereitsuagoa zen Bizkaiako Golkoan eta ondorioz, itsas blokeo bat ezarria zuen Euskal Herriari. Berau apurtzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak konboiak antolatu zituen, bere esku zituen bou armatuekin eskoltatuak. Horietako bat, *Galdames* merkantzi ontziak osatzen zuen eta 1937ko martxoak 4eko arratsaldeko 8etan Baionatik irten zen, *Nabarra*, *Donostia*, *Bizkaia* eta *Gipuzkoa* bouen laguntzarekin. Gauetz baina, irrati bidez komunikatzeko debekua zela eta, banandu egin ziren.



**Galdames karga itsasontzia.** (Euskal Memoria). / El barco de mercancías Galdames. (Euskal Memoria).



**Nabarra boua.** (<http://archivoexvotos.revista-sanssoleil.com/bizkaia/>). / El bou Nabarra. (<http://archivoexvotos.revista-sanssoleil.com/bizkaia/>).

Eguna argitzearekin, *Gipuzkoa* boua, *Canarias* gurutzontzi frankistarekin aurkitu zen parez pare, hau *Yorkbrook* merkantzi ontzi estoniarra eskoltatzen hari zen. Honekin izandako borrokan, bi marinela hil ziren baina Bilboko portuan babestea lortu zuen. Bitartean, *Bizkaiak* *Yorkbrook* ontzia atzeman eta Bermeoko portura eraman zuen.


*Canarias* orduan, gainontzeko konboiaren bila joan zen, *Galdames* tirokatu eta atxikiz. Ondoren, *Donostian* jarri zuen jo-puntua, beroni eraso eginez, *Donostiak* ezin izan zion erantzun, bere armamentu ahula zela eta. Orduan, *Nabarra* boua sartu zen borrokara, arratsaldeko 15:00ak aldera. Gurutzontzia armamentu aldetik, indartsuagoa zen eta guztiarekin erasotu zion. Tripulazioak, ontzia ez zutela inolako errendituko erabaki eta zuten guztiarekin erantzun zion. Itsaso txarra baliatuz erresistentzia gogorra erakutsi zuen, ahalik eta kainoikada batek galdara jo, guztiz izorratu eta bertako langile guztiak hil zituen arte.

Manejo gabe, borrokan jarraitu zuten, ontzia ondoratzen hasi zen arte. Kapitaina, Enrique Moreno eta ofizial batzuk, ontziarekin ondoratzeke hautua egin zuten, tripulazioako 49 kideetatik 20 bakarrik salbatu zirelarik. Hauek, frankistek atxiki eta gerra kontseiluan heriotzara kondenatuak izan ziren. Hala ere, Salvador Moreno eta Manuel Calderon, kapitain eta kapitain-tiro arduradunak, Francoren aurrean

Al amanecer, el bou *Gipuzkoa* se topó frente a frente con el crucero *Canarias* que estaba escoltando el barco de mercancías estonio *Yorkbrook*. En el combate que tuvieron murieron dos marineros, pero lograron refugiarse en el puerto de Bilbo. Mientras, el *Bizkaia* apresó el barco *Yorkbrook* y lo llevó al puerto de Bermeo.

Entonces, el *Canarias* fue en busca del resto del convoy, disparó al *Galdames* y logró apresarlos. Su siguiente objetivo fue el *Donostia*. Le atacó, pero el *Donostia* no le pudo responder porque su armamento era débil. Entonces, hacia las 15:00 horas, entró el bou *Nabarra* en el combate. El crucero era más fuerte en cuanto al armamento, y le atacó con todo. La tripulación decidió que nunca se rendirían y respondieron con todo lo que tenían. Aprovechando la mala mar demostraron una dura resistencia, hasta que un cañonazo le dio a la caldera, estropeándolo del todo, y matando a todos los trabajadores que estaban allí.

Aun sin manejo, siguieron combatiendo, hasta que el barco empezó a hundirse. El capitán, Enrique Moreno, y unos oficiales, decidieron hundirse con el barco y solo se salvaron 20 de los 49 miembros de la tripulación. Estos fueron apresados por los franquistas y fueron condenados a muerte en consejo de guerra. De todos modos, Salvador Moreno y Manuel Calderón, capitán y capitán de tiro, inter-



**Canarias gurutzontziaren kanoiak.** (<http://marinvasca.eu/images/Torres-de-proa-del-crucero-CANARIAS-AD003739.jpg>). / **Cañones del crucero Canarias.** (<http://marinvasca.eu/images/Torres-de-proa-del-crucero-CANARIAS-AD003739.jpg>).

zuzenean eragin zuten, beraien indultua eskatuz. 1938ko azaroak 30ean aske utzi zituzten<sup>217</sup>.

Manuel Calderon tiro kapitaina, debarra zen gainera, Eusko Gudontzidiaren adorea goraiatu zuen eta bertan jardun zuten marinelen babesean jardun zuen etengabe gerra garaian eta osteko urte ilunetan, beraiantzako onurak, indultuak eta lanpostuak lortuz. Eusko Gudontzidiko marinelen harreman hona izan zuen urte luzez.

cedieron directamente sobre Franco, para pedir su indulto. El 30 de noviembre de 1938 los soltaron<sup>217</sup>.

El capitán de tiro Manuel Calderón, que además era debarra, elogió la valentía de la Marina Vasca y, durante la guerra y los posteriores oscuros años, anduvo sin parar defendiendo los marineros que lucharon en él. Consiguió beneficios, indultos y puestos de trabajo para ellos. Durante años mantuvo una buena relación con muchos marineros de la Marina Vasca.

## ASPIAZU ESNAOLA, MODESTO

Mundakarra jaiotzez, Deban bizi zen, 23 urte zituen eta marinela zen, ezkongabea<sup>218</sup>. Bere anaia bezala, EAJ eta ELAn zegoen afiliatua. Euzkadiko Gudontzidiko kide izan zen, artillero lanak burutu zituelarik lehenik eta behin *Araba* bouan, 1937ko otsailaren 2tik eta gero *Nabarran* martxoak 2tik aurrera. Matxitxakoko batailan bere bizia borrokan eman zuen, martxoak 5ean, *Canarias* gurutzontziaren aurka<sup>219</sup>.

Nació en Mundaka pero vivía en Deba; tenía 23 años, estaba soltero y era marinero<sup>218</sup>. Como su hermano, estaba afiliado a PNV y ELA. Estuvo como artillero en la Marina Vasca; primero en el bou *Araba* a partir del 2 de febrero de 1937 y, luego, en el *Nabarra* a partir del 2 de marzo. Dio su vida en la batalla de Matxitxako, el 5 de marzo, combatiendo contra el crucero Canarias<sup>219</sup>.

## ODRIOZOLA BASURTO, JUAN

1911ko urriak 13an jaio zen, Sakabiaga baserrian<sup>220</sup>. 25 urte zituen eta Deban bizi zen gaztea zen Juan, ELA sindikatura afiliatua zegoena eta marinela izatea zuena ogibide. Gerra Zibilak hasiera ematearekin batera Euzko Gudontzidiko kide bilakatu zen, bere lan esperientzia zela eta. Bertan, sugin postua izan zuen, lehenik eta behin *Euskal-erria* ontzian, 1936ko azaroa eta

<sup>217</sup> PARDO SAN GIL J., Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008. / PARDO SAN GIL, J.: Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008.

<sup>218</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.


<sup>219</sup> PARDO SAN GIL J., Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008. / PARDO SAN GIL, J.: Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008.

<sup>220</sup> DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

Orr.

abendua bitartean eta ondoren NABARRA boua izendatu zuen Euzkadiko Gudontzidiko buruzagitzak. Bertan jardun zuen lanean, hainbat itsasontziri eskolta lanak burutuz. 1937ko martxoan, *Nabarra* bouak *Canarias* gurutzontziarekin topo egin zuen arte. Bertan galdu zuen bizia Juanek, gudontzi frankistaren kanoikada batek galdarak bete betean jo ostean, 1937ko martxoak 5ean<sup>221</sup>. Heriotza Bilboko laugarren erregistro zibilean inskribatu zen<sup>222</sup>.

Nació el 13 de octubre de 1911, en el caserío Sakabiaga<sup>220</sup>. Juan era un joven de 25 años que vivía en Deba, de oficio marinero y afiliado al sindicato ELA. Al comienzo de la Guerra Civil, se hizo miembro de la Marina Vasca de Guerra, por su experiencia laboral. Estuvo trabajando como fogonero; al principio en el barco *Euzkal-Erria*, entre noviembre y diciembre de 1936, y después, fue destinado al bou Nabarra por la jefatura de la Marina Vasca de Guerra. Estuvo trabajando allí escoltando varios barcos, hasta que en marzo de 1937 el bou Nabarra se encontró con el crucero *Canarias*. Allí perdió la vida Juan, cuando un cañonazo del crucero franquista dio de lleno a la caldera, el 5 de marzo de 1937<sup>221</sup>. La muerte se registró en el 4º registro civil de Bilbo<sup>222</sup>.

  
EUKADIKO JAURLARITZA  
EUDA ZAINGOA  
ITXAR-EALA  
BURUTZA  
GOBIERNO DE EUZKADI  
DEPARTAMENTO DE DEFENSA  
SECCION DE MARINA  
JEFATURA

Excm<sup>o</sup> Sr. Consejero de Defensa.  
Excm<sup>o</sup> Sr.:

Habiendose informado esta Jefatura por mediación de las Autoridades Consulares Británicas de esta Villa de la existencia de 18 tripulantes de la heroica dotación del bou "NABARRA" prisioneros de los facciosos en Donostia, únicos supervivientes de los 49 hombres que formaban la tripulación a su salida de nuestro puerto en el último servicio reglizado, y habiendo llegado el rumor a esta Jefatura de que las autoridades del campo faccioso parecen objetar respecto a la integridad personal de estos 18 hombres de mar que tan heroicamente lucharon en situación de tan notoria diferencia, alegando que del bou "VIRGEN DEL CARMEN" que llegó a nuestro Puerto, fueron fusilados el Comandante y uno de los maquinistas, ruego a V.E. se digne interponer con el mayor interés cerca de las representaciones diplomáticas extranjeras, a fin de evitar la consumación de los hechos que pretenden realizarse, haciendo bien presente que si por el Tribunal Popular se dictó sentencia en el sentido apuntado, fué debido a que sobre ellos pesaban graves acusaciones por parte de la tripulación, en relación con la conducta seguida por los mismos en el apresamiento del buque "GALERNA" con las desagradables consecuencias que ello ocasionó.-


Por lo expuesto reitero a V.E. el precedente ruego, a fin de ver de evitar que por parte de los elementos facciosos se evite este nuevo derramamiento de sangre, ya que suficientemente pagó esta tripulación su tributo a la muerte con la vida de 31 de sus miembros. ..//..


JEFATURA DE MARINA  
SALIDA  
17 MAR. 1937  
N.º 149

Todo lo cual tengo el honor de exponer a V.E. con encarecido ruego de que tenga a bien proceder a las gestiones oportunas al importante fin expuesto.-

Bilbao, 17 de Marzo de 1.937

EL JEFE DE LA SECCION DE MARINA





Eusko Jauriaritzak Matxitxakoko batailaren baitan eginiko informea. (EAH) / Informe realizado por el Gobierno Vasco sobre la batalla de Matxitxako. (EAH)

<sup>221</sup> PARDO SAN GIL J., Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008. / PARDO SAN GIL, J.: Euzkadiko gudontzidia 1936-39, Untzi Museoa, Donostia, 2008.

<sup>222</sup> Aranzadi Zientzia Elkarteko datu basea. / Base de datos de Sociedad de Ciencias Aranzadi.



## Debaren galera, irailak 23

Behin Donostia errepublikarren esku geratu zenean, frontea egonkor samar mantentzea lortu zen hilabetez, nahiz eta Tolosa bezalako herri garrantzitsuak altxatuen esku erori ziren abuztu erdian zehar. Honen zergatia, altxatuen tropak Espainiako Estatuko hiriburua, Madril konkistatzeko burututako erasoaldian aurkitzen dugu. Bertako milizianoen erresistentzia gogorak, altxatuek beraien helburuak ez lortzea ekarri zuen. Orduan, hauek Iparraldeko Frontean jarri zuten jo puntua. Horrela, Irungo batailaren hasierarekin batera abuztuaren 27an, Gipuzkoaren aurkako ofentsiba orokor bat abiarazi zuen Mola jeneralak, Nafarroako indar militar eta karlisten erreketek batailoiekin.

Molaren erasoaldi orokortuaren lehen ondorioa, Irunen galera izan zen, irailaren 5ean. Ondorioz, etengabeko atzerabide bat egitera behartuak aurkitu ziren Gipuzkoako Defentsa Batzordeen baitan antolatutako indarrek. Borroka gogorren ostean, Donostia irailaren 13an erori zen eta honen biztanleriaren ebakuazio orokor bat ekarri zuen, milaka pertsonak Bizkaia alderako ihesari ekingo ziotelarik, altxatuen tropen errepresioaren beldur. Hauetako milaka Debatik pasa ziren, kostako errepidea eta trenbidea baliatuz.

## La pérdida de Deba el 23 de septiembre

Una vez que Donostia quedó en manos de los republicanos se consiguió mantener el frente bastante estable durante un mes aunque, a mediados de agosto, varios pueblos importantes, como Tolosa, cayeron en mano de los sublevados. La razón la encontramos en la ofensiva que realizaron las tropas sublevadas contra Madrid, la capital del Estado español. La dura resistencia de los milicianos hizo que los sublevados no consiguieran sus objetivos y, entonces, estos cambiaron el objetivo hacia el Frente del Norte. De ese modo, con el comienzo de la batalla de Irun el 27 de agosto, el general Mola inició una ofensiva general contra Gipuzkoa, con las fuerzas militares y batallones de requetés de los carlistas de Navarra.

La primera consecuencia de la ofensiva generalizada fue la pérdida de Irun, el 5 de septiembre. En consecuencia, las fuerzas organizadas en torno a la Junta de Defensa de Gipuzkoa se vieron obligadas a una incesante retirada. Tras duros combates, Donostia cayó el 13 de septiembre y eso trajo una evacuación general de la población, pues miles de personas iniciarían la huida hacia Bizkaia, por miedo a la represión de las tropas sublevadas. Muchos miles de esos pasaron por Deba usando la carretera de la costa o el tren.



Nafar erreketek, UHPren kamioi blindatu baten haurrean, milizianoek atzerakadan utzitakoa. (Euskal Memoria). / Requetés navarros ante un camión blindado de UHP abandonado por los milicianos en la retirada. (Euskal Memoria).

Militar frankistek, beste erasoaldi bat burutu zuten irailaren 17tik aurrera, Gipuzkoa osoa beraien esku erortzea ekarri zuena, honen buru, Solchaga probintziako gobernadore militar izendatu berria eta Mola jenerala ziren. Berau, bi ardatzen baitan antolatu zuten, zutabe batek kostaldeko

Los militares franquistas realizaron otra ofensiva a partir del 17 de septiembre que trajo consigo la caída de toda Gipuzkoa en sus manos; sus superiores eran Solchaga, gobernador militar de la provincia, y el general Mola. Lo organizaron en dos ejes: una columna tomaría el camino de la costa

orr.

bidea hartuko zuen Iruretagoyena koronelaren agindupean eta beste bat Gasteiztik abiatu eta Arlabaneko portutik erasotuz Deba bailaratik hedatuko zen.

Nahiz eta egun gutxitan herri gipuzkoar gehienak beraien kontrolpean izatea lortu zuten, milizianoen erresistentzia nabaria izan zen, muino eta herri gehienetan borrokak egon zirelarik. Horrela, Debaren kasuan erresistentziarako prestatu zen herria, nahiz eta argi ikusi ez zirela gai izango altxatuen tropa kopurua gelditzeko, beraien aurrerabidea oztopatu nahi zen. Herriko sarreretan lurrez beteriko zakuz eginiko barrikadak ezarri ziren eta horretaz gain Eibarko Orbea industrian prestatutako kamioi blindatuak ere iritsi ziren herri-<sup>223</sup>. Hauek funtsean, metalezko plakez babestutako kamioi batzuk ziren. Irailaren 22an, Latorre zutabeak, erasoaldia burutu zuen Zumaia-Itziar hartzeko helburuarekin, baina bertan, Bilbotik iritsi berri ziren anarkista talde bat prestatu zen hauei erantzuteko. Testigantzen arabera, goizeko ha-  
maikak aldetik arratsaldeko bostak arte luzatu zen borroka Itziarren<sup>224</sup>, zerbait ohoragarria, kontuan izaten badugu altxatuen zutabeak zuen potentzial militarra. Ikerketen arabera, 13 milizianoek galdu zuten bizitza borroka hauetan<sup>225</sup>.

bajo el mando del coronel Iruretagoyena y, la otra, salió de Gasteiz y atacando por el puerto de Arlaban, se extendería por el valle del Deba.

Aunque lograron tomar bajo control la mayoría de los pueblos de Gipuzkoa en pocos días, la resistencia de los milicianos fue notoria y hubo combates en la mayoría de colinas y pueblos. Así, en el caso de Deba, prepararon el pueblo para la resistencia porque, aunque veían claramente que no serían capaces de parar a las tropas sublevadas, querían obstaculizar su avance. En las entradas del pueblo pusieron barricadas hechas con sacos de tierra y, además, también llegaron camiones blindados preparados en la industria Orbea de Eibar<sup>223</sup>. Estos, al fin y al cabo no eran más que unos camiones protegidos con placas de metal. El 22 de septiembre, la columna Latorre realizó un ataque desde Zumaia con el objetivo de tomar Itziar, pero allí, se apostó un grupo de anarquistas recién llegados de Bilbo para responderles. Según los testimonios, el combate se alargó desde las once de la mañana a las cinco de la tarde en Itziar<sup>224</sup>. Algo honorable, teniendo en cuenta el potencial militar de la columna de los sublevados. Según las investigaciones, 13 milicianos perdieron la vida en esos combates<sup>225</sup>.



**CNTko miliziano batzuk errepide bateko blokeoan.** (Euskal Memoria). / **Milicianos de CNT en un bloqueo de carretera.** (Euskal Memoria).

Kontxi Unanue Egañak, honela gogoratzen du Itziariko borroka:

*Ez dut inoiz ahaztuko. Frankistak Itziarreko mendian zeuden eta gu baserrian. Hemen atzean beste tontor bat dago, Apakamendi izenekoa, hor milizianoak zeuden. Baserrian geunden denak ganbarara igo ginen eta*

Así recuerda Kontxi Unanue Egaña el combate de Itziar:

*No lo olvidaré nunca. Los franquistas en el monte de Itziar y nosotros en el caserío. Aquí detrás hay otra cima, llamada Apakamendi, ahí estaban los milicianos. Todos los que estábamos en el caserío subimos al desván y tapamos las*

<sup>223</sup> Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Berriketan aldizkaria, 2006ko iraila. / Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Revista Berriketan, septiembre de 2006.

<sup>224</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>225</sup> URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001. / URGOITIA BADIOLA, J.A. (dir.), Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular, Sendoa, Oiartzun, 2001.

*leihoak koltxoiekin estali genituen. Baserria bi indarren erdian zegoen eta etxearen aurreko aldea txikituta geratu zen. Miliziano bat areka batean geratu zen hilik<sup>226</sup>.*

Patxi Altzibar Osa, Mendata baserrian aurkitzen zen eta borrokaren testigu izan zen:

*Amaren baserrian, Mendata izenekoa, lana egin behar zen eta niri ganadua zaintzera bidaltzen zidaten. Horrelako batean, bi miliziano agertu ziren eta beraiekin joateko esan zidaten. Amonak dena ikusi eta etxean ezkutatzeke esan zidan.*

*Goiza zen eta gutxira, sukaldeko leihotik, mendian behera dozena bat inguru miliziano ikusi genituen, kaleko jantziekin eta fusil eta pistolekin. Txartudi aldetik berriz nazionalak agertu ziren, askoz gehiago ziren eta metralladoreak zeramatzen. Milizianoak, atzerakadan, menditik jaitsi, itxiturak pasa eta erreka kontran jarri ziren tiroka, gero trenbide aldera mugitu zirelarik, bertako tunelean ezkutatu. Nazionalak gure baserrira iritsi ziren eta aurreraxeago zegoen "Haitz-zubi" izeneko haitz luze eta handi batean jarri zuten trintxera. Ondorioz, tiroketa hasten zenean, gure baserrian jotzen zuten balek. Gu bertean baserrian ezkutatu egon ginen.*

*Tiro hotsa amaitu zenean, baserretik atera eta zaldiak eta otarrak hartu eta kaskiloak batzera joan behar izan ginen, bi otarra oso bete genituen. Arratsaldeko 19:00ak aldera, soldadu bat ekarri zuten baserrira, bala zauri batekin. Gela batean zuten, oso larri zegoen eta apaiza ekarri zuten konfesa zedin. Artatu eta bizirik atera zuten etxetik, zaldi baten gainean, baina esan ziguten Itsasburu baserrirako bidean hil zela gaztea<sup>227</sup>.*

*ventanas con los colchones. El caserío estaba en medio de las dos fuerzas y la fachada de la casa quedó destrozada. Un miliziano quedó muerto en una zanja<sup>226</sup>.*

Patxi Altzibar Osa se encontraba en el caserío Mendata y fue testigo de los combates:

*En el caserío de la madre, que se llamaba Mendata, había que trabajar y a mí me mandaban a cuidar el ganado. En una de esas, aparecieron dos milicianos y me dijeron que me fuera con ellos. La abuela lo vio todo y me dijo que me escondiera en casa.*

*Era a la mañana, y al poco, desde la ventana de la cocina vimos alrededor de una docena de milicianos bajando del monte, con ropa de calle y con fusiles y pistolas. Por la zona de Txartudi aparecieron los nacionales, eran muchos más y llevaban ametralladoras. Los milicianos, en su retirada, bajaron por el monte, pasaron las alambradas y se pusieron contra el río disparando; luego se movieron hacia las vías del tren, escondiéndose en el túnel. Los nacionales llegaron a nuestro caserío y, un poco más adelante, pusieron la trinchera en una peña larga y grande llamada Haitz-zubi. Por eso, cuando empezaba el tiroteo las balas pegaban contra nuestro caserío. Mientras, nosotros estuvimos escondidos en el caserío.*

*Cuando se terminó el ruido de los disparos salimos del caserío, cogimos los caballos y las cestas y tuvimos que ir a recoger los casquillos. Llenamos dos cestas enteras. Hacia las 7 de la tarde trajeron a un soldado al caserío, con una herida de bala. Lo tenían en una habitación, estaba muy grave y trajeron al cura para que se confesara. Lo atendieron y lo sacaron con vida de casa, sobre un caballo, pero nos dijeron que el joven murió de camino al caserío Itsasburu<sup>227</sup>.*



**Milizianoak postu bat defenditzen. (Euskal Memoria). / Milicianos defendiendo un puesto. (Euskal Memoria).**

<sup>226</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>227</sup> Id.

orr.

Zibilen kasuan, inguruko baserrietan eta trenbidearen tunelean ezkutatu ziren, hainbat etxetan bala markak geratu zirelarik. Itziartar emakume bat ere zauritu egin zen bala. Borroka amaitzearekin batera, altxatuek erori ziren leku berean utzi zituzten milizianoek jaso ez zituzten hildakoen gorpuak. Bertan egon ziren, herritarrek beraiek lurperatu behar izan zituzten arte lekuan bertan<sup>228</sup>. 2006an, Eusko Jaurlaritzak Memoria Historikoaren programaren baitan Euskadiko Hobien inguruko lanketan Itziarren aurkitzen ziren hiru fosa identifikatu zituen. Kokapena, alkatearen laguntza eta herritarren dautei esker lortu zen. Biren lekua ongi identifikatua dago, La Salveko behatokitik eta Arronamendi baserrietik gertu. Hirugarren baten gutxi gorabeherako kokapena ere ezagutzen da, baina ez da lortu zehazki identifikatzea, baso lan batzuen ondorioz terrenoan eman diren aldaketak direla eta<sup>229</sup>.

Horretaz gain, ELA sindikatuko kide batek ere bizia galdu zuen bertan, berau Itziarreko baserri batean zegoen, Itziarren defentsa komitearentzat lan egiten zuelarik. Altxatuen tropen aurrera egiteak ustekabeen harrapatu zuen eta ondorioz jasandako zauriengatik hil zen, Miguel Amusquibar izan daiteke pertsona hau<sup>230</sup>.

Los civiles se escondieron en los caseríos de alrededor y en el túnel del tren. En muchas casas quedaron marcas de bala. Una mujer de Itziar resultó herida de bala. Al terminar el combate, los sublevados dejaron en el mismo sitio donde cayeron los cadáveres que no recogieron los milicianos. Allí estuvieron, hasta que los tuvieron que enterrar los del pueblo en el mismo sitio<sup>228</sup>. En el 2006, la investigación sobre las fosas de Euskadi, dentro del programa sobre la Memoria Histórica del Gobierno Vasco, identificaron tres fosas que se encontraban en Itziar. Estos, con la ayuda del alcalde, fueron localizados a través de los datos contados por la gente del pueblo. Dos están bien localizados, cerca del observador de La Salve y del caserío Arronamendi. La localización del tercero se conoce más o menos. No se ha logrado identificar con exactitud por los cambios que se han producido en el terreno a raíz de unos trabajos forestales<sup>229</sup>.

Además, un miembro del sindicato ELA también perdió la vida ahí, cuando estaba trabajando en un caserío de Itziar para el comité de defensa. El avance de las tropas sublevadas lo pilló por sorpresa y murió debido a las heridas sufridas. Esa persona pudo ser Miguel Amusquibar<sup>230</sup>.



**Latorre komandantearen zutabea, Debara bidean.** (URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*). / Columna del comandante Latorre camino a Deba. (URGOITIA BADIOLA, J.A. (zuz.): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*).

Irailaren 23an azkenean, Latorre komandantearen gidaritzapean, altxatuen tropak eta erreketek Debara bertara sartu ziren, non milizianoek azken erresistentzia ekintza moduan ibaia zeharkatzen duen zubia eraisten saiatu ziren. Horretarako, herriko harrobietan lan egiten zutenek bertan zuloak egiten jardun zuten, ondoren lehergailuak bertan xertatzeko. Hala ere, tropa frankistek ezustean harrapatu

Finalmente, el 23 de septiembre, las tropas sublevadas y los requetés, bajo la dirección del comandante Latorre, entraron en Deba mismo. Los milicianos, como último acto de resistencia, intentarían volar el puente sobre el río. Para ello, los que trabajaban en las canteras del pueblo, hicieron agujeros en él para luego introducir los explosivos. Pero las tropas franquistas los cogieron por sorpresa y tuvieron que

<sup>228</sup> Id.

<sup>229</sup> AGIRREAZKUENAGA J. eta URQUIJO M. (Zuz.), *Senderos de la Memoria*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2015. / AGIRREAZKUENAGA, J. y URQUIJO, M. (Dir.): *Senderos de Memoria*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2015.

<sup>230</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

zituzten eta ihesari eman behar izan zioten, Tomas Mancisidor Odriozola eta Jose Ostolaza Egaña debarrak, ekintza honegatik epaituak izan ziren<sup>231</sup>.

Milizianoekin batera, ehunka herritarrek ere ihes egin behar izan zuten Debatik, Bizkaia aldera gehienak, datu batzuen arabera kopuru hau 547 pertsonakoa izango zelarik<sup>232</sup>.

Milizianoek ostean, ibaiaren beste aldeko mendietan frontea egonkortzea lortu zuten, bertan egun batzuek erresistentzia irmoz aurre egitea lortu zuten Latorre zutabeko militar altxatuei, borroka hauetan baja kopuru handi bat pairatuz. Irailaren 27an, milizianoen egoera errazte aldera, Itsas Armada Errepublikarreko *Jaime I*, *Cervantes* eta *Libertad* korazatuek, Debako zubia eraisteko intentzioarekin Deba herria bera bonbardatu zuten. Testiguen arabera, bomba gehienak ibaian erori ziren, ur zipriztin handiak sortuz baina beste batzuk herriko eraikinak kaltetu zituzten.

- Plaza Zaharreko Arteaga etxean eztanda egin gabeko lehergailu bat zegoen.
- “Churreria” deituriko kasinoaren 2. solairua lehertu zuten.
- Urquiriren hotela zulatu zuten.
- Zumardiko F. Calbetonen bustoa kaltetu<sup>233</sup>.
- Kamineroen etxea<sup>234</sup>.

escapar. Los debarras Tomás Mancisidor Odriozola y José Ostolaza Egaña fueron juzgados por esta acción<sup>231</sup>.

Junto a los milicianos, cientos de debarras tuvieron que huir de Deba, la mayoría hacia Bizkaia. Según ciertos datos, serían 547 personas<sup>232</sup>.

Después, los milicianos consiguieron estabilizar el frente en los montes del otro lado del río y consiguieron, por unos días, hacer frente firmemente a la columna de militares sublevados de Latorre. Pero sufrieron muchas bajas en esos combates. El 27 de septiembre, para aliviar un poco la situación de los milicianos, los acorazados de la armada republicana *Jaime I*, *Cervantes* y *Libertad*, con la intención de derribar el puente de Deba, bombardearon el mismo pueblo. Según los testigos la mayoría de las bombas cayeron al río, creando grandes salpicaduras de agua, pero otros dañaron algunos edificios del pueblo.

- En la casa Arteaga de Plaza Zaharra había un explosivo sin detonar.
- Volaron por los aires el 2º piso del casino conocido como “Churreria”.
- Agujerearon el hotel de Urquiri.
- Dañaron el busto de F. Calbetón en la alameda<sup>233</sup>.
- La casa de los camineros<sup>234</sup>.



**Jaime I** Itsas Armada Errepublikarreko itsasontzia (URGOITIA BADIOLA J.A. (zuz.), *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*). / Barco de la armada republicana **Jaime I**. (URGOITIA BADIOLA, J.A. (dir.): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*).

<sup>231</sup> AIRMN, 1283/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / DUA, signatura gabe. / AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 1283/37 / AMD, sin signatura.

<sup>232</sup> Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., “Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik”. Berriketan aldizkaria, 2006ko iraila. / Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., “Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik”. Revista Berriketan, septiembre de 2006.

<sup>233</sup> Id.

<sup>234</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

orr.

Bonbardaketa honek ez zituen bere emaitzak lortu, izan ere, Antonio Navak, Deban uda pasatzen zuen erreketete bat, abisua eman baitzuen altxatuen tropei eta Arriola baserriaren inguruetatik defendatu zuten zubia<sup>235</sup>. Errepublikarrek soilik pitzadura batzuk sortzea lortu zuten<sup>236</sup>. Hala ere, garaiko testigu batzuen arabera, hildako zibilak eragin zituen eraso honek, tartean, parrokoaren anaia, gizon nagusi bat<sup>237</sup>.

Bonbardaketa goizean eman zen, baina arratsaldean kanoiak Mutrikuko inguruetara zuzendu behar izan zituzten ontzi errerepublikarrek, inguratuta zeuden milizianoei laguntzeko asmoz. Honi esker, setioa haustea lortu zuten, Bizkaia alderako bidea eginez. Azken ekintza hauekin, gerra hotsak ez dira isilduko, ehunka baitziren herrian falta ziren pertsonak, baina frontea herritik aldentzearekin batera, beste fase batean murgilduko da berau. Autoritate frankisten antolaketa eta hauek burutuko duten errepresioa eta giza eskubideen urraketa izango zirelarik lehen urteetako ezaugarri nabarmena.

Ese bombardeo no consiguió su objetivo porque Antonio Nava, un requeté que pasaba el verano en Deba, avisó a las tropas sublevadas y estos defendieron el puente desde los alrededores del caserío Arriola<sup>235</sup>. Los republicanos solo lograron hacerle unas grietas<sup>236</sup>. De todos modos, según algunos testigos de la época, este ataque produjo muertes civiles, entre ellos, el del hermano del párroco, un hombre mayor<sup>237</sup>.

El bombardeo fue a la mañana, pero a la tarde, los buques republicanos tuvieron que dirigir sus cañones hacia Mutriku, para ayudar a los milicianos que estaban rodeados. Gracias a esa acción, lograron romper el sitio, e ir hacia Bizkaia. Con esas últimas acciones, no callaron los ruidos de guerra, pues eran cientos las personas que faltaban en el pueblo. Pero en cuanto el frente se alejó del pueblo, este se sumergirá en otra fase. La característica más destacada de esos primeros años fue la organización de las autoridades franquistas y la represión y la vulneración de los derechos humanos que realizarían.

### *Debaren defentsan bizia eman zuten pertsonak / Personas que dieron la vida por la defensa de Deba:*

#### **AMUSQUIBAR MENDIZABAL, MIGUEL**

Zarautzen bizi zen baina Bergarakoa zen jaiotzez (Roque eta Hipolitaren semea), 32 urte zituen 1936an<sup>238</sup>. EAJ alderdira afiliatua zegoen eta altxamendua eman zenean, Gipuzkoan mobilizatu ziren milizietako kide izan zen, Gerra Komisariotzaren agindupean<sup>239</sup>. Beranduago, ELA sindikatuaren milizietako kide bilakatu zen eta Deba herriaren defentsan borrokatzen ari zela zauritu egin zuten<sup>240</sup>. Bilbora eramán zuten jasandako zauriak artatu ahal izateko baina bertan hil zen hauen ondorioz. Derioko hilerrian lurperatu zuten, bere heriotzaren inskripzioa Bilboko bigarren zenbakiko erregistro zibilean aurki daiteke<sup>241</sup>.

Vivía en Zarautz pero había nacido en Bergara (hijo de Roque e Hipólita) y tenía 32 años (1936)<sup>238</sup>. Estaba afiliado al PNV, y cuando se dio el alzamiento fue miembro de las milicias que se movilizaron por Gipuzkoa, bajo las órdenes de la Comisaría de Guerra<sup>239</sup>. Más tarde, se hizo miembro de las milicias del sindicato ELA y fue herido combatiendo por la defensa del pueblo de Deba<sup>240</sup>. Fue llevado a Bilbo, para poder atenderle las heridas que había sufrido, pero al final murió a consecuencia de ellas. Fue enterrado en el cementerio de Derio, su muerte fue inscrita en el 2º registro civil de Bilbo<sup>241</sup>.

#### **ALVAREZ MARTINEZ, TOMAS**

Igean jaio zen, Logroñon, baina Arrigorriagan bizi zen, bere emaztearekin. Jornalaria zen eta 34 urte zituela, altxamenduari erantzuteko milizietan engaiatu zen, Bakunin batailoi anarkistan. Errepublikaren aldeko milizianoen eta tropa frankisten artean, Itziarren eman ziren borroketan hil zen, suzko armaz eginiko zaurien ondorioz<sup>242</sup>.

Nació en Igea (Logroño) pero vivía en Arrigorriaga, con su esposa. Era jornalero, y con 34 años se alistó en las milicias para hacer frente al alzamiento, en el batallón anarquista Bakunin. Murió en los combates que se dieron en Itziar entre los milicianos a favor de la República y las tropas franquistas, a consecuencia de las heridas sufridas por arma de fuego<sup>242</sup>.

#### **ARANDA MAGALLON, JOSE LUIS**

Sestaon jaio zen eta Bilbon bizi zen, eta jornalaria zen ofizioz, 24 urteko gaztea zelarik. Ezkongabea. Altxamenduari erantzuteko, Bizkaia mugimendu ezkertiarren baitan CNT sindikatuak eratu zituen batailoietako kidea zen. Altxatuen aurerakada geratzeko Itziarren eraturako erresistentzia gunean bizia eman zuen<sup>243</sup>.

Nació en Sestao y vivía en Bilbo. Era jornalero, tenía 24 años y estaba soltero. Era miembro de los batallones creados por el sindicato CNT en torno a los movimientos izquierdistas de Bizkaia. Dio la vida en el núcleo de resistencia formado en Itziar para detener el avance de los sublevados<sup>243</sup>.

<sup>235</sup> Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Berriketaren aldizkaria, 2006ko iraila. / "Duela 70 urte, irailaren 23an, gerratea" Revista Berriketaren, Deba, septiembre de 2006.

<sup>236</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>237</sup> Id.

<sup>238</sup> BAH. / AHPB.

<sup>239</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,3,A0102509. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 3, A0102509.

<sup>240</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

<sup>241</sup> BAH. / AHPB.

<sup>242</sup> Id.

<sup>243</sup> BAH. / AHPB.



CNTren propaganda kartela. (Euskal Memoria). /  
Cartel de propaganda de CNT. (Euskal Memoria).

### DOMINGUEZ ITURRALDE, BONIFACIO

CNT sindikatuko militantea, altxamendua eman zenean, Bizkaitik Gipuzkoara borrokan etorri ziren ehundaka milizianoetako bat izan zen, Gipuzkoako Komandantzia Militararen esanetan jarriz eta abuztuaren hasieran Largo Caballero batailoian engaiatuz<sup>244</sup>. Molaren erasoaldia eman zenean, Rusia batailoiko milizianoa zen eta Debaren defentsan burututako borroketan hil zen<sup>245</sup>.

Militante del sindicato CNT. Fue uno de los cientos de militantes que vinieron a combatir de Bizkaia a Gipuzkoa cuando se dio el alzamiento; una vez aquí, se puso a las órdenes de la Comandancia Militar de Gipuzkoa y, a comienzos de agosto, se enroló en el batallón Largo Caballero<sup>244</sup>. Cuando se dio el ataque de Mola, era miliciano del batallón Rusia. Murió en los combates por la defensa de Deba<sup>245</sup>.

<sup>244</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,D0056937/ sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,D0056936. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 16, D0056937 / sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 16, D0056936.

<sup>245</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

orr.

### GARCIA NUÑEZ, JULIAN

Barakaldon jaio zen eta bertan bizi zen 19 urteko gaztea zen Julian. Bertako industrietan peoi lanetan lan egiten zuen. Debaren defentsan parte hartu zuen eta borroka horrek eragin zizkion zaurien ondorioz hil zen 1936ko urriaren 5ean Bilbon<sup>246</sup>.

Nació y vivía en Barakaldo. Tenía 19 años y trabajaba como peón en la industria local. Participó en la defensa de Deba y debido a las heridas sufridas en esos combates, murió el 5 de octubre de 1936, en Bilbo<sup>246</sup>.

### MILLON MERINO, IGNACIO

Bilbon bizi zen, CNTko milizietako kide zen eta Itziarren defentsarako borroketan hil zen<sup>247</sup>. / Vivía en Bilbo, era miembro de las milicias de CNT y murió en los combates por la defensa de Itziar<sup>247</sup>.



**Bakunin batailoiko milizianoak Araban** (El Frente de Álava. I Parte. De la Sublevación a Vísperas de la Batalla de Villarreal). / **Milicianos del batallón Bakunin en Araba.** (El Frente de Álava. I Parte. De la Sublevación a Vísperas de la Batalla de Villarreal).

### MORAL GARATEA, JOAQUIN

Sestaon jaio eta bizi zen, 21 urte zituen eta galdaragilea zen. Bizkaian sortu eta Gipuzkoara borrokan etorritako miliziano zutabeetako kidea zen. Irailak 23an, Itziar defenditu zuten asko bezala, Bakunin batailoi anarkistakoa zen. Sestatoko Erregistro Zibilean inskribatu zuten bere heriotza ziurtagiria<sup>248</sup>.

Era un calderero de 21 años que nació y vivía en Sestao. Era uno de los milicianos que vino a combatir de Bizkaia a Gipuzkoa. Como muchos que defendieron Itziar, era del batallón anarquista Bakunin. Su certificado de defunción fue inscrito el 23 de septiembre en el registro civil de Sestao<sup>248</sup>.

### ORTEGA FERNANDEZ, MARCELINO

Bilbokoa zen, CNTren milizietako kidea eta Itziarreko borroketan hil zen<sup>249</sup>. Heriotza data, irailak 20 bezala inskribatua dago, baina ez zen borrokarik eman data horietan Deban beraz akats bat izango da eta irailak 23a izango da egiazko data.

Era de Bilbo, miembro de las milicias de CNT, y murió en los combates de Itziar<sup>249</sup>. Su fecha de muerte está inscrita el 20 de septiembre, pero en Deba no se dio ningún combate ese día, por lo tanto, será un error y la fecha verdadera será el 23 de septiembre.

<sup>246</sup> BAHF. / AHPB.

<sup>247</sup> GARCIA ELOSUA E., "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018.. / GARCÍA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

<sup>248</sup> BAHF. / AHPB.

<sup>249</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.



**ORTEGA GONZALEZ, MARCELINO**

Bilbokoa, 18 urte zituen eta jornalaria zen, hiriko industrietan lan egiten zuena<sup>250</sup>. Milicias popularesen jardun zuen eta Itziarren emaniko borrokan jasandako zaurien ondorioz hil zen. Bilboko Vista Alegreko hilerrian lurperatu zuten<sup>251</sup>.

Era de Bilbo, tenía 18 años y un jornalero que trabajaba en las industrias de la ciudad<sup>250</sup>. Estuvo en las milicias populares y murió a causa de las heridas sufridas en los combates de Itziar. Fue enterrado en el cementerio de Vista Alegre de Bilbo<sup>251</sup>.

**SANTOS MARTINEZ, JESUS**

Durangon jaio zen baina Eibarren bizi zen, garai hartan gunee industrial garrantzitsua izanik, bertako lantegietara lanera joana zen. 20 urte zituela, Euskal Milizietako kide bilakatu zen eta Gipuzkoan erasoaldi frankista geratu ahal izateko borroketan parte hartu zuen. Horrela, Debaren defentsaren inguruan eman ziren borroketan parte hartu zuen, bertan heriotza aurkitu zuen irailaren 23an<sup>252</sup>.

Nació en Durango, pero vivía en Eibar; como en aquella época era un importante centro industrial, había ido a vivir allí. Tenía 20 años cuando se convirtió en miembro de las Milicias Vascaas y participó en los combates para detener la ofensiva franquista en Gipuzkoa. De ese modo, participó en los combates por la defensa de Deba y en ellos encontró la muerte el 23 de septiembre<sup>252</sup>.

**SERRANO LEVIA, JUAN**

Bilbon jaio eta bizi zen, 19 urteko gaztea zen eta bertako industrietan jornalaria zen. CNTren batailoietan engaiatu zen, Gipuzkoara mugituz, bertan altxatuen erasoaldiari aurre egiteko. Itziarko Arronamendiren inguruetan eman ziren borroketan hil zen, irailak 23an<sup>253</sup>.

Nació y vivía en Bilbo. Era un joven de 19 años que trabajaba como jornalero en las industrias locales. Se alistó en los batallones de CNT, con los cuales se fue a Gipuzkoa a hacer frente a la ofensiva de los sublevados. Murió el 23 de septiembre, en los combates que se dieron en los alrededores del monte Arronamendi de Itziar<sup>253</sup>.

**VALLEJO RUIZ, AURELIO**

Arrigorriagan jaio eta bizi zen, bere familia Cabanillasetik (Nafarroa) etorria baitzen Bizkaiko industria eta meategietan lan egitera. 22 urte zituen eta jornalaria zen. Ideia anarkistak zituen eta Gerra Zibila hastean CNT sindikatuak antolatutako Bakunin batailoiko partaide egin zen. Bertan 2. Konpainian kokatu zuten bere anaiarekin batera. Bizkaitik Gipuzkoara joan ziren, indar frankistak geratzeko intentzioarekin. Horrela, Itziarren tropa frankisten erasoaldia geratzen saiatu ziren. Egunaren zati handi batean iraun zuten, baina borroka honetan hil zen Aurelio, bere anai Daniel bezala<sup>254</sup>.

Nació y vivía en Arrigorriaga, su familia había venido de Cabanillas a trabajar en las industrias y minas de Bizkaia. Tenía 22 años y era jornalero. Tenía ideas anarquistas y, cuando empezó la Guerra Civil, se enroló en el batallón Bakunin organizado por el sindicato CNT. Allí lo asignaron a la 2ª compañía como a su hermano. De Bizkaia fueron a Gipuzkoa, con la intención de contener a las fuerzas franquistas. Así, en Itziar intentaron contener la ofensiva de la tropa franquista. Aguantaron la mayor parte del día, pero Aurelio murió en ese combate, como su hermano Daniel<sup>254</sup>.

**VALLEJO RUIZ, DANIEL**

Cabanillasen (Nafarroa) jaio bazen ere, familiarekin Bizkaira lekualdatu zen, bertako industrian bizimodu hobea aurkitze aldera. Bertan, Arrigorriagan ezarri zen bizitzen, jornalari gisa ateratzen zuelarik aurrera bizitza. Ideia anarkistak izanik, CNTk antolatutako Bakunin batailoian izena eman zuen, Errepublikaren aldeko defentsan borrokatzeko. Honen barruan, 2. Konpainian txertatu zuten, bere anaiarekin batera. Gipuzkoako frankisten aurreratzea geratzeko nahiarekin, Itziarren itxaron eta beraien aurka borroka gogor bat burutu zuten, bertan hil zen Daniel, bere anai Aureliorekin batera<sup>255</sup>.

Aunque nació en Cabanillas, se trasladó a Bizkaia junto a la familia en busca de una mejor vida trabajando en la industria de allí. Se establecieron en Arrigorriaga y él trabajaba como jornalero. Como era de ideales anarquistas se alistó en el batallón Bakunin organizado por CNT, para combatir en defensa de la República. Ahí lo asignaron a la 2ª compañía, como a su hermano. Con la intención de contener el avance de los franquistas en Gipuzkoa, esperaron a estos en Itziar y combatieron duramente contra ellos; allí murió Daniel, como su hermano Aurelio<sup>255</sup>.

<sup>251</sup> BAHF. / AHPB.

<sup>252</sup> BAHF. / AHPB.

<sup>253</sup> EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

<sup>254</sup> BAHF. / AHPB.

<sup>255</sup> Id.



# Errepresioa Deban eta Debarren aurka Lehen Frankismoan

La represión en Deba y contra los  
debarras durante el Primer Franquismo

4



orr.

4.1. DEBA, 1936KO IRAILETIK AURRERA

1936ko irailaren 23tik aurrera, Debako herrian historiaren fase berri bat ireki zen, errepresioa, zapalkuntza eta beldurra izan zituenak oinarri bezala. Altxatuek antolatutako sistema politiko berriak, ofizialki 40 urte iraun zuen, non etengabeak izan ziren Giza Eskubideen zapalkuntzak, baina bereziki gordina izan zen bere lehen urteetan.

Altxamendu militarren aurka agertu ziren eta honek zakartzan ideia politiko, sozial, moral-erlijiosoekin bat egiten ez zuen pertsona oro jo-puntuari jarri zituen eta deuseztatzea izan zuen helburu Erregimen honek. Horrela, errepresio egitura oso bat hedatu zuen herriz herri, buruan zeukaten Estatu eredu Berri hori inposatu ahal izateko eta honen aurka agertzen zen erresistentzia edota norbanako oro zanpatzeko.


Errepresioa, ez zen gerraren ondorioz sorturiko ekintzak epaitzera mugatu, baizik eta gizartearen esparru guztietara zabaldu zen, norbanakoen ideiak, ekonomia, lanbidea, etxebizitza, bizilekua, kultura etabar luze bati eragiten ziolarik.

4.1. DEBA A PARTIR DE SEPTIEMBRE DE 1936

A partir del 23 de septiembre de 1936, se inició una nueva fase en la historia del pueblo de Deba, que tuvo como ejes principales la represión, la opresión y el miedo. En el nuevo sistema político organizado por los sublevados -oficialmente duró 40 años-, fueron incansables las conculcaciones de los Derechos Humanos, pero fue especialmente dura en los primeros años.

Puso en el punto de mira a toda persona que se mostrara contra el alzamiento militar o que no coincidiera con los ideales políticos, sociales, morales y religiosos que conllevaba. El objetivo del Régimen fue destruirlos. De ese modo, extendió una estructura de represión pueblo a pueblo, para poder imponer ese modelo de Estado nuevo que tenían en mente y para oprimir toda resistencia o persona que apareciera en contra de él.

La represión no se limitó a juzgar las acciones creadas a consecuencia de la guerra, se extendió a todos los ámbitos de la sociedad, y afectaban a las ideas, economía, oficio, vivienda, lugar de residencia, cultura, etc. de las personas.



Lehen udalbatza frankistaren bilera. (DUA). / Reunión de la primera corporación municipal. (AMD).

Kontua da, Frankismoak 40 urte luze iraun zituela eta bertan, altxamenduaren ostean emaniko Gerra Zibila eta honen baitan eraturako errepresioa zuzitzen edota ezkututzen saiatu zirela autoritate frankistek, hainbat artxibo ezabatuz edota desagerraraziz.

Debaren kasuan, Francoren heriotzaren ostean, eta garai horietan autoritate frankistak izan zirenen ekintzak ezkutatzeko aldera, herriko udal idazkari zenak, Gerra Zibileko eta frankismoaren lehen urteetako dokumentu ugari ezabarazi zituen, beraiei su emanaz. Ondorioz, debarren aurka eginitako errepresio eta giza eskubideen zapalkuntza ugariren datuak galdu ziren betirako, baita garaiko autoritateek hauen inguruan izan zuten erantzukizunaren ingurukoak ere.

### Autoritate frankisten antolaketa

Debako udalbatza legitimoa, hauteskundeetan hautatua izan zena, erbestera joan behar izan zuen altxatuek herria hartu zutenean, 1936ko irailaren 23an. Hauek ez zuten denbora asko itxaron herrian autoritate berriak ezartzeko. Horrela, herriko eskuindarrek eraturako udalbatza berria eratu zen, irailaren 26an, Gobernuaren delegatu Víctor Lacalle-ren gidaritzapean. Hauxe da eratu zen udalbatza frankista:

La cuestión es que el Franquismo duró 40 largos años, y que las autoridades franquistas intentaron justificar y ocultar la guerra civil ocurrida tras el alzamiento y la represión formada en torno a ella.

En el caso de Deba, tras la muerte de Franco, el que fuera secretario municipal del pueblo hizo desaparecer muchos documentos de la Guerra Civil y de los primeros años del Franquismo, dándoles fuego con la intención de ocultar las acciones de las autoridades franquistas durante esa época. En consecuencia, se perdieron para siempre muchos datos sobre la represión y vulneración de derechos humanos realizados contra debarras y, también, sobre la responsabilidad que tuvieron las autoridades de la época.

### La estructuración de las autoridades franquistas

La corporación municipal legítima de Deba, la que fue elegida en las elecciones, tuvo que exiliarse cuando los sublevados tomaron el pueblo el 23 de septiembre de 1936. Estos últimos no tardaron mucho tiempo en asignar a las nuevas autoridades del pueblo. De ese modo, el 26 de septiembre se formó la nueva corporación municipal formada por derechistas del pueblo, bajo el mando de Víctor Lacalle, delegado del gobierno. Esta es la corporación franquista que se formó:

**1936/09/26**

- Manuel Eizaguirre Amilibia (caserío Sagarbide), requeté del tercio San Ignacio. Realizar los trámites necesarios para ingresarlo en un hospital militar porque está enfermo por las consecuencias sufridas cuando fue soldado<sup>293</sup>.



Gerran hildako altxatuen tropei omenaldia Donostiako Zuloaga plazan. / Homenaje en la plaza Zuloaga de Donostia a los sublevados muertos en la guerra.

Era honetako gorespenekin, altxatuen armada, bertako kideak eta hauek armez lortutako Espainia Berria gorestea zuten helburu. Beraien aldekoen omenaldiekin, eraiki zuten Mugimendu Nazionalaren justifikazioa bilatzen zuten, Estatu Berriaren oinarriak ezarriz. Berau burutzen zuten bitartean, ehunka debar espetxean eta deserrian aurkitzen ziren, beraien eskubideak baztertuak izan zirelarik, bai udalaren eta baita herritar askoren aldetik.

### Gerraosteko ekonomia

Egoera ekonomikoaren isla argi bat udalak bere burua finantzatzeko emititzen zituen udal obligazioetan aurkitzen dugu. Hauek, Estatuko Alxorraren Bonuak bezala funtzionatzen zuten, hots, norbanakoek bono hauek erosten zituzten eta udalak aurrez finkatutako urte kopuruaren baitan obligazio hauen dirua itzultzen zuen interes batzuk ordaindiz. Debako udalaren ka-

Con alabanzas de este tipo querían elogiar el ejército de los sublevados, sus miembros y la Nueva España conseguida por las armas. Con los homenajes a sus partidarios querían justificar el Movimiento Nacional que habían construido, estableciendo las bases del Nuevo Estado. Mientras hacían eso, cientos de debarras estaban en la cárcel o el exilio, con sus derechos despreciados por el Ayuntamiento y, también, por mucha gente del pueblo.

### La economía de la posguerra

Un fiel reflejo de la situación económica la encontramos en las obligaciones municipales que emitía el Ayuntamiento para autofinanciarse. Funcionaban como los Bonos del Tesoro del Estado, esto es, personas individuales compraban estos bonos y el Ayuntamiento devolvía el dinero de esas obligaciones, pagando unos intereses, dentro de un plazo de años prefijado. En

<sup>292</sup> EAH, DUA, sig. 079, 193 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 193.

<sup>293</sup> EAH, DUA, sig. 079, 170 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 170.

orr.

suan, obligazio hauek 500 pezetakoak izaten ziren eta urtearen arabera ordaintzen zuten interesa ezberdina izaten zen. Autoritate frankistak udalera iristean, liburu hau gerran galdu egin zela argudiatu zuten eta obligazioen jabeen gaineko bilaketa abiarazi zuten, ondoren errepresioan hauek konfiskatzeko baliatu zutelarik informazio hau.

Frankismoaren lehen urteetan udalak arazo larriak izan zituen bere zorrarekin, hainbat alditan zorraren ordainketak atzeratu behar izan zituelarik tartean 1938an<sup>294</sup>. Puntu gorena, 1940an iritsi zen, non egoera jasanezina bilakatu zen eta udal obligazioak birnegoziatzeari ekin behar izan zion udalak. Horrela, interes finko bat ezarriko zien guztiei, obligazioek sortzen zituzten zergen kargu edukitzea egin beharko zen eta udal zorra 50 urtean amortizatzeke helburua finkatu zuten<sup>295</sup>.

Gerraosteko herriko ekonomiaren egoeraren isla eman lezakeen dokumentu bat aurkitzen da Debako artxiboan<sup>296</sup>. 1942an datatua dago, bertan herriaren erradiografia moduko bat eskatu zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak, herriko hainbat datu eskatuz. Horrela, herrian 3524 pertsona errol-datuta zeudela aipatzen da eta horietatik 3514 herrian bizi ziren. Bertan aipatzen da, 1981 pertsonentzat, nekazaritza zela jarduera ekonomiko nagusia, puntu hau bat datorrelarik gerra aurreko gizartearen egoerarekin<sup>297</sup>. Honek ez du esan nahi pertsona guzti hauek %100ean baserrietan produzitzen zutenarekin bizi zirenik, izan ere, garaiko baserriar gehienak herriko industria edota komertzioetan lan egiten zuten, jernalari edota lan ordu partzialekin. Kasu hauetan, ohikoa izaten zen goizetan fabriketan lan egin eta arratsaldeetan baserriko lurak lantzen jardutea.

Industriari dagokionez, honela zerrendatzen ditu herriko industria nagusiak:

- Careaga y Echeverria: 100 langile inguru zituen eta material kirurgikoa eta guraizeak egiten zituen.
- Ernesto Reiner; 80 langile. Zeluloidearekin tresneria eta tailer elektro-metalurgikoa.
- Hijos de J.J. Trecu okindegia: 25 langile, irin fabrika eta okindegia.
- Juan Jose Lete industria mekanikoa: 20 langile. Arotzeriarako broka eta erramintak.
- J.J. Muñoz Mendizabal: 10 langile. Larru ontzea.
- Jose Peña: 22 langile, ebanisteria lanak.
- Jose Maria Oyarzabal: 22 langile. Bere harrobitik harria eraztea.

Industria hauek, funtzionamendu normalean aurkitzen zirela aipatzen da, momentuko egoera ekonomikoa kontuan izanik, beraz, argi islatzen da herriko ekonomia ere krisi egoera batean aurkitzen zela. Kontua eramaten badugu, 1942an, Deban, industria nagusienek 279 lanpostu zuzen sortzen zituzten, beraz, ondoriozta genezake, herriko hainbat eta hainbatek, inguruko herrietara joan behar izaten zutela lan egitera<sup>298</sup>.

el caso del Ayuntamiento de Deba, esas obligaciones eran de 500 pesetas y el interés que pagaba era diferente según el año. Cuando las autoridades franquistas llegaron al Ayuntamiento argumentan que ese libro se perdió y empezaron la búsqueda de los dueños de las obligaciones y, después, durante la represión, utilizaron esa información para confiscarlos.

En los primeros años del franquismo el Ayuntamiento tuvo serios problemas con su deuda y, muchas veces, tuvo que aplazar los pagos de la misma; por ejemplo en 1938<sup>294</sup>. El punto álgido llegó en 1940. La situación se volvió insostenible y el Ayuntamiento comenzó a renegociar los bonos municipales, imponiéndoles a todos un interés fijo, el tenedor tendría que hacerse cargo de los impuestos que generaban las obligaciones y fijaba el objetivo de amortizar la deuda municipal en 50 años<sup>295</sup>.

En el archivo de Deba se encuentra un documento que puede ser fiel reflejo de la situación económica del pueblo<sup>296</sup>. Está fechado en 1942 y, en él, el gobernador civil de Gipuzkoa, pidiendo varios datos, quería una radiografía del pueblo. Se dice que estaban empadronadas 3524 personas, de ellas 3514 vivían allí. De ellas, para 1981 personas la principal actividad económica era la agricultura (En ese sentido, la situación social era similar a la anterior de la guerra)<sup>297</sup>. Eso no quiere decir que vivían al cien por cien con lo que producían en los caseríos. La mayoría de los baserriarros de la época trabajaban en la industria local o en los comercios, como jornaleros o con horario de trabajo parcial. Era habitual trabajar por las mañanas en la fábrica y por la tarde trabajar las tierras del caserío.

En cuanto a la industria, estas son las industrias que se mencionan:

- Careaga y Echeverria: Tenía alrededor de 100 empleados y producía material quirúrgico y tijeras.
- Ernesto Reiner; 80 empleados. Utillaje de celuloide y taller electrometalúrgico.
- Panadería de Hijos de J.J. Trecu: 25 empleados. Fábrica de harina y panadería.
- Industria mecánica Juan José Lete: 20 empleados. Brocas y herramientas para carpintería.
- J.J. Muñoz Mendizabal: 10 empleados. Curtido de pieles
- José Peña: 22 empleados. Trabajos de ebanistería.
- José María Oyarzabal: 22 empleados. Extracción de piedra de su cantera.

Se menciona que esas industrias estaban en funcionamiento normal, teniendo en cuenta la situación económica del momento, por lo tanto, se ve claramente que la economía del pueblo estaba en situación de crisis. Si hacemos cuentas, vemos que en 1942 las industrias más importantes de Deba creaban 279 puestos directos de trabajo, por lo tanto, suponemos que mucha gente del pueblo tenía que ir a trabajar a los pueblos de alrededor<sup>298</sup>.

<sup>294</sup> EAH, DUA, sig. 079, 110 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 110.

<sup>295</sup> EAH, DUA, sig. 079, 198 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 198.

<sup>296</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>297</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>298</sup> Id.

10-6-42

Gobierno Civil de Guipúzcoa  
SECRETARÍA GENERAL  
Negociado 49  
Núm. 49

Dirigase V. remitir a este Gobierno, en el plazo máximo de veinte días, un cuestionario comprensivo de los extremos siguientes referentes a ese Municipio:

Habitantes de hecho. 3.514  
Habitantes de derecho. 3.524  
Cultivos de ellos tienen significación de rurales por vivir preferentemente del cultivo de la tierra. 1.981  
Industrias más importantes, expresando sus nombres, número de obreros y principal producción.  
Régimen de producción en que se encuentran las mismas.  
Hijos ilustres de la localidad.  
Monumentos más importantes que existan en el término Municipal.  
Número de caídos en la pasada Revolución ..... y en el Movimiento.  
Elementos nacionales asesinados durante el mismo. 12  
Muertos en campaña: voluntarios ..... movilizados.  
Resultado de las últimas elecciones de la República.  
Tradicionalistas y derechas: votos obtenidos. 1.867  
Nacionalistas. 3.113  
Marxistas y republicanos de izquierda. 523  
Estado del presupuesto municipal: ingresos ..... gastos.  
Empréstitos: ..... intereses de éstos ..... plazo de amortización .....

Problemas pendientes de resolución.  
Culturales.  
Sanitarios.  
Urbanísticos.  
¿Están plantados ante los organismos competentes? Trámite en que se encuentre el expediente u otras que ya hayan comenzado a realizarse.  
¿Existe monumento a los caídos?  
En caso afirmativo: ¿En qué lugar está enclavado?  
En caso negativo: ¿está proyectado? .... Balance de las obras.  
Observaciones de carácter general.

Dios guarde a Vd. muchos años.  
San Sebastián, 13 de mayo de 1942  
EL GOBERNADOR CIVIL  
*[Firma]*

M. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de DEBA.

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE DEBA Año de 1942

CUESTIONARIO COMPRESIVO DE LOS EXTREMOS REFERENTES A ESTE MUNICIPIO SOLICITADOS EN CIRCULAR Nº 49 DE FECHA 13 DEL PASADO MES DE MAYO DEL CORRIENTE AÑO.

Habitantes de hecho: . . . . . 3.514  
Habitantes de derecho: . . . . . 3.524  
Los que tienen significación de rurales por vivir preferentemente del cultivo de la tierra: . . . . . 1.981  
Industrias más importantes con expresión de nombres, número de obreros y principal producción:  
Carcasa y Echeverría; número de obreros: 100; producción de la fábrica: material quirúrgico y tijeras.  
Ernesto Reiner; número de obreros: 80; producción de la fábrica: artículos de celuloide, cepillos de dientes, peines, brochas de afeitar etc y Talleres electro-metalúrgicos con accesorios de bicicletas.  
Panadería de Hijos de J.J. Treco; número de obreros: 25; producción de la fábrica; fábrica de harinas y elaboración del pan.  
Industrias mecánicas de Juan José Ieta; número de obreros: 20; producción de la fábrica; brocas y herramientas de carpintería.  
J.J. Muñoz Mendizabal; número de obreros: 10; producción de la fábrica; fábrica de cortidos de cueros.  
José Peña; número de obreros: 22; producción; taller de ebanistería, comedores, de estilo vasco.  
José María Oyarzabal; número de obreros: 15; producción; taller de carpintería, comedores de estilo vasco.  
Joaquín Aperribay; número de obreros: 20; producción; extracción de la piedra, bloques de piedra gris de la cantera de su propiedad.  
Régimen de producción en que se encuentran las mismas:  
Normal la mayoría, ellas, si bien con las naturales dificultades en orden al abastecimiento de materias primas para sus talleres.  
Hijos ilustres de la localidad: General Iersundi, y Araquistain.  
Monumentos existentes en la localidad: Ninguno.  
Número de caídos en la pasada Revolución: Ninguno  
id id el Movimiento: 12.  
Elementos nacionales asesinados durante el mismo: 12.  
Muertos en campaña: Voluntarios: Uno; Movilizados: 18.

Resultado de las últimas elecciones de la República.  
Tradicionalistas y derechas: votos obtenidos: 1.867.  
Nacionalistas: 3.113.  
Marxistas y republicanos de izquierda: 523.  
Estado del presupuesto municipal: Ingresos: 246.863,80; Gastos: 246.863,80 pesetas.  
Empréstitos: 897.000 pesetas; Intereses de éstos: 35.880 pesetas; Plazo de amortización: 40 años.  
Problemas pendientes de resolución.  
Culturales: Debido a la extensión de la villa y diseminación de los Caseríos, se siente la escasez de escuelas rurales para la debida instrucción de los niños.  
Sanitarios: Ninguno  
Urbanísticos: id  
Existe monumento a los caídos? : Una lapida en el claustro de la Iglesia con caracter provisional.  
Está proyectado? : Está en estudio la erección de un monumento.  
Observaciones de carácter general:  
Está proyectado desde hace años, la construcción de una Garsena del puerto de esta localidad, que reportaría inmensos beneficios a esta Villa; dicho proyecto está en el Ministerio de la Marina para su aprobación desde hace muchísimo tiempo.  
Hijos ilustres de la localidad: General Iersundi y Iñazaro de Araquistain. El primero Ex-Presidente del Consejo de Ministros y el segundo Capitán de fragata de la Marina Española, Caballero Gran Cruz del Mérito Naval y de la Legión de Honor, Héroe de Iritón, salvador de heroico de 350 naufragos de la fragata francesa "Europa".

Deba a 13 de Junio de 1942  
El Alcalde

Herriko egoeraren inguruko informea (DUA). / Informe sobre la situación del pueblo (AMD).

Orr.

Gerra garaian eta ondorengo urteetan, Debako herria eta bertako ekonomia krisi egoera sakon batean murgilduta aurkitzen zen, 1937ko aurrekontuetan, udalak eginko gastuen laurden bat, benefizentzia eta laguntzetan eman zen<sup>299</sup>. Ondorioz, udalak erronka bezala industria ezartzeko kanpaina burutu zuen eta zabalguneko lurra eskaini zituen industria ezartzeko, horrez gain diru laguntzak, zerga salbuespenak edota argi-indarra doan ematea denbora batez proposatuz. Horrekin, herriko langabezia arindu eta ekonomia sustatu nahi zuen<sup>300</sup>. Hala ere, 1942ko txostenean ikusten den bezala, ez zuen erantzun zabalik izan, gizartearen gehiengoak nekazaritzari esker bizirauten baitzuen.

Durante la guerra y los años posteriores, el pueblo de Deba y su economía estaban en situación de crisis. En los presupuestos de 1937 un cuarto de los gastos del Ayuntamiento iba destinada a beneficencia y subvenciones<sup>299</sup>. El Ayuntamiento realizó una campaña para implantar industria en el pueblo y, para ello, ofreció las tierras del ensanche. También propuso subvenciones, exenciones fiscales y ofrecer gratis la electricidad durante un tiempo. Con esa campaña quería bajar el desempleo local y promover la economía<sup>300</sup>. De todos modos, tal como se ve en el informe de 1942, no tuvo una respuesta amplia porque la mayoría de la sociedad sobrevivía gracias a la agricultura.

1777

SEXTA DIVISION URBANICA (1) PARQUE INTENDENCIA BURGOS (1)

**TRANSPORTES MILITARES POR FERROCARRIL**

DECLARACION de los efectos del material militar que, con arreglo a lo dispuesto en orden expedida por (2)  
 La Intendencia Gral. en 26 de Abril de 1937, deben ser transportados desde la estación de  
 (3) Burgos a la de (4) Deba (5) con carácter de urgencia.

Número de buños	CLASE del empaque o cartón	CONTENIDO	ROTULACION	PESO Kilogramos	OBSERVACIONES
15	fardos	2000 pantalones	Comandante Mi-		
10	id.	2000 camisas	liter para Se-		
2/c-1	id.	2000 calcinillos	neral Brigada		
1	id.	2000 cuellos	"VICIOSAS RESERVAS"		
8	id.	4000 p. calcetines			

Burgos 26 de Abril de 1937

El Encargado de efectos.

V.º B.º  
 El Jefe de Transportes militares.

Intervino:  
 El Comisario de Guerra.

Conforme: La empresa se encarga de la ejecución del Transporte  
 El Jefe de Estación.

(1) Establecimiento remitente.  
 (2) Autoridad que lo expidió.  
 (3) Estación de origen.  
 (4) Idem de término.  
 (5) Con o sin, según el caso.

Herrira agintaritzak militarren bidalitako horniduren nota (DUA). / Nota de los suministros enviados por la autoridad militar al pueblo. (AMD).


Hornidura aldetik ere gabeziak nabarmenak izan ziren. Estatu egitura Frankistak, autarkia eta errazionamendua izan zituen ezaugarri nagusi bezala. Hots, nazioartearekin ez zuen kanpo komertziorako gaitasunik eta askok blokeoa ezarria zioten, hortaz, Estatu mailan produzitzen zen hornigaiekin biziraun behar zuen. Horretarako, Errazionamendu kartillak sortu ziren, zeinetan oinarritzko produktuak erosteko muga ezartzen zen eta norbanako bakoitzak kopuru zehatz bat zuen. Deban 18 komertziotan erabili zitezkeen<sup>301</sup>.

En el ámbito de los suministros las carencias también eran reseñables. Las características principales de la estructura estatal franquista fueron la autarquía y el racionamiento. Esto es, no tenía capacidad para el comercio internacional y muchos le impusieron un bloqueo, por lo tanto, tenía que subsistir con los suministros que se producían a nivel estatal. Para ello, se crearon las cartillas de racionamiento. En ellas se establecía el límite para comprar los productos básicos, y cada individuo tenía establecido una cantidad concreta. En Deba se podían usar en 18 comercios<sup>301</sup>.

<sup>299</sup> EAH, DUA, sig. 079, 25 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 25.

<sup>300</sup> EAH, DUA, sig. 079, 203 folioa eta 252 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 203 y 252.

<sup>301</sup> EAH, DUA, sig. 079, 251 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 251.



Errazionamendu kupoiak. (Euskal Memoria). / Cupones de racionamiento. (Euskal Memoria).

Hornidura arazoak etengabeak izan ziren gerra garai eta osteko urteetan. Udal Mailan, Hornidura Batzordea eratu zuten, erronka honi aurre egiteko. Argiteria eta ur zerbitzuak ere gabeziak zituen, ez zelako eskariari erantzuteko gai eta mantenimendu faltagatik. Horrela, hainbat alditan herritarrei komertzioak irekitzea ukatu zien udalak, hornidura falta zela eta. Adibide bezala, Careaga-Echeverria industria, xaboi gabe aurkitzen zen bere langileentzat 1941eko ekainean<sup>302</sup>.

Gerra hasi eta berehala, lehen komisoetako bat egurra- ren komisia izan zen. Honek, eguneroko bizitzarako hain beharrezkoa zen hornigaia bermatzeko helburua zuen (janaria prestatu, berogailua, industriarako...). Ohikoa izaten zen garai honetan, ibai bazterretan eta hondartzetan pilatzen ziren egur eta enborrak jasotzen ibiltzea pertsonak, norberraren etxerako beharizanak asetze aldera. Gainera, Aniceto zinegotzia, 1939ko apirilak 15an, Nafarroara joan behar izan zela udalbatzaren aginduz, bertan bere funtzioa lastoa eta beste hainbat hornigaiengain inguruko kontratuak zinatzea izan zen.

Azpiegituren arloak, lehengo urteen gabezien jarraipen bat izan ziren, non Portuaren harira, urteetako tirabira mantenduz joan zen, Errepublikan, akordioa lotua zegoen Estatuko gobernuarekin, baina gerraren hasierarekin berau garatzeko aukera galdu zen. Udalak, komiso berri bat eratu zuen gaia lantzeko<sup>303</sup>. Horrez gain, errepideen kasuan, Itziar-Deba errepidea egiteko, udalak erregimen frankistak

La falta de suministros fue continua durante la guerra y en los años siguientes. A nivel municipal se creó una comisión de abastecimiento, para hacer frente a esa situación, a ese reto. Los servicios de electricidad y agua también tenían carencias. No eran capaces de responder a la demanda, y el mantenimiento era insuficiente. De ese modo, en varias ocasiones se denegó la apertura de comercios por falta de suministros. Por ejemplo, en junio de 1941 la industria Careaga-Echeverría se encontraba sin jabón para sus empleados<sup>302</sup>.

Una de las primeras comisiones que se creó al comenzar la guerra fue la comisión de la leña. El objetivo de esa comisión era garantizar ese suministro tan importante para la vida diaria (preparar la comida, calefacción, para la industria...). Era habitual en esa época que la gente anduviera recogiendo ramas y troncos que se apilaban en las orillas de los ríos y en las playas, para satisfacer las necesidades de cada casa. Otro ejemplo es que el concejal Aniceto se fue a Navarra, el 15 de abril de 1939, por orden de la corporación municipal, para firmar contratos para el abastecimiento de paja y otros suministros.

En el ámbito de las infraestructuras, la situación era una continuación de las carencias anteriores. Durante la República, tras varios años de disputa, se había logrado un acuerdo con el Gobierno central sobre el puerto, pero con el comienzo de la guerra se perdió la oportunidad para llevarlo a cabo. El Ayuntamiento creó una nueva comisión para

<sup>302</sup> EAH, DUA, sig. 079, 238 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 238.

<sup>303</sup> EAH, DUA, sig. 080, 183 folioa. / AHE, AMD, sig. 080, f. 183.

Orr.

preso zituen soldaduen batailoiez baliatu zen eraikuntza aurrera eramateko.

## Estraperloa

Ekonomiaren gaineko kontrolak, gerra esfortzura bideratua hasiera batean eta ostean sorturiko egitura autarkikoak, ekonomiaren gainbehera nabarmen bat ekarri zuen. Honek, hornidura eta elikagai eskasia sortu zuen, bai Deba eta baita Euskal Herriko edozein herritan. Erantzun bezala, herritarren artean oinarrizko produktuen merkatu beltz bat sortu zen, kontrabandoz herrira ekartzen zirenak. Honi, Estraperloa deitzen zitzaion eta Deban bi modutara egiten zen. Alde batetik, baseritarrek, Estatuaren aginduz administrazioari ematera behartuta zeuden produktuen zati bat gordetzen zuten, ondoren zati bat beraiantzat eta gaintzekoa kaletarrei saltzeko. Beste modua eta ugariena, inguruko herrietatik Debara elikagaiak ekartzea izan zen. Bi modu nagusi zeuden, bata kostaldetik ontzi bidez eta bestea trenbidez, trenean ezkutatuta.

trabajar el tema<sup>303</sup>. Por otro lado, para construir la carretera Itziar-Deba, el Ayuntamiento se sirvió de los presos que tenía el régimen franquista en los batallones de soldados.

## El estraperlo

El control sobre la economía, en principio dirigido al esfuerzo de guerra, y la estructura autárquica creada después, trajeron el declive de la economía. Esto trajo la carencia de suministros y alimentos, tanto a Deba, como a toda Euskal Herria. Como respuesta, los ciudadanos crearon un mercado negro de productos básicos que se traían por contrabando al pueblo. A eso se le llamaba estraperlo y en Deba se hacía de dos modos. Por un lado, los baserritarras guardaban una parte de los productos que por orden del Estado estaban obligados a dar a la Administración. Un parte era para ellos y la otra para vender a la gente que vivía en la calle. La otra forma, la más habitual, era traer alimentos de los pueblos de alrededor. Había dos formas de hacerlo, una por la costa en barco y, la otra, escondido en el tren.



Deba ibaiaren sarrera, Ondarbelz aldetik (Deva ayer 260 fotografías liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / Entrada al río Deba desde Ondarbelz (Del libro Deva ayer 260 fotografías, Biblioteca del Koldo Mitxelena, DFG).

Honela kontatzen du estraperloaren funtzionamendua Angel Garatek: *“Inaxio nire anaia ibiltzen zen zubia kontrolatzen guardia zibilak ea zetozen esateko. Mutriku aldera Ondarbelz izeneko hondartza zegoen. Han kontrabandoa ematen zuten edo estraperloa eta kontrolatu egiten zituen. Braulio nafarra nirekin pilotara etortzen zena zen kontrabandista. Horiek kontrabandistak ziren. Nire anaiak zubia zaintzen zuen*

Así nos cuenta Ángel Garate el funcionamiento del estraperlo: *“Mi hermano Inaxio andaba controlando el puente para decir si venía la Guardia Civil. Hacia Mutriku hay una playa llamada Ondarbelz. Allí se hacía contrabando o estraperlo y lo controlaban. El contrabandista era el navarro Braulio, el que venía conmigo a pelota. Esos eran contrabandistas. Mi hermano vigilaba el puente y si veía guardias*



eta guardia zibilak ikusten bazituen linternarekin abisatzen zuen. Orduan droga ez zen. Ez dakit zer zen, baino zerbait ekartzen zutela ziur nago<sup>304</sup>.

Trenaren kasuan, Asuncion Alcibarrek honela gogoratzen du: *Olio hilabete baterako. Azukrea hilabete baterako. Arroza, garbantzuak, dilistak... Horrelako gauzak. Olio litro bat ez da hilabete baterako iristen. Eta zer egiten genuen? Deban bi mandatari zeuden. Bat Buru-zurinekoa esaten zioena, Tomasa. Eta gero Aitorrenekoa, beste bat. Gizonezkoa zen hura. Baina gizona baino andrea gehiago ibiltzen zen, Martzelina izena zuen. Bilbora joaten zen Tomasa. Eta bestea Donostia aldera. Eta haiei enkargatu ahal zenien ekartzeko generoa. Razionamenduan iristen ez zitzaizkigun gauzak izaten ziren. Kostatzen zen ekartzea. Deban tren zegoen eta aulki azpian ekartzen zuten<sup>305</sup>.*

*civiles avisaba con la linterna. Entonces no era droga. No sé qué era, pero estoy seguro de que traían algo*<sup>304</sup>.

Así recordaba Asunción Alcibar el estraperlo en tren: *“Aceite para un mes. Azúcar para un mes. Arroz, garbanzos, lentejas... cosas así. Un litro de aceite no llega para un mes. ¿Y qué hacíamos? En Deba había dos recaudistas. Una era Tomasa, la que la llamaban “la de Buru-zuri”, Y otro “el de Aitor”. Ese era un hombre. Pero más que el hombre andaba la mujer, que se llamaba Martzelina. Tomasa solía ir a Bilbo. Y el otro a Donostia. Y podías encargarles a ellos que trajeran la mercancía. Solían ser cosas que no nos llegaban con el racionamiento. Costaba mucho traer. En Deba había tren y lo traían debajo del asiento*<sup>305</sup>.



Itziar, landutako lursailak lehen planoan. (Kutxateka). / Itziar; en primer plano, terrenos cultivados. (Kutxateka).

Haragiaren kasuan ere gabeziak ugariak izan ziren eta udalak arautegi orokor bat garatu zuen honi aurre egin nahian. 1939an, animaliak hiltegitik kanpo hiltzea debekatu zuen udalak. Horrela, bi helburu lortzen zituen, garrantzitsuena, herriarentzako beharrezkoa zen haragi hornidura bermatzea eta bestetik, udalak zerga bidez diru sarrerak ugaritzea. Kontrabandoaren sarrerarekin batera, komertzioek saltzen zituzten produktuak auzuntzeari ekin zioten, adibidez esnari nata kenduz edota ura gehituz, horrela gehiago saltzeko. Hori dela eta komertzioetako produktuen gaineko kontrola ere ugaritu egin zen, olio, esnea edota ozpinaren kalitatearen gaineko kontrolak periodikoki burutzen zirelarik, beraien auzuntzea saiheste aldera.

La carencia de carne era muy patente también, y el Ayuntamiento desarrolló una normativa general para hacerle frente. En 1939, el Ayuntamiento prohibió matar animales fuera del matadero. Así, conseguía dos objetivos. El más importante, garantizar el suministro de carne que tan importante era para el pueblo y, por otro, que los ingresos del Ayuntamiento crecieran gracias a los impuestos. Junto con el contrabando, los comercios empezaron a adulterar sus productos; por ejemplo, quitando la nata a la leche o añadiéndole agua, para poder vender más cantidad. Por esa razón, creció el control sobre los productos de los comercios. Se realizaban controles periódicos sobre la calidad del aceite, la leche o el vinagre para evitar su adulteración.

<sup>304</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>305</sup> Id.

orr.

Oiloen kasuan, udalak, beraien gaineko zentsu bat eramatea ikertzen egon zen, Gobernadorearen aginduz, hainbat komertziori hauek gordetzeagatik isunak ipini ostean<sup>306</sup>. Kasu nabariena agian, dokumentazio zehatza dagoelako, herriko baba produkzioarena izan zen, 1942ko urtarrilaren 15an, Gariaren Zerbitzu Nazionalak, jakinarazpen bat igorri zion Debako Udalari, non 1434 kilo babarrun deklaratu ziren herrian 1941ean eta autoritate frankisten aburuz, 5500 kiloko produkzioa egon beharko litzatekeen. Udalak, hau ikertzeko, konfiantzazko bi baserritarrekin herriko produkzioa aztertzea erabaki zuen<sup>307</sup>.

En el caso de las gallinas, tras la multa impuesta por orden del gobernador a varios comercios por haberlas guardado, el Ayuntamiento estuvo estudiando realizar un censo sobre ellas<sup>306</sup>. Tal vez, el caso más claro sea el de la producción local de alubias porque hay documentación concreta sobre ello. El 15 de enero de 1942, el Servicio Nacional del Trigo envió una notificación al Ayuntamiento de Deba, diciendo que en 1941 se declararon en el pueblo 1434 kilos de alubias y, según las autoridades franquistas, la producción tenía que haber sido de 5500 kilos. El Ayuntamiento, decidió analizar la producción del pueblo con dos baserritarras de confianza<sup>307</sup>.



**Baserritarrak garia jotzen.**  
(Gure Gipuzkoa). /  
**Baserritarras trillando trigo.**  
(Gure Gipuzkoa).

Gariaren gaineko kontrola ere nabaria zen, kasu hone-tan baserritarrak behartuta zeuden beraien produkzioaren %80a udalari ematera. Baserrietan ez zen orokorrean berau betetzen eta baserri guztiek gordetzen zuten gariaren zati handi bat beraiantzako edota merkatu beltzean saltzeko. Baserri batzuetan 6 gari zaku entregatu eta 10 etxean gordetzen ziren<sup>308</sup>.

### Memoria ezabatu eta gizarte berria eraikitzea

Herrira iritsi eta altxatuen lehen ekintzetako bat iruditegi errepublikar edo abertzalea izan zitekeen gauza oro ezabatzea izan zen. Horrela, lehen egunean, udaletxera sartu eta bertan aurkitzen ziren bandera, ikurrin, argazki etab. plazara atera eta su eman zizkien. Zentro Errepublikanoaren kasuan, bertako material guztia atera eta hondartzan erre zuten<sup>309</sup>.

El control sobre el trigo también era patente, pues los baserritarras estaban obligados a dar el 80 % de la producción al Ayuntamiento. En los caseríos normalmente no se solía cumplir y todos los baserritarras guardaban una parte importante del trigo para ellos o para vender en el mercado negro. En algunos caseríos entregaban 6 sacos de harina y guardaban 10 en casa<sup>308</sup>.

### Borrar la memoria y construir una nueva sociedad

Una de las primeras acciones que llevaron a cabo los sublevados al llegar a Deba fue eliminar todo elemento que fuera del imaginario republicano o abertzale. De ese modo, el primer día entraron al ayuntamiento y quitaron las banderas, ikurriña, fotografías, etc. y las quemaron en la plaza. Hicieron lo mismo en el Centro Republicano donde sacaron todo el material y lo quemaron en la playa<sup>309</sup>.

<sup>306</sup> EAH, DUA, sig. 079, 152 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 152.

<sup>307</sup> EAH, DUA, sig. 079, 280 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 280.

<sup>308</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>309</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.



Altxatuak liburuak erretzen Tolosan, 1936ko abuztua. (Euskal Memoria). / Sublevados quemando libros en Tolosa, en agosto de 1936. (Euskal Memoria).

Ondoren, iruditegi hau altxatuenagatik aldatu zuten, horrela, hainbat irudi erlijioso udal plenora itzularazteko erabakiak hartu ziren eta frankisten bandera eta apaingarri berriak erosteko aginduak eman ziren besteak beste<sup>310</sup>. Berdina egin zen herriko eraikin publiko guztietan, altxatuen aldeko ikurrak eta bandera berriak ezarri zirelarik eskola guztietan.

Altamendua eman eta lehen urteurrenean, ekitaldi publiko eta politiko bat burutu zuten, Mugimendu Nazionalarekiko herriak zuen atxikimendua erakutsi nahian. Horrela, ekitaldi ugari antolatu zituzten egun honetarako, Errepublikara garaiaren fusilatu edota espetxean hildakoen omenezko marmolezko hilarri bat ipini zuten udal plenen aretoan<sup>311</sup>. Horrez gain, kale izendegiaren aldaketa eraman zuten aurrera. Herriko iruditegiaren aldaketa nabarmenen izan zen hau eta solemnitare osoz beteriko ekitaldi bat burutzea erabakitzen zuten, plaka berriak instalatzeko.

- Plaza zaharrari Generalísimo izena ezarri
- Cordelería kalea, hasiera batean Jose Antonio Primo de Rivera, falangearen proposamenez, ondoren 23 de Septiembre.
- "Churreriako" iturriko plazari, Navarra plaza.

Después, ese imaginario fue sustituido por el de los sublevados. Se decidió devolver al salón de plenos varias figuras religiosas y se dio la orden de comprar, entre otras cosas, nuevas banderas y adornos franquistas<sup>310</sup>. Hicieron lo mismo en todos los edificios públicos del pueblo, poniendo símbolos a favor del alzamiento y nuevas banderas en todas las escuelas.

En el primer aniversario del alzamiento se hizo un acto público y político, para demostrar la adhesión del pueblo al Movimiento Nacional. Organizaron varios actos para ese día y, en el salón de plenos del ayuntamiento, colocaron una lápida de mármol en honor a los fusilados o muertos en la cárcel durante la República<sup>311</sup>. Por otro lado, cambiaron el nomenclátor callejero. Este cambio era el punto más importante dentro del cambio del imaginario local, y la corporación municipal decidió realizarlo a raíz del primer aniversario del alzamiento franquista. Realizaron un acto muy solemne para colocar las nuevas placas.

- Cambiaron "Plaza Zarra" por "Generalísimo"
- La calle "Cordelería" iba a ser cambiado por "José Antonio Primo de Rivera", a proposición de la Falange, pero al final se cambió por el de "23 de septiembre".
- A la plaza de la fuente de la "Churrería", "Plaza Navarra".

<sup>310</sup> EAH, DUA, sig. 079, 16 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 16.

<sup>311</sup> EAH, DUA, sig. 079, 48 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 48.

orr.

Itziarren bi aldaketa burutu ziren kale izendegian, lehena, herriko plazari Jose Maria Alcibar izena ezarri zioten, anarkistek exekutatu zuten parroko frankistaren omenez. Bigarrena, plazara iristen den kalea izan zen, Generalísimo izena jarri zioten honi<sup>312</sup>. Denborara, irailak 23 izena ezarri zioten beste kale bati ere Itziarren. Debara itzuliz, Espainia plaza ere izendatu zen denborara<sup>313</sup>.

Eguneko beste ekitaldi nagusia honakoa izan zen, altxatuen esku preso egon ziren pertsona guztiek, meza nagusiaren ostean, eskerrak eman behar izan zien, herriko autoritateei eta altxatuen gobernuari. Hitzez hitz udalak horrela definitzen zuen, “preso egon diren Debarrak eta herrian aurkitzen direnak, uztailak 18an, festa nazionala dela eta egingo den mezaren ostean, eskerrak eman beharko dituzte denen aurrean beraien askatasunagatik”<sup>314</sup>.

Horrela, Mugimendu Nazionalaren gorespena bilatu zuen behin eta berriz udalak, altxatuen tropek garaipen militar bat burutzen zuten bakoitzean, eskertza telegramak eta ekitaldiak burutzen zituztelarik. Horren adibide da, irailaren 23a ospatzeko batzorde bat eratu zela, honen helburua, urtero, altxatuen tropak herria konkistatu zuten eguna gorestea eta honen baitan ekitaldiak antolatzea izango zen. Bartzelona altxatuek armaz hartu zutenean berriz, bi zezensuzko askatu ziren herrian ospakizun gisa<sup>315</sup>. Gerra amaiera ospatzeko berriz, 13 izan ziren herriko kaleetan askatu ziren zezensuzkoak<sup>316</sup>.

Errepublikanoa edo abertzalea izan zitekeen irudi orren aurka altxatuek obsesio izugarria erakutsi zuten, horrela, ikurrinak etxeetan zituzten pertsonak, hauek hautsi edota suntsitzearen aldeko hautua egin zuten, jasan zezaketen errepresioaren beldur, beste batzuek teilatueta ezkutatu zituzten ikurrinak edota liburuak<sup>317</sup>. Beldur horren isla argia da, Narciso Odriozolari gazteari egin ziotena, herriko plazan aurkitzen zen frankistek ehizatu zuten izurde bat ikusten eta soldaduek soinean zeraman kamiseta gorria zela ikusi zutenean, berau kentzera behartu eta su eman zioten kamisetari plazan bertan<sup>318</sup>.

Herritarrei, isun ugari jarri zizkieten, autoritate frankistek abertzale edota errepublikar bezala identifikatzen zituzten irudiak erabili edota mezuak zabaltzearen, debekatua baitzegoen. Horrela, bi debar behintzat, atxilotuak, espetxeratuak eta epaituak izan ziren “Gora Euskadi Askatuta ohiukatzeagatik, Luis Amuchastegui Echave eta Jesus Arana Gorostegui. Petra Gorostola Saleguiren kasuan, isun bat ipini zioten Sabino Aranaren irudi bat izateagatik okindegian”<sup>319</sup>.

Komertzioak irekitzean gainera, udalak irizpide zorrotzak ezartzen zituen beraien funtzionamenduaren inguruan, honen adibide bezala, Visitacion Urquiri andreak taberna bat irekitzeko eskaera burutu zuenean, udalak onartzearekin

En Itziar se hicieron dos cambios en el nomenclátor callejero: a la plaza del pueblo le pusieron el nombre de “José María Alcibar”, en honor al párroco franquista ejecutado por los anarquistas. El segundo, a la calle que llega a la plaza le pusieron el nombre de “Generalísimo”<sup>312</sup>. Más tarde, a otra calle de Itziar le pusieron el nombre de “23 de septiembre”. Volviendo a Deba, con el tiempo también se le asignó el nombre de “Plaza de España”<sup>313</sup>.

Otro acto principal de ese día fue que todas las personas que fueron prisioneras de los sublevados, tras la misa mayor, tuvieron que dar las gracias a las autoridades locales y al gobierno de los sublevados. El ayuntamiento lo definía así: “los debarras que han estado encarcelados y están en el pueblo, el 18 de julio, tras la misa mayor que se celebrará por la fiesta nacional, tendrán que dar las gracias ante todos por su libertad”<sup>314</sup>.

De ese modo, el Ayuntamiento buscó una y otra vez elogios para el Movimiento Nacional, cada vez que los sublevados conseguían una victoria militar, enviando agradecimientos por telegrama y realizando actos. Un ejemplo de ello es que se creó una comisión para celebrar el 23 de septiembre. Su objetivo era elogiar, todos los años, el día en que las tropas sublevadas conquistaron el pueblo y organizar actos para ello. Cuando los sublevados tomaron por las armas Barcelona, soltaron dos toros de fuego en el pueblo como celebración<sup>315</sup>. Para celebrar el fin de la guerra se soltaron 13 toros de fuego por las calles<sup>316</sup>.

Los sublevados mostraron una terrible obsesión contra toda imagen que pudiera ser republicana o abertzale. Así, las personas que tenían ikurriñas en casa decidieron romperlas o destruirlas por miedo a la represión que podrían sufrir. Otros escondieron la ikurriña o los libros en los tejados<sup>317</sup>. Un reflejo de esa obsesión es lo que le hicieron al joven Narciso Odriozola. Estaba en la plaza del pueblo viendo un delfín que habían cazado los franquistas cuando estos se dieron cuenta de que la camisa que llevaba puesta era roja, le obligaron a quitársela y le dieron fuego allí mismo<sup>318</sup>.

Impusieron muchas multas por llevar imágenes o difundir mensajes que las autoridades franquistas identificaban como abertzales o republicanas. De ese modo, por lo menos dos debarras fueron detenidos, encarcelados y juzgados por gritar “Gora Euskadi Askatuta”: Luis Amuchastegui Echave y Jesús Arana Gorostegui. A Petra Gorostola Salegui le impusieron una multa por tener una imagen de Sabino Arana en la panadería<sup>319</sup>.

A la hora de abrir nuevos comercios el Ayuntamiento imponía estrictos criterios sobre su funcionamiento. Un ejemplo de ello es el caso de Visitación Urquiri. Cuando Visitación hizo una petición para la apertura de un bar, el Ayuntamiento a la vez que aceptó la petición le puso esta condición: “hay que evitar cualquier acto que se pueda interpretar como contrario

<sup>312</sup> Id.<sup>313</sup> EAH, DUA, sig. 079, 191 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 191.<sup>314</sup> EAH, DUA, sig. 079, 47 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 47.<sup>315</sup> EAH, DUA, sig. 079, 130 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 130.<sup>316</sup> EAH, DUA, sig. 079, 137 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 137.<sup>317</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.<sup>318</sup> Id.<sup>319</sup> Id.

batera honako baldintza ipini zion “autoritateen aurkakoa bezala interpretatu daitekeen ekintza oro sahiestu behar da, politikaren gaineko edo alderdikoi eta delituzkoak bezala interpretatu daitezkeen korroak, bilkurak, elkarrizketak, marmarrak... Zigor gorena ezarriko baitzaio, lokala momentuan ixtea”<sup>320</sup>.

Zapalkuntza kulturala ere ezin dugu albo batera utzi, euskara eta euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia debekatua baitzegoen. Eskoletan umeei beraien artean euskaraz egitea debekatu zieten eta irakasleek zigor gogorrak ezartzen zizkieten araua betetzen ez zuten haur eta gazteei. Honek, ataka larriaren jartzen zituen Debako ume asko, etxean eta familian euskaraz hitz egiten ikasi baitzuten eta eskolara iristean ez baitziren gai izaten gaztelerazko irakasgaiak jarraitzeko. Kanean eta komertzioetan ere, euskara jazarria zegoen eta eskuindar eta karlistek, euskaraz hitz egiten ikusiz gero, “Hablad en cristiano” agintzen zieten<sup>321</sup>. Herriko idazle zenaren Robustiana “Tene” Mugicaren kasuan, bere ahizpak, etxean zituen euskarazko obra guztiak suntsitu zituen jasan zezaketen errepresioaren beldur<sup>322</sup>.

Pertsonen gaineko kontrola ere areagotu egin zen aisialdi eta jai esparruetan, hala nola, moral judeo-kristau zurrun bat ezarri zuten gizarteko arlo guztiak arautu nahian. Jarrera “lotsagabeak” bezala definitzen ziren egoerak salatuak ziren eta ekonomikoki zigortuak.

Egoera hauek salatzeaz, askotan apaizak arduratzen ziren, beraien pulpituetatik sermoi bidez edota zuzenean udaltzainei ohartaraziz. Baina beste batzuetan pertsona partikularrak ziren, horietako batek 1940ko martxoak 31n kexa bat aurkeztuko du, tabernetan ematen ziren dantzak arriskutsuak zirela esanez, “autoritateek hauen gaineko kontrola ezarri beharko lukete, alkoholarekin nahastuta arriskutsua baita eta gainera bikoteak bakarrik joaten baitira etxera”<sup>323</sup>.

Beste kasu batean, bi pertsonen isuna ezarri zieten, jaietako kalejira batean beraien etxebizitzatik ura botatzeagatik. Hau, gaur egun ere ohikoa den jarrera bat da herri askotan, baina hauek udal agentariak ziprztintzeko zorte txarra izan zuten eta autoritateekiko errespetu falta bezala ikusi zuten<sup>324</sup>.

Autoritate berrien aldetik, Errepublikarekin zerikusia zuen ororen aurkako errepresioa zabaldu zuten, datozen kapituluetan landuko direnak, baina asko, humiliazio ekintzak ere izan ziren, non garailak galtzailea zapaldu nahi izan zuen bere bizitzako arlo guztietan.

a las autoridades, esto es, corros, reuniones, conversaciones, rumores, etc. que se puedan interpretar como políticos, partidistas o delictivos, imponiéndole la pena máxima que conllevaría el cierre inmediato del local”<sup>320</sup>.

Tampoco podemos dejar a un lado la opresión cultural. Estaba prohibido todo lo que tuviera algo que ver con el euskera y la cultura vasca. Prohibieron que los niños en las escuelas hablaran en euskera entre ellos, y los maestros les ponían duros castigos a los niños y jóvenes que no cumplían la norma. Eso puso en un grave aprieto a muchos niños de Deba porque en casa y en familia habían aprendido a hablar en euskera y, cuando llegaban a la escuela, no eran capaces de seguir las materias en español. En la calle y los comercios el euskera también estaba perseguido. Los derechistas y los carlistas si escuchaban a alguien hablar en euskera, les ordenaban “Hablad en cristiano”<sup>321</sup>. La hermana de la escritora Robustiana Tene Mugica destruyó todas sus obras por miedo a la represión que pudieran sufrir<sup>322</sup>.

En los ámbitos festivos y de ocio también aumentó el control sobre las personas. Así, impusieron una rígida moral judeocristiana que buscaba regular todos los ámbitos de la sociedad. Eran denunciadas las situaciones que consideraban “irreverentes” y eran castigadas económicamente.

Muchas veces eran los sacerdotes los que se encargaban de denunciar esas situaciones, dando sermones desde el púlpito o avisando directamente al alguacil. Pero otras veces las hacían personas particulares. Una de ellas presentó una queja el 31 de marzo de 1940, diciendo que los bailes que se realizaban en los bares eran peligrosos: “las autoridades deberían controlar esas situaciones porque es peligroso mezclado con el alcohol y, además, las parejas van solas a casa”<sup>323</sup>.

En otro caso, sancionaron a dos personas porque en un pasacalle de las fiestas echaron agua desde sus casas. Esa es una costumbre habitual hoy en día en muchos pueblos, pero éstos tuvieron la mala suerte de salpicar a las autoridades municipales y estos lo vieron como falta de respeto a la autoridad<sup>324</sup>.

Por parte de las nuevas autoridades extendieron la represión contra todo aquello que tuviera algo que ver con la República. Los trataremos en los capítulos siguientes, pero muchos fueron actos de humillación donde el vencedor quiso oprimir al perdedor en todos los ámbitos de su vida.

<sup>320</sup> EAH, DUA, sig. 079, 155 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 155.

<sup>321</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>322</sup> Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mugica-egana-robustiana/ar-82601/-tik-lortua>. / Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia, de la página: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mugica-egana-robustiana/ar-82601/>.

<sup>323</sup> EAH, DUA, sig. 079, 154 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 154.

<sup>324</sup> EAH, DUA, sig. 079, 168 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 168.

Orr.

## 4.2. ENPLEGATU PUBLIKOAK BOTATZEA, GARBIKETA-PROZESUA

Garbiketa-prozesuari buruz hitz egiten dugunean, langile publikoen aurkako errepresioaren inguruan hitz egiten dugu. Hau bi ideia garrantzitsuren baitan garatu zuten autoritate frankistek, alde batetik, Errepublikan eta gerra garaian udaleko langileek izan zuten jarrera zigortzea eta bestetik, ideologia frankistarekin eta honen ideia nazionalarekin bat ez zetozen langile publiko, funtzionario eta antzekoak bere postuetatik kanporatuak izatea.

Errepresio mota hau, debarren kasuan, udal mailan eta diputazio mailan burutu zen. Orokorrean instituzio hauek frankisten esku erori eta gutxira egiten zen, hots, frankismoaren lehen urteetako urraketa orokortuenetako bat izan zen. Debaren kasuan, 45 pertsona behintzat ikertuak izan ziren, horietako 35 zigortuak izan zirelarik (30 kaleratuak, batzuk denborara lanpostua berreskuratzeko aukera izan bazuten ere).

1936ko irailaren 12an, Gerra Zibilean Errepublikaren aurka altxatutako militar espainiarren organo administratibo gorena zen Defentsa Batzorde Nazionalak, langile publikoen egoera normalizatzeko dekretua igorri zuen, 101 Dekretua.

Bertan, honela zehazten ziren jarraitu beharreko pausuak, "beraien ohiko egoitza ofizialetik kanpo aurkitzen ziren funtzionario publikoak, zegozkien autoritateen aurrean aurkeztu behar ziren". Autoritate edo erakunde hauek, "langile publikoen erregistro bat burutu beharko dute, beraien informazioa batuz, besteak beste datu pertsonalak, afiliazio politikoa, bere postuan ez aurkitzearen zergatiak zehaztuz". Azkenik, datu hauek guztiak, frankisten organo administratibo gorena zen Defentsa Batzorde Nazionalera igorri behar ziren. Ikus dezakegunez, hasiera batean dekretu honek erregistro base bat eratzea aipatzen du eta ez zen ondoren emango ziren pausuen inguruan datu gehigarririk ematen<sup>325</sup>. Irailak 13an bertan, aurreko dekretuari bigarren bat gehitu zitzaion, 108. Dekretua bezala ezagutuko zena. Bertan, Defentsa Batzorde Nazionalak, legez kanpo uzten zituen Fronte Popularra eta honen baitan barnebiltzen ziren alderdi, sindikatu eta antolakunde guztiak, hau da, Errepublikaren alde lerratu zen antolakunde oro legez kanpo utzi zen. Dekretu honetan bertan, alderdi edo antolakunde hauekin erlazioa izan zuten eta Mugimendu Nazionalaren aurkako jarrera izan zuten funtzionario oro beraien postuetatik kanporatuak izatea agintzen zen<sup>326</sup>.

Horrez gain, 1936ko abenduaren 9an, hirugarren dekretu bat igorriko da non 101. dekretua bete ez zutenak eta beraien ustez karguan ez egotearen inguruko argudiatze egoki bat burutu ez zuten enplegatu guztiak kargutik kanporatuak izango lirakeen. Agindu hau, jada Francisco Franco botere guztia bereganatu zuenean eman zen, Estatuko Batzorde Teknikoa deituriko organoan, Defentsa Batzorde Nazionala ordezkatu zuena eta Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu zen<sup>327</sup>.

## 4.2 DESPEDIR A EMPLEADOS PÚBLICOS, PROCESO DE DEPURACIÓN

Cuando hablamos sobre el proceso de depuración, hablamos sobre la represión contra los trabajadores públicos. La depuración que realizaron las autoridades franquistas tuvo dos bases importantes. Por un lado, castigar la actitud que tuvieron los empleados del ayuntamiento durante la República y la guerra, y, por otro, expulsar de sus puestos a los empleados públicos, funcionarios... que no eran afines a la ideología franquista y a su idea nacional.

Este tipo de represión, en el caso de los debarres, fue llevado a cabo a nivel municipal y provincial y, normalmente, se realizaban al poco de caer estas instituciones en manos de los franquistas; por lo tanto, fue una de las vulneraciones más generalizadas durante los primeros años del franquismo. En el caso de Deba, fueron investigadas 45 personas y, de ellas, 35 fueron sancionadas (30 expulsadas, aunque al tiempo algunas tuvieron la oportunidad de recuperar el puesto).

El 12 de septiembre de 1936, la Junta de Defensa Nacional, el órgano administrativo supremo de los militares sublevados contra la República, emitió un decreto (Decreto nº 101) para normalizar la situación de los empleados públicos.

En él, se precisaban los pasos a seguir: "Los funcionarios del Estado que, con causa justificada, se encuentren fuera del lugar de su residencia oficial (...) se presentarán a la Autoridad..." Esas autoridades o instituciones "(...) abrirán un registro de presentación del personal, en el que harán constar, además de la filiación del interesado, cargo que desempeña, lugar de su residencia, causas o motivos que han dado lugar a no estar incorporado a su destino..." Finalmente, todos esos datos los tenían que remitir a la Junta de Defensa Nacional. Como se puede apreciar, este decreto menciona la creación de una base de datos pero no da ninguna información sobre los pasos que habría que dar posteriormente<sup>325</sup>. El 13 de septiembre, al decreto anterior se le añadió un segundo, el conocido como Decreto nº 108. En él, la Junta de Defensa Nacional declaraba fuera de la ley al Frente Popular y a todos los partidos, sindicatos y organizaciones que se agrupaban entorno a él. Por lo tanto, se declaró ilegal toda organización que se alienara a favor de la República. En ese mismo decreto se ordenaba que cualquier funcionario que hubiera estado relacionado con esos partidos u organizaciones, o que hubiera tenido una postura contraria al Movimiento Nacional, debía ser expulsado de su puesto<sup>326</sup>.

Además, el 9 de diciembre de 1936, se emitió otro decreto donde se expulsaba de su cargo a todo empleado que no hubiera cumplido el Decreto nº 101 y los que no hubieran dado razones convincentes, según ellos, para justificar que no estaban en sus puestos. Esta orden, teniendo Francisco Franco ya todo el poder, se dio en el órgano llamado Junta Técnica del Estado, que había sustituido a la Junta de Defensa Nacional, y se publicó en el Boletín Oficial del Estado<sup>327</sup>.

<sup>325</sup> Espainiako Defentsa Batzorde Nazionalaren buletin ofiziala, 20. zenbakia, 1936/09/12. / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional, nº 20, 12/09/1936.

<sup>326</sup> Espainiako Defentsa Batzorde Nazionalaren buletin ofiziala, 22. zenbakia, 1936/09/13. / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional, nº 22, 13/09/1936.

<sup>327</sup> Estatuko Buletin Ofiziala, 51. zenbakia, 1936/12/09. / Boletín Oficial del Estado, nº 51, 09/12/1936.

Goian aipatzen diren hiru dekretu hauetaz baliatuz, Debako lehen udalbatza frankistak, gobernu organoak eratu eta jarraian abiatu zuen udal langileen aurkako garbiketa prozesua. Horrela, kontuan izaten badugu udalbatza frankista irailaren 26an eratu zela, hamabost egun eskasetara, urriak 9an burutu zuten bilera batean, lehen pausu bezala, udal langile guztiak beraien postuetatik kanporatuak izan ziren behin-behinean. Langileei, hilabete bukaerara arteko denbora eman zitzaizen beraien beronarpenera eskatzeko eta horren baitan udalak azken erabakia hartzeko eskumena gordetzen zuten<sup>328</sup>.


Behin prozesua habiarazita, eta udal funtzionarioen eskaerak aztertuta, garbiketa prozesuaren inguruko ebazpena, 1937ko urtarrilaren 15an gauzatu zuen Udalbatzak, non 1936ko abenduaren 15an burututako txosten bat baliatu zuten:

“Estatuko Gobernuaren, 93. dekretua konplimentatzeko, honakoak dira herritik joan eta itzuli ez diren funtzionarioak:  
 Jose Maria Lonbide, itziarko medikua  
 Juan Diaz, Antonio Azcoitia, Marcos Echeverria, udaltzainak  
 Antonio Urcaregui, auditorea eta argia eta uraren kobratzailea  
 Jose Basurto, kale-garbitzailea  
 Faustino Urain, Ramon Azpeitia, danbolin joleak<sup>329</sup>”

Valiéndose de los tres decretos mencionados anteriormente, la primera corporación municipal franquista de Deba creó los órganos de gobierno y, a continuación, dio inicio al proceso de depuración contra los empleados municipales. Teniendo en cuenta que la conformación de la corporación municipal franquista fue el 26 de septiembre, solo necesitaron quince escasos días, en una reunión realizada el 9 de octubre, para dar el primer paso y expulsar provisionalmente a todos los trabajadores municipales. A los trabajadores se les dio de plazo hasta el fin de mes para pedir su readmisión y, en base a eso<sup>328</sup>, el Ayuntamiento se reservaba la autoridad para tomar la decisión

Una vez puesto en marcha el proceso, y haber analizado las peticiones de los funcionarios municipales, la corporación municipal aplicó la resolución sobre el proceso de depuración el 15 de enero de 1937, basándose en un informe realizado el 15 de diciembre de 1936:

“Para cumplimentar el Decreto nº 93 del Gobierno del Estado, estos son los funcionarios que se fueron del pueblo y no volvieron:  
 José María Lonbide, médico de Itziar  
 Juan Díaz, Antonio Azcoitia, Marcos Echeverria, guardias municipales  
 Antonio Urcaregui, auditor y cobrador de la luz y el agua  
 José Basurto, barrendero  
 Faustino Urain, Ramón Azpeitia, tamborilero<sup>329</sup>”



Herria ebakatu zuten udal langileak. (DUA). / Empleados municipales que huyeron del pueblo. (AMD).

<sup>328</sup> EAH, DUA, sig. 079, 12 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 12.

<sup>329</sup> EAH, DUA, sig. 079, 18 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 18.

**Onartuak**

Jarraian datozen udal langileak beraien karguetan berretsiak izan ziren, Fronte Popularrarekin inolako erlaziorik izan ez eta Mugimendu Nazionalarekiko fidelak izan zirelakoan uneoro.

- **Idazkaria:** Luis de Lasquibar eta Santos
- **Interdentore:** Ramon Allica Larragain
- **Udal Funtsen hartzailea:** Saturnino Aldabaldetrecu
- **Abereen ikuskatzailea:** Juan Usandizaga Aramberri
- **Udaltzainak:** Julian Azpeitia Orbegozo eta Juan Jose Aizpurua
- **Alondegiko langileak:** Pio Bascaran Orbea eta Juan Jose Garate Beristain
- **Kale-garbitzaileak:** Tomas Irigoyen eta Cayetano Arguenbarri

**Zigortuak**

Bestetik, ideia abertzaleak izateagatik eta EAJ alderdiaren gertukoak izateagatik, zigortuak izan ziren beste hainbat udal langile, nahiz eta udalak berak onartu ez zituela alderdi horretan afiliatuak zeudenaren gaineko daturik. Hauen kasuan, ez ziren kaleratuak izan, Gerra Zibilak eztanda egitearekin batera, altxatuen aurka sortu zen Defentsa Batzordean ez zutelako parte hartzerik izan eta Mugimendu Nazionala deitzen ziotenaren aurkako jarrerarik erakutsi ez zutelako.


**Admitidos**

Al no tener ninguna relación con el Frente Popular, y al suponer que fueron leales al Movimiento Nacional en todo momento, los siguientes empleados municipales fueron readmitidos en sus cargos.

- **Secretario:** Luis de Lasquibar y Santos
- **Interventor:** Ramon Allica Larragain
- **Tomador de fondos municipales:** Saturnino Aldabaldetrecu
- **Inspector de ganado:** Juan Usandizaga Aramberri
- **Guardias municipales:** Julian Azpeitia Orbegozo y Juan Jose Aizpurua
- **Empleados de la alhóndiga:** Pio Bascaran Orbea y Juan Jose Garate Beristain
- **Barrenderos:** Tomas Irigoyen y Cayetano Arguenbarri

**Sancionados**

Por otro lado, varios empleados municipales fueron sancionados por tener ideas nacionalistas y por ser afines al partido PNV, aunque el mismo Ayuntamiento admitió que no tenía datos sobre los afiliados de ese partido. Estos no fueron expulsados, porque al estallar la Guerra Civil no participaron en los Comités de Defensa creados para hacer frente a los sublevados, y porque no se observó en ellos ninguna actitud contraria al Movimiento Nacional.



kertutako langileak, onartuak, zigortuak eta kaleratuak (dua). / Empleados investigados, aceptados, sancionados y expulsados. (AMD).



- **Mediku titularra:** Manuel Echaniz (12 hilabete soldata erdira)
- **Argi eta uraren arduraduna:** Jose Sagarna (12 hilabete soldata erdira)
- **Udal botikaria:** Eduardo Barrena (8 hilabete soldata erdira)
- **Udal Zentral elektrikoaren arduradunak:** Nicolas Unanue eta Gumersindo Andonegui (8 hilabete soldata erdira)

### Kaleratuak

Azkenik, beraien postuetatik kanporatuak izan ziren beste hainbat funtzionario eta udalbatzak "beraien lanpostua uztea" adierazi zuen arrazoi bezala. Esaldi motz honek, ondoriozta genezake, pertsona hauek herritik ihes egin behar izan zutela, errepresio frankistaren beldur, errepublika garaian izan zuten jarrera zela eta.

- **Itziarko mediku titularra:** Jose Maria Lombide San Martin
- **Ur eta argi fakturen kobratzailea:** Antonio Urcaregui Arrizabalo
- **Udaltzainak:** Juan Diaz Egaña, Antonio Azcoitia Mendizabal eta Marcos Echeverria Odriozola
- **Kale-garbitzailea:** Jose Basurto Zabala
- **Arzabalgo zentral elektrikoko laguntzailea:** Juan Arostegui Jauregui
- **Udal danbolin-joleak:** Faustino Urain Egaña eta Manuel Azpeitia Ezpeleta<sup>330</sup>

- **Médico titular:** Manuel Echaniz (12 meses con la mitad del sueldo)
- **Responsable de luz y agua:** Jose Sagarna (12 meses con la mitad del sueldo)
- **Boticario municipal:** Eduardo Barrena (8 meses con la mitad del sueldo)
- **Responsables de las centrales eléctricas municipales:** Nicolas Unanue eta Gumersindo Andonegui (8 meses con la mitad del sueldo)

### Expulsados

Finalmente, varios funcionarios fueron expulsados de sus puestos. La corporación municipal lo justificaba como "abandono del puesto de trabajo". De esa corta frase podemos deducir que esas personas tuvieron que huir del pueblo por miedo a la represión franquista, por la actitud que tuvieron durante la República.

- **Médico titular de Itziar:** Jose Maria Lombide San Martin
- **Cobrador de las facturas de agua y luz:** Antonio Urcaregui Arrizabalo
- **Guardias municipales:** Juan Diaz Egaña, Antonio Azcoitia Mendizabal y Marcos Echeverria Odriozola
- **Barrendero:** Jose Basurto Zabala
- **Ayudante en la central eléctrica de Arzabal:** Juan Arostegui Jauregui
- **Tamborileros municipales:** Faustino Urain Egaña y Manuel Azpeitia Ezpeleta<sup>330</sup>



Fastino Urain, 1934ko Debako jaietan bandarekin txistua jotzen. (Deva ayer 260 fotografías liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / Faustino Urain en fiestas de Deba de 1934 tocando el txistu con la banda. (Del libro Deva ayer 260 fotografía, de la biblioteca Koldo Mitxelena, DFG).

<sup>330</sup> EAH, DUA, sig. 079, 23 eta 24 folioak. / AHE, AMD, sig. 079, f. 23 y 24.

Orr.

Itziarko medikuari dagokionez, EAJra afiliatua zegoen eta Itziarko Batzokiko zuzendaritzako kide zen ere. Itziarren bertan altxatuen aurkako erantzuna koordinatzen jardun zuen eta bere kinta deitu zenean, Eusko Gudarostera batu zen, bertan jardun zuelarik Gijonen preso hartu zuten arte<sup>331</sup>.

Udaltzainen kasuan berriz, Juan Diaz Egaña, Debako Agrupacion Socialistako afiliatua zen, Frantziako Estatura erbesteratu zen eta bertan Gurseko kontzentrazio esparruan egon zen. Antonio Azcotia berriz, Askatasuna batailoian engeiatu zen gudari gisa. Manuel Azpeitia danbolin jolea ere milizianoa izan zen, Indalecio Prieto batailoian, UGT sindikatuak antolatutako batailoia. Juan Arostegui kasuan gidari lanetan ibili zen, lehenik Defentsa Komitearentzat eta ostean Ariztimuño batailoian<sup>332</sup>.

Antonio Urcaregui Arrizabalo, Jose Basurto Zabala, Marcos Echeverria Odriozola eta Faustino Urain Egañaren kasuan ez dugu herritik ebakutzeaz gain beste kausarik aurkitu. Aipagarria da, udal danbolin-joleen kasuan, 1940ko apirilaren 27an, beraien karguetan berronartuak izan zirela<sup>333</sup>.

Baina udal langileen garbiketa ez zen txosten honetara mugatu, denboran luzatu baitziren, beraz ezin dezakegu esan data hau eta gero kaleratuak izan ziren langile guztiak arrazoi politikoetatik izan ziren, baina badakigu izatera politikodun kaleratze berantiaragoak egon zirela. Jose Larrañaga jauna, 1938ko maiatzaren 14an kaleratua izan zen, Lasturreko telefonotegiko lanpostutik "Mugimendu Nazionalarekiko aurkako jarreragatik"<sup>334</sup>. 1941eko uztailaren 26an berriz, Gipuzkoako gobernadore zibilairen aginduz, Felipe Urdangarin Imaz jauna kaleratua izan zen behin behinean betetzen ari zen udaltzain lanpostutik, bere aurrekari politikoak zirela eta, izan ere, miqueletea izan zen eta Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren alde lerratzeagatik espetxeratua izan zen<sup>335</sup>.

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar kaleratutako udal langileek zituzten postuak Mugimendu Nazionala bezala deitzen zuten idealen aldeko edo gertuko pertsonak bete zituztela eta izendapen berriak inolako lehiaketa publiko edota hautaketa gabe burutu ziren, udalaren aldeko erabakiz. Honela, "etsai politikoak" kontsideratzen zituztenak bazterteaz gain, eraiki nahi zuten Estatu eta gizarte berriarekin bat egingo zuten pertsonak ezartzea nahi zituzten.

Ikuspegi honekin, kargu publiko bat betetzerakoan, norbanakoen aurrekari penal eta politikoak aztertzen ziren, horrela "gorriak" bezala identifikatzen zituztenak baztertu eta lehentasuna ematen zieten altxatuen alde lerratu zirenei. Gai honetan zehazki, erreketek edota militar altxatuak izan zirenak edota Errepublikan preso egon ziren eskuindarrek lehentasuna zuten eta horren adibidea aurkitzen dugu 1938ko irailak 15an. Bertan, udaltzain berria izendatu zen Ascensio Aperribay Egaña, "Comision Inspectora Provincial del Benemerito Cuerpo de Mutilados de Guerra de la Provincia" erakunderen eskariz. Horretarako, postu hau behin behinean betetzen ari zen Antonio Aristondo kaleratua izan

En cuanto al médico de Itziar, este estaba afiliado al PNV y era miembro de la directiva del Batzoki de Itziar. Estuvo coordinando la respuesta a los sublevados en Itziar, y cuando los de su quinta fueron llamados a filas, se unió al Ejército Vasco, y allí estuvo hasta que lo apresaron en Gijón<sup>331</sup>.

En el caso de los guardias municipales, Juan Diaz Egaña estaba afiliado a la Agrupación Socialista de Deba, se exilió al Estado francés y estuvo en el campo de concentración de Gurs. Por su parte, Antonio Azcoitia estuvo como gudari en el batallón Askatasuna. El tamborilero Manuel Azpeitia también fue miliciano en el batallón Indalecio Prieto, el batallón organizado por el sindicato UGT. Juan Arostegui trabajó como chófer, primero para el Comité de Defensa y luego en el batallón Ariztimuño<sup>332</sup>.

Sobre Antonio Urcaregui Arrizabalo, José Basurto Zabala, Marcos Echeverria Odriozola y Faustino Urain Egaña no hemos encontrado ninguna causa, excepto que fueron evacuados del pueblo. Hay que mencionar que los tamborileros fueron readmitidos en sus puestos el 27 de abril de 1940<sup>333</sup>.

Sin embargo, el proceso de depuración municipal no se ciñó exclusivamente a ese informe ya que las depuraciones se alargaron en el tiempo; por lo tanto, no podemos decir que todos los trabajadores que fueron expulsados tras esa fecha lo fueran por motivos políticos, aunque sabemos que hubo expulsiones de motivación política más tardías. Por ejemplo, el señor José Larrañaga fue expulsado de su puesto de trabajo en el locutorio telefónico de Lastur, el 14 de mayo de 1938, "por su actitud contraria al Movimiento Nacional"<sup>334</sup>. El 26 de julio de 1941, por orden del gobernador civil de Gipuzkoa, el señor Felipe Urdangarin Imaz fue expulsado de su puesto de guardia municipal que estaba ocupando provisionalmente, por sus antecedentes políticos; Felipe había sido miquelete, y fue encarcelado por alinearse a favor de la Diputación y el Gobierno Vasco<sup>335</sup>.

Además, no podemos olvidar que los puestos de los empleados municipales expulsados fueron ocupados por personas afines o cercanas al Movimiento Nacional, y que los nuevos nombramientos se hicieron sin ningún concurso público ni selección, si no con la decisión unilateral del Ayuntamiento. Así, además de marginar a los que consideraban "enemigos políticos", querían colocar a personas que se adhirieran con el nuevo Estado y la nueva sociedad que querían construir.

En este panorama, a la hora de ocupar un cargo público, se analizaban los antecedentes penales y políticos de cada persona; así, apartaban a los que identificaban como "rojos" y priorizaban a los que se habían alineado con los sublevados. Precisamente en este tema, tenían prioridad los requetés y militares sublevados o derechistas que estuvieron presos durante la República. Un ejemplo de ello ocurrió el 15 de septiembre de 1938. Ese día, a petición de la "Comisión Inspectora Provincial del Benemerito Cuerpo de Mutilados de Guerra de la Provincia", se nombró a un nuevo guardia municipal, Ascensio Aperribay Egaña, y para ello expulsaron a Antonio Aristondo, que esta-

<sup>331</sup> AIRMN, 1054/38 sumarísimo. / AIRMN, sumarísimo 1054/38.

<sup>332</sup> AIRMN artxiboko gerra kontseiluak. / Consejos de Guerra del AIRMN.

<sup>333</sup> EAH, DUA, sig. 079, 176 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 176.

<sup>334</sup> EAH, DUA, sig. 079, 196 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 196.

<sup>335</sup> EAH, DUA, sig. 079, 244 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 244.

zen<sup>336</sup>. Kontuan izan behar da, Ascensio berak, miliziano eta gudari askoren aurkako testigantzak burutu zituela hauen aurkako gerra kontseiluetan. Beste kasu batean, udaltzain berria izendatu zen, zergak eta ur-argi zerbitzuak kobratzeko, alkatearen aginduz. Bertan soldadu ohia izan zela azpimarratzen da, Isidro Beristain Aldalur<sup>337</sup>.

Kasu argiena agian, 1940ko apirilaren 8ko aktan aurkitzen dugu, hemen Udalak Gobernu Zibilaria behin betiko lan eskaintza berriaren gaineko datuak bidali zizkion, izan ere udal langileen garbiketaren ostean, gabezia larriak zeuden hainbat postu bete gabe zeudelako, Itziar medikua, bi udaltzain, kale-garbitzaile bat, bi gauzain<sup>338</sup>. Lanpostu horietako batzuk honela betetzea erabaki zuten:

- Kale garbitzaile bat, mutilatuen kupotik betetzeko
- Aguazila, soldadu ohien kupotik
- Serenoa, errepublikarren preso ohien kupotik
- Serenoa, kupo librea, behar den kupotik betetzeko

Beste kasu batean, udal lanpostu baterako hautaketa prozesuan, 1944ko abenduaren 23an, debar batzuk gauzain lanposturako hautaketa prozesutik kanporatuak izan ziren, ez zutelako FET-JONS antolakunde faxistan izena emanda zutela adierazten zuen txartela aurkeztu<sup>339</sup>.

### Deban garbiketa-prozesua jasan zuten izan ziren irakasleak

Langile publikoen aurkako errepresioa ez zen udal langileetara mugatu, hezkuntzaren kasuan, bereziki irakasleek jasan zuten errepresioa nabaria izan zen. Horrela, 1936ko azaroak 8an, Estatuko Buletin Ofizialean, 66. dekretua publikatu zuten, non hezkuntza sistema publikoan jarduten zuten irakasleen aurkako garbiketa prozesua abiatu zen. Horrela azaltzen zuten:

*“Hamarkada batzuetan zehar, Hezkuntza bere gradu guztietan, izaera eta tradizio nazionalaren aurka zeuden ideologia eta instituzioek monopolizatua egon da, beraz, une erabakigarri hauetan, beharrezkoa da Hezkuntza Sistemaren berrikuspen oso eta sakon bat ematea, beronen berrantolaketa oso bat burutu aurretik. Horrela, sustraletatik ezabatu nahi dira doktrina faltsuak, non hauen gidaritzaren ondorioz iritsi da gure Aberria egoera honetara”<sup>340</sup>.*

Horrela, hainbat Komisio edo Batzorde eratu ziren, Estatu mailan zein Gipuzkoa mailan eta Lehen Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitaterainoko esparruak biltzen zituzten. Hauek, instituzio frankistetako kideek eta Mugimendu Nazionalaren kide ziren irakasle eta gurasoek eratzen zituzten eta Estatuko Batzorde Teknikoko Buruak izendatzen zituen, beraien kargutik atzera botatzeko ezintasunarekin.

Gipuzkoako Komisioa, Bigarren Hezkuntzako institutu zuzendari batek, Lehen Hezkuntzako inspektore batek, Gurasoen Elkarteko Lehendakariak eta “herrian errotutako eta

ba ocupando el puesto provisionalmente<sup>336</sup>. Hay que tener en cuenta, que el mismo Ascensio presentó muchos testimonios contra milicianos y gudarís en los consejos de guerra. En otro caso, se nombró a un nuevo alguacil por orden del alcalde, para cobrar los impuestos y los servicios de agua y luz. Se llamaba Isidro Beristain Aldalur y, según consta, era un exsoldado<sup>337</sup>.

Tal vez el caso más claro lo encontramos en el acta del 8 de abril de 1940. En él, el Ayuntamiento envió los datos sobre la nueva oferta de trabajo definitivo al Gobierno Civil, porque tras de la depuración de los empleados municipales había grandes carencias, al estar varios puestos vacantes: el médico de Itziar, dos alguaciles, un barrendero y dos serenos<sup>338</sup>. Algunos de esos puestos decidieron cubrirlos así:

- Un barrendero, para cubrirlo del cupo de los mutilados
- Alguacil, del cupo de exsoldados
- Sereno, del cupo de los expresos de los republicanos
- Sereno, cupo libre, para cubrirlo del cupo necesario

En otro caso, en el proceso de selección para un puesto de trabajo municipal, el 23 de diciembre de 1944, varios debarrras fueron expulsados del proceso de selección del puesto de sereno, porque no habían presentado la tarjeta que certificaba que estaban inscritos en la organización fascista FET-JONS<sup>339</sup>.

### Profesores que sufrieron la depuración en Deba

La represión contra empleados públicos no se limitó a los empleados municipales; en el caso del ámbito de la educación, fue evidente la represión que sufrieron sobre todo los profesores. Con el decreto nº 66 publicado el 8 de noviembre de 1936 en el Boletín Oficial del Estado, se dio inicio al proceso de depuración contra los profesores que trabajaban en el sistema público de educación. Así lo explicaba:

*“Durante décadas la Educación, en todos sus grados, ha estado monopolizada por ideologías e instituciones que estaban en contra de la identidad y tradición nacional, por lo tanto, en estos momentos decisivos, es necesario hacer una revisión profunda y total del sistema educativo antes de realizar una reorganización. De ese modo, se quieren destruir desde las raíces las falsas doctrinas bajo la dirección de las cuales ha llegado nuestra Patria a esta situación”<sup>340</sup>.*

De ese modo, se crearon varias comisiones y juntas, a nivel estatal y provincial, que incluía los ámbitos que iban desde la Educación Primaria a la Universitaria. Los formaban miembros de instituciones franquistas y padres y profesores afines con el Movimiento Nacional, y los nombraba el jefe de la Junta Técnica del Estado, con la imposibilidad de que pudieran ser expulsados de sus puestos.

La comisión de Gipuzkoa la crearon un director de instituto de Educación Secundaria, un inspector de Educación Primaria, el presidente de la Asociación de Padres y dos per-

<sup>336</sup> EAH, DUA, sig. 079, 114 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 114.

<sup>337</sup> EAH, DUA, sig. 079, 139 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 139.

<sup>338</sup> EAH, DUA, sig. 079, 173 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 173.

<sup>339</sup> EAH, DUA, sig. 079, 147 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 147.

<sup>340</sup> Estatuko Buletin Ofiziala, 27. Zenbakia, 1936/11/11koa, 153. or. / Boletín Oficial del Estado, nº 27, p. 153, del 11/11/1936.



Debako eskola publikoko umeak, 1927. urtean (Deva ayer 260 fotografías liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / Niños de la escuela pública de Deba en 1927. (Del libro Deva ayer 260 fotografías, biblioteca del Koldo Mitxelena, DFG).

sinesgarritasun moral eta tekniko guztia zuten” bi pertsonak eratu zuten. Debako hezkuntza publikoko irakasleak aztertzean, lau irakasle izan ziren garbiketa-prozesua jasan zutenak, herriko eskola nazional guztietakoak asken finean, izan ere, auzoetako eskolak kenduta, lau eskola publiko zeuden, nesken eta mutilen bana, Deban eta Itziarren.

- Juan Carretero Rodenas<sup>341</sup>
- Teresa Vallejos<sup>342</sup>
- Gregorio Porras Moreno (Itziarreko irakaslea)<sup>343</sup>
- Engracia Flores Alvarez (Itziarreko irakaslea)<sup>344</sup>

Irakasle berrien izendapenez, Junta Provincial de Enseñanza arduratu zen eta beronen gaineko gestioa segituan abiatu zuen. 1937ko maiatzaren 15an jada, Itziar irakasle berria izendatu zuten: Dolores Clemente<sup>345</sup>. Aipagarria da puntu honetan, aipatzen dela bere karguan aurretik zegoen irakaslea istripu batean hil zela, nahiz eta benetan depuratu izan zen, Gipuzkoako Komisionaren aldetik<sup>346</sup>.

sonas “arraigadas en el pueblo, y con toda la credibilidad moral y técnica”. Al investigar los profesores de educación pública de Deba, fueron depurados cuatro de ellos: los cuatro de las escuelas nacionales; en total, si exceptuamos las de los barrios, entre Deba e Itziar había cuatro escuelas públicas, uno para chicas y otro para chicos en cada núcleo.

- Juan Carretero Rodenas<sup>341</sup>
- Teresa Vallejos<sup>342</sup>
- Gregorio Porras Moreno (Itziarreko irakaslea)<sup>343</sup>
- Engracia Flores Alvarez (Itziarreko irakaslea)<sup>344</sup>

La Junta Provincial de Enseñanza se encargaba del nombramiento de los nuevos profesores. En seguida iniciaron las gestiones para ello, y para el 15 de mayo de 1937 ya habían nombrado a la nueva profesora de Itziar: Dolores Clemente<sup>345</sup>. Hay que resaltar en este punto, que se menciona que la anterior profesora murió en un accidente, aunque en realidad fue depurada por la Comisión de Gipuzkoa<sup>346</sup>.

<sup>341</sup> AGA, Ministerio de Educación Nacional, Expedientes de depuración de maestros nacionales, 32/12633.


<sup>342</sup> AGA, Ministerio de Educación Nacional, Expedientes de depuración de maestros nacionales, 32/13291.

<sup>343</sup> AGA, Ministerio de Educación Nacional, Expedientes de depuración de maestros nacionales, 32/13289.

<sup>344</sup> AGA, Ministerio de Educación Nacional, Expedientes de depuración de maestros nacionales, 32/12630.

<sup>345</sup> EAH, DUA, sig. 079, 36 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 36.

<sup>346</sup> EAH, DUA, sig. 079, 116 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 116.



Engracia Flores irakaslearen depurazioa ezkutatzeko duen dokumentua. (DUA). / Documento que oculta la depuración de la profesora Engracia Flores. (AMD).

## Ostolaza Eskola

Eskola honetan hiru irakasle zeuden, Angel Benta, Julian Gonzalez Barcia irakasle orokorrak ziren eta Imanol Arrasate ingelera irakaslea<sup>347</sup>. Gerra Zibila astearekin batera, Ostolaza bera erbestera joan behar izan zen eta tropa frankistek Deba hartzarekin batera eskola itxeko eta liburutegia konfiskatzeko erabakia hartu zuten, ez baitzeuden izaera laikoa zuen hezkuntza sistema batekin ados<sup>348</sup>. Eskola ez zen berriro irekiko, baina liburutegia berriro irekitzea lortu zen 1959an<sup>349</sup>.

## Escuela Ostolaza

En esa escuela había tres profesores, dos de ellos comunes (Ángel Benta y Julián Gómez Barcia) y un tercero de inglés (Imanol Arrasate)<sup>347</sup>. Cuando comenzó la Guerra Civil Ostolaza tuvo que ir al exilio, y cuando las tropas franquistas tomaron Deba decidieron cerrar la escuela y confiscar la biblioteca porque no estaban de acuerdo con un sistema de educación laico<sup>348</sup>. La escuela no se volvió a abrir, pero se consiguió reabrir la biblioteca en 1959<sup>349</sup>.



Julian Gonzalez Barcia irakaslea 1936ko kurso amaierako argazkian. (Deva ayer 260 fotografías liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / El profesor Julian Gonzalez Barcia en la fotografía de fin de curso de 1936. (Del libro Deva ayer 260 fotografías, biblioteca del Koldo Mitxelena, DFG).

<sup>347</sup> Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Berriketan aldizkaria, 2006ko iraila. / Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Revista Berriketan, septiembre de 2006.

<sup>348</sup> EAH, DUA, sig. 079, 157 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, f. 157.

<sup>349</sup> Ostolaza Kultur Elkarte, <http://www.ostolaza.org/eus/index.php?c=15-tik> lortua. / Ostolaza Kultur Elkarte, conseguido de la dirección: <http://www.ostolaza.org/eus/index.php?c=15>.

Orr.

## Gipuzkoako Aldundiko Langileak

Azkenik, ez ditugu ahaztu behar ere Gipuzkoako aldundiarentzat lan egiten zuten langileen kasua ere. Beraien aurkako garbiketaprozesua, 1936ko irailaren 14an bertan hasi zen, altxatutako tropek Donostia indarrez hartu eta hurrengo egunean. Hauen aurka, udaleko langile publikoen kasuan bezala, 101 eta 108 dekretuak baliatu zituzten, non helburua honakoa zen:

*“Funtzionario bati espediente bat abiaraztea, haren jokabide politikoa zigortzeko”*

*“Erakunde, elkargo, alderdi politiko eta abarretatik disidentetzat hartutako kideak botatzea”*

Debako udaletxean eman zen bezala, irailaren 23an Aldundiko langile guztiak kargugabetu zituzten eta honen baitan norbanako orori espediente bat ireki zioten, horren arabera kargugabetu, zigortu edota onartuak izateko. Prozesu hau, 1937ko apirilak 26 arte luzatu zen eta 1051 langilek jasan zuten garbiketaren bat<sup>350</sup>.

Jarraian, Deban jaioak edota Deban lan egiten zuten eta depuratua izan ziren Aldundiko langileak ditugu.

- **Alberdi Villar, Jose Julian:** Aldundiko bidezaina zen, kanporatua izan zen 1937ko martxoak 13an. Gerra kontseiluan epaitua izan zen<sup>351</sup>.
- **Ascensio Gascon, Francisco:** Mikeletea zen, kargutik kendu zuten 1936ko azaroak 26an<sup>352</sup>. Iturri batzuen arabera, Catalina Gascon Perez bere ama fusilatua izan zen berak herritik ihes egiten zuelako<sup>353</sup>.
- **Azpeitia Orbeago, Jose (Eulalio):** Deban jaio zen, baina Alegian bizi zen eta bertan Mikeletea zen. Gerra kontseilu bat burutu zuten bere aurka, Errepublikara garaietan izan zuen papera aztertzeko, baina absolbitu egin zuten. Bere kargutik kanporatua izan zen 1936ko azaroak 26an<sup>354</sup>.
- **Uranga Eizaguirre, Saturnino:** Deban jaio bazen ere, Zestoan bizi zen. Gipuzkoako aldundiarentzat lan egiten zuen, Mikelete postuan. Bilboko espetxe batean egon zen preso, baina bere aurka ez zuten inolako prozesu judicialik abiarazi. Kargugabetua izan zen, 1936ko azaroak 26an<sup>355</sup>.
- **Urdangarin Imaz, Felipe:** Ataundarra jaiotzez, Mikeletea zen ofizios eta Deba herrian destinatua zegoen. 48 urte zituen (1937) eta ezkondua zegoen. Gerrak eztanda egin zuenean, Deban aurkitzen zen, baina Gobernu zibilaren aginduak betez, Donostiara eraman zuten uztailearen 22an. Bertan, Gobernu Zibilaren zerbitzura jarri zen. Gerra kontseilu bat burutu zuten bere aurka eta 30 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuten. Kargugabetua izan zen 1936ko azaroak 26an<sup>356</sup>.

## Empleados de la Diputación de Gipuzkoa

Por último, tampoco debemos olvidar los empleados que trabajaban en la Diputación de Gipuzkoa. El proceso de depuración contra ellos empezó el 14 de septiembre de 1936, al día siguiente de que las tropas sublevadas tomaran Donostia a la fuerza. Contra ellos, como en el caso de los empleados públicos municipales, emplearon los decretos nº 101 y 108. El objetivo era el siguiente:

*“Abrir expediente a un funcionario para sancionar su conducta política”*

*“Expulsar a miembros considerados disidentes de las instituciones, asociaciones, partidos políticos, etc”*

Tal como ocurrió en el Ayuntamiento de Deba, el 23 de septiembre destituyeron a todos los empleados de la Diputación y abrieron expediente a cada uno de ellos; en base a ello serían destituidos, sancionados o aceptados. Ese proceso se alargó hasta el 26 de abril de 1937 y, en total, 1051 empleados sufrieron algún tipo de depuración<sup>350</sup>.

A continuación, nombraremos a los empleados de la Diputación nacidos o que trabajaban en Deba.

- **Alberdi Villar, Jose Julian:** Caminero de la Diputación, fue expulsado el 13 de marzo de 1937. Fue juzgado en un consejo de guerra<sup>351</sup>.
- **Ascensio Gascon, Francisco:** Era miquelete, lo expulsaron el 26 de noviembre de 1936<sup>352</sup>. Según ciertas fuentes, su madre, Catalina Gascon Pérez, fue fusilada porque él había huido del pueblo<sup>353</sup>.
- **Azpeitia Orbeago, Jose (Eulalio):** Nació en Deba pero vivía en Alegia y trabajaba de miquelete allí. Tuvo que hacer frente a un consejo de guerra, para analizar el papel que tuvo durante la República, pero fue absuelto. Fue expulsado de su cargo el 26 de noviembre de 1936<sup>354</sup>.
- **Uranga Eizaguirre, Saturnino:** Aunque nació en Deba, vivía en Zesto. Trabajaba para la Diputación de Gipuzkoa como miquelete. Estuvo preso en una cárcel de Bilbo, pero no abrieron ningún proceso judicial contra él. Fue destituido el 26 de noviembre de 1936<sup>355</sup>.
- **Urdangarin Imaz, Felipe:** Nació en Ataun, y estaba destinado en Deba como miquelete. Tenía 48 años (1937) y estaba casado. Cuando estalló la guerra estaba en Deba, pero cumpliendo las órdenes del Gobierno Civil, lo llevaron a Donostia el 22 de julio. Allí se puso al servicio del Gobierno Civil. Hicieron un consejo de guerra en su contra y lo condenaron a 30 años de cárcel. Fue destituido el 26 de noviembre de 1936<sup>356</sup>.

<sup>350</sup> BUCES CABELLO J. eta QUEREJETA CASARES E., Gipuzkoako aldundiko langileak 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016. / BUCES CABELLO, J. y QUEREJETA CASARES, E.: Trabajadores de la Diputación de Gipuzkoa, 1936 Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 2016.

<sup>351</sup> Id.

<sup>352</sup> Id.

<sup>353</sup> GARCIA ELOSUA E., Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: “Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)”, Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

<sup>354</sup> BUCES CABELLO J. eta QUEREJETA CASARES E., Gipuzkoako aldundiko langileak 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016. / BUCES CABELLO, J. y QUEREJETA CASARES, E.: Trabajadores de la Diputación de Gipuzkoa, 1936 Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 2016.

<sup>355</sup> Id.

<sup>356</sup> BUCES CABELLO J. eta QUEREJETA CASARES E., Gipuzkoako aldundiko langileak 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016. / BUCES CABELLO, J. y QUEREJETA CASARES, E.: Trabajadores de la Diputación de Gipuzkoa, 1936 Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 2016.

- **Zubiaurre Oñederra, Jose:** Elgoibarren jaio zen eta Deban bizi zen, bertan Mikelete gisa lan egiten zuelarik Aldundiarentzat. Diputazioarekin batera Errepublikaren alde lerratu eta ondorioz Gerra kontseilu bat egin zuten bere aurka, 12 urte eta egun baterako espetxealdira kondenatu zutelarik. Hau dela eta, kargutik kanporatua izan zen 1936ko azaroak 26an<sup>357</sup>.
- **Zulaica Beloqui, Martin:** Diputazioko bidezaina zen. Santuaranen bizi zen bere familiarekin. EAJra afiliatua zegoen eta Eusko Gudarostea sortu zenean, Ingeniariari bigarren batailoian jardun zuen, lubakiak eta gotorlekuak egiten. Atxilotu ostean, Bilboko kontzentrazio esparru batean egon zen denboraldi bat<sup>358</sup>. Bere lanpostutik kanporatua izan zen 1937ko martxoak 13an<sup>359</sup>. Erbestealdira kondenatua izan zen eta Debatik 30 kilometrorra bizi behar izan zuen 5 urtez. Elgoibarren bizi ostean etxera itzuli zen eta denborara berriro bidezain izatea lortu zuen<sup>360</sup>. Horren harira etor daiteke, Debako autoritateren batek (seguru aski alkateak, baina ez dago sinatua dokumentua) Martinen inguruan bidalitako txostena. Bertan, ideologia eskuindarra zuen pertsona bat bezala identifikatu zuen, 1936ko hauteskundeetan eskuineko blokea bozkatu zuena. Altxamendua eman ostean, ez zuela inolako ekintzetan parte hartu adierazi zuen eta bere ustez inolako arrazoi gabe herritik ihes egin zuela altxatuen gertutasuna zela eta. Ondoren, Santanderrera arte erretiratzeko joan zela, inolako arazorik gabe herrira itzultzea lortu zuelarik bertatik. Bere itzetan, ez zuen inolako ekintza arriskutsutan parte hartu eta FET-JONS antolakundera afiliatua zegoen. Udalak, 1942ko urtarrilaren 2an, bere gaineko txosten hau burutzea izan daiteke bere lanpostua berreskuratzearren kausa<sup>361</sup>.
- **Zubiaurre Oñederra, Jose:** Nació en Elgoibar y vivía en Deba, donde trabajaba como miquelete para la Diputación. Se alineó con la República junto a la Diputación y, en consecuencia, fue llamado a un consejo de guerra y fue condenado a 12 años y un día de prisión. Por ello, fue expulsado de su cargo el 26 de noviembre de 1936<sup>357</sup>.
- **Zulaica Beloqui, Martin:** Era caminero de la Diputación. Vivía en Santuaran con su familia. Estaba afiliado al PNV, y cuando se creó el Ejército Vasco, fue destinado al segundo batallón de ingenieros y estuvo haciendo trincheras y fuertes. Tras ser detenido, estuvo durante un tiempo en un campo de concentración de Bilbo<sup>358</sup>. Fue expulsado de su puesto de trabajo el 13 de marzo de 1937<sup>359</sup>. Fue condenado al destierro, y tuvo que vivir a 30 kilómetros de Deba durante 5 años. Ese tiempo estuvo viviendo en Elgoibar, luego volvió a casa y al tiempo consiguió volver a trabajar como caminero<sup>360</sup>. Tal vez esa sea la razón por la que alguna autoridad de Deba (seguramente el alcalde, pero el documento no está firmado) envió un informe sobre Martín. En él le identifica como una persona de derechas, que en las elecciones de 1936 votó al bloque de derechas. Declara que tras el alzamiento no participó en ningún acto, y que, según él, escapó del pueblo sin ninguna razón por la cercanía de los sublevados. Después, se fue retirando hasta Santander y, una vez allí, logró volver al pueblo sin ningún problema. Según sus palabras, no participo en ninguna acción peligrosa y estaba afiliado a la organización FET-JONS. Seguramente, recuperó su puesto de trabajo a consecuencia de este informe que realizó el Ayuntamiento el 2 de enero de 1942<sup>361</sup>.



Mikeleteak. (Gure Gipuzkoa). /  
Miqueletes. (Gure Gipuzkoa).

<sup>357</sup> Id.

<sup>358</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>359</sup> Aranzadiko Datu Basea. / Base de datos de Aranzadi.

<sup>360</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>361</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

orr.

Aipagarria da Mikeleteen kasua, izan ere, Debakoak ziren kanporatutako Aldundiko langileen kasuetatik bost ziren. Gipuzkoan, Gerra Zibilaren lehen egunetan, 1936ko udan, Mikeleteek ezinbesteko papera izan zuten altxatutako tropen aurrera egitea eragozteko unean. Izan ere, hauen aurkako erresistentzia antolatzeke unean, armen erabilera eta lurraldea ongi ezagutzen zuten indar polizial bat ziren eta frankistei aurre egitea lortu zuen erresistentzia bat antolatzeke gai izan ziren. Horrela, hurrengo asteetan antolatu ziren milizietan goi mailako karguak izan zituzten eta abuztuan Eusko Gudarostea antolatzearekin batera, askok egin zuten hautua bertako kide bilakatzeko.

Gerran izan zuten papera zela eta, altxatuek indar polizial hau desagiteko erabakia hartu zuen, abuztuaren 25an. Horrez gain, behin Bizkaia eta Iparraldeko frontea erorita, epaitegi frankistek errepresio zabala burutu zuten miqueleteak izan zirenen aurka, horietako 302 prozesatuak izan zirelarik<sup>362</sup>.

### Gainontzeko langile publikoak

Diputazioko langileen zerrendan aurkitzen ez ziren, baina beraien jardunagatik kaleratuak izan ziren langileak ere egon ziren Deban.

- **Alcibar Osa, Jose Maria:** Bidezaina zen, Ferrocarriles Vascongadosentzat. Altxatuak herrira iristen zirela ikusita, bertatik ihes egitearen aldeko hautua egin zuen. Denborara itzuli egin zen baina kaleratu egin zuten lanpostutik. Abokatu baten bitartez eta hainbat errekurtsoren ostean, bere postua berreskuratzea lortu zuen<sup>363</sup>.

- **Aizpurua Egaña, Sebastian:** Itziarren jaio eta bertan bizi zen eta Aldundiarentzat bide-langilea zen. UGTko afiliatua, gerra hastearekin batera bere lan esperientzia baliatuz zulatzaile batailoietan jardun zuen. Santanderren preso egin zuten eta 6 urte pasa zituen hainbat espetxe eta kontzentrazio esparruetan<sup>364</sup>. Bere inguruan ditugun datuak bere testigantza pertsonaletik ateratakoak dira. Ez da Gipuzkoako Aldundiko Langileak liburuan agertzen beraz litekeena da ez izatea Diputazioko langilea, baizik eta azpikontratutako enpresaren baitan lan egitea aldundiko enpresaren batean.

### Karabineroak

Karabineroak, Espainiako Estatuko indar polizial-militar bat ziren eta beraien funtzioa muga eta kostalde eremuak zaintzea zen. Horrela, kontrabandoa eta estraperloaren gaineko kontrola eramaten zuten eta iruzur fiskalaren delituaren baitan aurkitzen ziren ekintzak ikertzen zituzten.

Debaren kasuan, kostaldean egonik, karabineroen postu bat zegoen herrian. Bertan, Errepublikak garaitik gatazkak egon ziren, Francisco Sanchez Maciá, Debako postuko karabineroa erbesteratua izan baitzen bere tenientearen salaketa baten ostean. CEDAren biurteko eskuindarrean, herritik pasa zen Indalecio Prieto buruzagi politiko ezkertiarri kasu egiteagatik salatu zuen. Fronte Popularra boterera itzuli zenean, erbestearekin amaitu zuen eta bere postura

Es curioso el caso de los miqueletes porque cinco de los casos de la Diputación eran de Deba. En Gipuzkoa, los primeros días de la Guerra Civil, el verano de 1936, los miqueletes tuvieron un papel importante a la hora de impedir el avance de las tropas sublevadas. Ciertamente, a la hora de organizar la resistencia contra ellos, al ser un cuerpo policial que sabía usar las armas y conocía bien el territorio, fueron capaces de organizar una resistencia que fue capaz de hacer frente a los franquistas. Así, tuvieron cargos superiores en las milicias que se organizaron en las siguientes semanas, y en agosto, cuando se organizó el Ejército Vasco, muchos eligieron hacerse miembros del mismo.

Por el papel que jugaron durante la guerra, los sublevados decidieron hacer desaparecer este cuerpo policial el 25 de agosto. Además, una vez caídos Bizkaia y el frente del Norte, los juzgados franquistas aplicaron una amplia represión contra quienes fueron miqueletes, y 302 de ellos fueron procesados<sup>362</sup>.

### El resto de los empleados públicos

También hubo en Deba trabajadores que fueron despedidos por sus actuaciones, pero no estaban en las listas de trabajadores de la Diputación.

- **Alcibar Osa, Jose Maria:** Era un caminero que trabajaba para Ferrocarriles Vascongados. Al ver que los sublevados estaban a punto de llegar al pueblo, decidió escapar. Al tiempo volvió, pero fue despedido de su puesto de trabajo. Con la ayuda de un abogado, y tras varios recursos, logró recuperar su puesto<sup>363</sup>.

- **Aizpurua Egaña, Sebastian:** Nació y vivía en Itziar, y era caminero de la Diputación. Estaba afiliado al sindicato UGT; al comenzar la guerra, se alistó en los batallones de zapadores por su experiencia laboral. Lo detuvieron en Santander y estuvo durante 6 años en varias cárceles y campos de concentración<sup>364</sup>. Los datos sobre él son los obtenidos de su testimonio personal. No aparece en el libro Trabajadores de la Diputación de Gipuzkoa, 1936 y, por lo tanto, puede que no fuera trabajador de la Diputación, si no que trabajara subcontratado para una empresa de la Diputación.

### Carabineros

Los carabineros eran un cuerpo policial y militar del Estado español, y su función era la vigilancia de las fronteras y las costas. Así, llevaban el control sobre el contrabando y el estraperlo, e investigaban actividades relacionadas con el delito de fraude fiscal.

En el caso de Deba, al ser un pueblo costero, había un puesto de carabineros. Allí, hubo disputas desde la República: durante el bienio derechista de la CEDA, un carabineero del puesto de Deba, llamado Francisco Sánchez Maciá, fue exiliado por una denuncia interpuesta por su teniente, por haber saludado al político izquierdista Indalecio Prieto cuando este pasaba por el pueblo. Cuando el Frente Popular volvió al poder, Francisco también volvió del destierro y a

<sup>362</sup> BUCES CABELLO J. eta QUEREJETA CASARES E., Gipuzkoako aldundiko langileak 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016. / BUCES CABELLO, J. y QUEREJETA CASARES, E.: Trabajadores de la Diputación de Gipuzkoa, 1936 Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 2016.

<sup>363</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>364</sup> Ahotsak.eus proiektua, DEB-026 kodea. / Proyecto: Ahotsak.eus, código: DEB-026.



C. y A. / 942. SAN SEBASTIAN  
Un carabinero



Karabineroa. (Kutxateka). / Carabinero. (Kutxateka).

orr.

itzuli zen<sup>365</sup>. Bere goreneko karabineroa, Sanchis tenientea, altxamenduaren aldekoa izateagatik atxilotua izan zen eta Donostian fusilatu zuten.

Altzatuek, beste indar polizialekin pasa zen bezala, Errepublikari fidel mantendu ziren karabineroen aurka errepresio bortitza gauzatu zuten. Altxamenduaren ostean, herriko karabineroen parte hartze zuzenaren lau kasu daude, hauek altxatuen aurka lerratu ziren eta ondorioz errepresio gogorra pairatu behar izan zuten.

- Melara Huertas, Angel
- Melara Huertas, Juan
- Sanchez Maciá, Francisco
- Martinez Perez, Jose (ikertua, ez dakigu kondenatua izan zen)


Jose Martinez Perezen kasuan, Deban karabineroa zen, Cruz kaleko 5 zenbakian bizi zelarik. Echalarkoa jaiotzez, Evaristo eta Atilanaren semea zen eta 32 urte zituen. Tarragonako Epaitegi Militarrek bere aurkako prozedura bat abiatu zuen eta Debako autoritateei bere gaineko txostenak eskatu zizkien<sup>366</sup>.

su puesto<sup>365</sup>. Su superior, el teniente Sanchís, fue detenido y fusilado en Donostia por ser partidario del alzamiento.


Los sublevados, como hicieron con los otros cuerpos policiales, practicaron una dura represión contra los carabineros que se mantuvieron fieles a la República. Sabemos el caso de cuatro carabineros del pueblo que tras el alzamiento se alinearon activamente contra él, y en consecuencia tuvieron que sufrir una dura represión.

- Melara Huertas, Angel
- Melara Huertas, Juan
- Sanchez Maciá, Francisco
- Martinez Perez, Jose (investigado, no sabemos si fue condenado)

Jose Martinez Perezen kasuan, Deban karabineroa zen, Cruz kaleko 5 zenbakian bizi zelarik. Echalarkoa jaiotzez, Evaristo eta Atilanaren semea zen eta 32 urte zituen. Tarragonako Epaitegi Militarrek bere aurkako prozedura bat abiatu zuen eta Debako autoritateei bere gaineko txostenak eskatu zizkien<sup>366</sup>.



Karabineroen aurka eginiko Gerra Kontseilua, Melara Huertas anaiak epaitu zituztena (AIRMN, 200/37 urgentziako prozedura sumarisimoa). / Consejo de guerra contra los Carabineros, en el que fueron juzgados los hermanos Melara Huertas (AIRMN, procedimiento sumarisimo de urgencia 200/37).



Jose Martinez Perez karabineroaren jakinarazpena (DUA). / Notificación del carabiniero José Martínez Pérez (AMD).

<sup>365</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>366</sup> EAH, sig. Caja 104 N°3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 N° 3 a 5.

### 4.3. ERREPRESIO EKONOMIKOA

Deba, altxatuen kontrolpean geratu zen momentutik bertatik, Errepublikaren alde edota frankistek eratu nahi zuten Estatu Berriaren eta honen baitan antolatutako Mugimendu Nazionalaren aurka agertu ziren pertsona, antolakunde edo instituzioren aurkako errepresio zabal eta orokorra bat egin zuten. Arlo ekonomikoa ez zen salbuespena izan eta beraiek aldarrikatzen zituzten ideien etsaiak ziren pertsonen ondasunak begiz jo zituzten.

Hasiera batean, errepresio mota hau, beste leku askotan bezala era kaotikoan eraman zen aurrera, non agintari eta autoritate lokalek inprobisazioz burutzen zuten hau guztia. Itziar Corostola izan zen lekuko:

*Gu plaza erdian bizi ginen, udaletxearen parean, bertan zeukan okindegia amak. Bertara sartu eta: “¡Viva España!” oihuka jardun zuten. Sartu eta berehala dena konfiskatzen hasi ziren<sup>367</sup>.*

Egoera hau nabaria izaten zen gerra garaian, eta batez ere frontea gertu zegoenean, soldaduek beraiek ere burutzen zituztelarik. Horrela, Deba eta inguruetako baserrietatik animaliak eraman edota janaria hartzea ohikoa izan zen, batez ere oiloak eramaten zituzten. Horrez gain, baserrietan ere kalteak sortzen zituzten, Patxi Altzibar Osak dioen bezala, pikondo bat bota zuten bere baserrian, soldaduek gosea zutelako. Gainera, bere familiari etxean soldaduak artatzera behartu zituzten eta hauek bertan zuten janari guztia jan zuten, ezer gabe utziz<sup>368</sup>.

Hasierako konfiskazio hauek guztiak, herrian altxatuak sartu eta lehen egunetan eman ziren, autoritate frankista berriak ezarri bitartean. Ondoren, jada goian aipatu dugun 1936ko irailaren 13an argitaratu zen 108. dekretua aplikatu zuten, konfiskazio hauek legearen babes guztiarekin egin ahal izateko.

*“Lehen artikulua. Legez kanpokoak izango dira Fronte Popularra delakoa osatu duten alderdi eta talde politiko edo sozial guztiak ... Bigarren artikulua. Aipatutako alderdi edo taldeei dagozkien ondasun, higigarri, higiezin, objektu eta dokumentu guztiak konfiskatuko dira eta Estatuak hartuko du haien jabetza ... Bosgarren artikulua. Operazioen armadetako jeneral buruek edo horien instrukzioak jaso dituzten lanpostuetan eta hemendik aurrera izango dituztenetan, badaezpadako neurriak hartzeko aukera izango dute egindako ekintzengatik mugimendu nazionala delakoaren garaipenari aurka egitearen harira zuzenean edo horren ondorioz eragindako mota guztietako kalte-galeren arduradun zuzen edo mendeko diren pertsonen ondasunen ezkatutze edo desagerrarazteak saiheste aldera”<sup>369</sup>.*

Errepresio ekonomiko mota hau aurrera eramateko, 1937ko urtarilaren 10ean, Estatuak Konfiskatutako Ondasunak Kudeatzeko Batzorde Nazionala eratu zuen. Honek

### 4.3 REPRESIÓN ECONÓMICA

Desde el mismo momento en el que Deba quedó bajo el control de los sublevados, desarrollaron una amplia y generalizada represión contra toda persona, organización o institución que se mostrara a favor de la República, o en contra del Movimiento Nacional o el nuevo Estado que querían crear los franquistas. El ámbito económico no fue una excepción, y pusieron en el punto de mira los bienes de las personas a las que consideraban enemigas de las ideas que ellos proclamaban.

En un principio, como en muchos otros sitios, este tipo de represión se llevó a cabo de una forma caótica, y las autoridades locales lo realizaban todo improvisadamente. Itziar Corostola fue testigo de ello:

*Nosotros vivíamos en medio de la plaza, en frente del ayuntamiento, nuestra madre tenía una panadería allí. Entraban y gritaban: “¡Viva España!”. Entraron y en seguida empezaron a confiscar todo<sup>367</sup>.*

Esta situación era manifiesta en tiempos de guerra y, sobre todo, cuando el frente estaba cerca, porque la represión económica incluso lo realizaban los mismos soldados. Así, era habitual que se llevaran animales, sobre todo gallinas, o comida de los caseríos de Deba y alrededores. Además, creaban desperfectos en los caseríos; tal como dice Patxi Altzibar Osa, en su caserío echaron una higuera porque los soldados estaban hambrientos. Encima, obligaron a su familia a atender a los soldados en su casa, y les dejaron sin nada, porque les habían comido todo lo que tenían<sup>368</sup>.

Todas estas confiscaciones iniciales, se daban en los primeros días en los que entraban los sublevados en el pueblo, hasta que se nombraban las nuevas autoridades franquistas; luego, aplicaban el decreto nº 108 del 13 de septiembre de 1936 antes citado, para poder realizar todas estas confiscaciones bajo el amparo de la ley.

*“Artículo primero. Se declaran fuera de la Ley todos los partidos y agrupaciones políticas o sociales que (...) han integrado el llamado Frente Popular (...) Artículo segundo. Se decreta la incautación de cuantos bienes muebles, inmuebles, efectos y documentos pertenecieren a los referidos partidos o agrupaciones, pasando todos ellos a la propiedad del Estado. Artículo quinto. Los generales jefes de los Ejércitos de operaciones o los de columna o unidad a quienes éstos hayan dado instrucciones al efecto podrán, en las plazas ocupadas y que en lo sucesivo se ocupen, tomar medidas precautorias encaminadas a evitar posibles ocultaciones o desaparición de bienes de aquellas personas que por su actuación fueran lógicamente responsables directos o subsidiarios, por acción o inducción, de daños y perjuicios de todas clases ocasionados directamente o como consecuencia de la oposición al triunfo del movimiento nacional”<sup>369</sup>.*

Para llevar a cabo este tipo de represión económica, el 10 de enero de 1937 se creó la Comisión Central Administradora de Bienes Incautados por el Estado. Tenía una delegación

<sup>367</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.


<sup>368</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>369</sup> BUCES CABELLO J., Gautegez Arteaga 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Gautegez Arteaga, 2017.

orr.

lurralde bakoitzean ordezkari bat eratu zuen eta Deban errepresio prozesu hau eraman zuena Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala izan zen. Batzorde honek, gaur egun ditugun datuen arabera, honako pertsonen aurka burutu zituen konfiskazio prozesuak. Honek ez du esan nahi pertsona hauek guztiak Debakoak zirenik, baizik eta Deban beraien izenean zeuden higiezinak zeudela. Auzitegi honen sententziak, 1939ko martxoaren 7an eman ziren<sup>370</sup>.

en cada provincia y, por lo tanto, en Deba fue la Comisión Provincial de Bienes Incautados de Gipuzkoa la que elaboró el proceso de represión. En base a los datos que disponemos hoy en día, esta comisión realizó confiscaciones contra las siguientes personas. Esto no quiere decir que todas estas personas fueran de Deba, si no que tenían inmuebles a su nombre en esa localidad. Las sentencias de este tribunal se dieron el 7 de marzo de 1939<sup>370</sup>.



Jose Manuel Ostolazaren ondasunak konfiskatzeko dokumentua (DUA). / Documento para confiscar los bienes de José Manuel Ostolaza (DUA).

IZENAK / NOMBRES	ESPEDIENTE ZENBAKIA / NUMERO DE EXPEDIENTE	ENBARGATUTAKO ONDASUNAK / BIENES EMBARGADOS
IRIONDO IRIONDO, MANUEL	708	"Elaiz-burua" bezala izendatutako lursaila / Parcela denominada "Elaiz-burua" "Loreanecua" etxea, Iturkale kaleko 20-22 zenbakiak / Casa "Loreanecua", en la calle Iturkale nº 20-22 Patio bat, ondoko lursailarekin / Un patio con la parcela contigua
LARDIZABAL VALENZUELA, JOSE MARIA	295	Arriola-chiquia baserria, bere izenean dagoen guztiarekin, Arriola auzoko 116. zenbakiduna / Caserío "Arriola-chiquia", nº 116 del barrio Arriola, con todo lo que consta a su nombre
LARRAÑAGA OCARIZ, JOSE	710	Cordeleria kaleko 19. zenbakiko, 4. pisuko etxebizitza / Piso de la cuarta planta en la calle Cordelería nº 19
OSTOLAZA ZABALA, JOSE MANUEL	692	"Ostolaza Fundazioa" aurkitzen den finka guztia, Cordeleria kaleko 20. Zenbakia (70000 pezetatan tasatua) / La finca completa de la "Fundación Ostolaza" en la calle Cordelería nº 20 (tasado en 70000 pesetas) "Amillagakoa" etxearen erdia, Iparkale kalea 20 (55000 pezetatan tasatua) / La mitad de la casa "Amillaga" en la calle Iparkale nº 20 (tasado en 55000 pesetas) Carniceria kaleko 2. zenbakiko etxea / Casa en la calle Carnicería nº 2 3 kontu korrante 16000 pezetako saldoarekin eta 20 udal obligazio (10000 pezeta) / 3 cuentas corrientes con un saldo de 16000 pesetas y 20 obligaciones municipales (10000 pesetas) <sup>371</sup>

<sup>370</sup> AGA.

<sup>371</sup> TRRP, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.2,N.873.

IZENAK / NOMBRES	ESPEDIENTE ZENBAKIA / NUMERO DE EXPEDIENTE	ENBARGATUTAKO ONDASUNAK / BIENES EMBARGADOS
<b>SANSINENEA GOÑI, JUAN MIGUEI</b> <sup>372</sup>	227	"Sacomberri" baserriaren %26a, bere izenean zegoen guztiarekin. Baserría Itziarko Sacona zonaldean zegoen / El 26 % del caserío "Sacomberri", con todo lo que figuraba a su nombre. El caserío estaba en la zona de "Sacona" en Itziar
<b>ULACIA ESNAOLA, CRUZ</b>	709	Cordelería kaleko 14. Etxea. Bertako partaideak izanik bere alarguna Aniceta Esnaola eta Cruz, Tomasa eta María seme alabak. / Casa en calle Cordelería nº 14. Son partícipes de ella, su viuda Aniceta Esnaola y sus hijos Cruz, Tomasa y Mariak <sup>373</sup> Frontoiko garajea eta bertan zegoen obretako materiala / El garaje del frontón y el material de obra que había allí <sup>374</sup>
<b>VITORIA ECHEVARRIA, ROQUE</b>		Ondasun guztiak konfiskatuak / Todos los bienes confiscados <sup>375</sup>

Juan Miguel Sansinenea, tolosakoa bazen ere, ondasunak zituen Deban eta hauek bahituak izan ziren, erbesterratu egin baitzen Ipar Euskal Herrira. Bere bizitokia Lapurdiko Sara herrian ezarri zuen eta han osasun arloan lan egin zuen<sup>376</sup>. 1940ko ekainean itzuli zen eta Erantzukizun Politikoen Tribunalak ez zuen inolako kausa justifikaturik ikusi urte horiek atzerrian igartzeko eta horregatik 9000 pezetako isuna ezarri zion<sup>377</sup>.

Puntu honetan, aipu berezi bat egin nahi diogu Roque Vitoria jaunari, Defentsa Batzordeko kidea, abuztuan Ruiz Albeniz medikuari abisua pasa zion, atxilotzeko arriskuan zegoela esanez. Laguna eta ezaguna zuen Hotel Devako tertulietatik. Ruiz jauna, gaixoarena egin zen eta Iriondo hotelean zaintzapean izan zuten. Altxatuen aurrerakadaren ondorioz, Ingalaterrara erbesteratu zen eta irla horretan familiak zuen negozio bat kudeatzen jardun zuen. Defentsa Batzordean bere parte hartzea zela eta, ondasun guztiak konfiskatu zizkioten. Ruiz Albeniz jaunak, gerra ostean, bere itzulera kudeatu eta ondasunak itzularazteko laguntza eskaintzen zion eskutitz bat bidali zion. Hala ere, Roque ez zen 1950 arte itzuli, gobernu frankistak Espainiako Estatura itzulera onartu zion arte, baina Debatik pasatzeko debekuekin. Bere familiarekin egon ostean, Ingalaterrara itzuli zen berriro eta gutxira biotzeko bat eman eta hil egin zen<sup>378</sup>.

Goian aipatzen direnak, gaur egunera arte iritsi den dokumentazio historikoetan aurkitzen diren konfiskazioetatik eratorritako izenak dira. Izan ere, Gipuzkoan eratu zen Ondasunen Konfiskaziorako Epaitegi Bereziak, beste hainbat herritar ikertu zituen.

Hau ez zen izan arlo ekonomikoko errepresioa aurrera eramateko bide bakarra, tribunal hauetatik kanpo, ondasunen gaineko konfiskazioak edota beste mota batzuetako errepresio ekonomikoa egon zen. Horrela, errepresioaren beldur ziren eta altxatuen tropak iristear zeudela ihes egin zuten familia batzuen ondasunak konfiskatuak izan ziren. Gainera, hutsik zeuden hainbat lokal, negozio eta etxebi-

Juan Miguel Sansinenea, aunque era de Tolosa, tenía bienes en Deba y estos le fueron embargados, pues se había exiliado a Iparralde. Estableció su vivienda en Sara y trabajó en el ámbito de la sanidad<sup>376</sup>. Volvió en junio de 1940, el Tribunal de Responsabilidades Políticas no vio ninguna causa justificada para su huida y le impuso una multa de 9000 pesetas<sup>377</sup>.

Llegados a este punto, tenemos que hacer una mención especial sobre el señor Roque Vitoria. Roque, siendo miembro de los Comités de Defensa, avisó en agosto al médico Ruiz Albeniz de que estaba en riesgo de detención. Lo conocía y era amigo de las tertulias del Hotel Deva. El señor Ruiz se hizo el enfermo y estuvo bajo custodia en el Hotel Iriondo. Debido al avance de los sublevados, Roque se exilió a Inglaterra y se dedicó a gestionar un negocio que tenía allí la familia. Le fueron confiscados todos sus bienes por ser miembro de los Comités de Defensa. Tras la guerra, el señor Ruiz gestionó su regreso y le envió una carta ofreciéndole ayuda para que le fueran devueltos sus bienes. Sin embargo, Roque no volvió hasta 1950, hasta que el gobierno franquista autorizó su regreso al Estado español, pero con la prohibición de entrar en Deba. Tras estar con su familia, volvió a Inglaterra, y al de poco murió a causa de un infarto al corazón<sup>378</sup>.

Los arriba mencionados, son nombres desprendidos de las confiscaciones que se encuentran en la documentación histórica que ha llegado hasta nuestros días. Ciertamente, el Tribunal Especial de Incautación de Bienes que se creó en Gipuzkoa investigó a otros muchos conciudadanos.

Ese no fue el único modo de llevar a cabo la represión económica; fuera de esos tribunales hubo confiscaciones de bienes u otros tipos de represión económica. Sobre todo fueron bienes de familias que por miedo a la represión huyeron del pueblo cuando las tropas sublevadas estaban a punto de llegar. Además, fueron saqueados muchos locales, negocios y viviendas que estaban vacíos. Las autorida-

<sup>372</sup> AGA. Sección Justicia (7) 50 Libro 199 Top 25/00.

<sup>373</sup> AGA.

<sup>374</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>375</sup> GARCIA ELOSUA E., Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

<sup>376</sup> ERRAZKIN AGIRREZABALA M., Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkarte, Tolosa, 2013.

<sup>377</sup> TRRP, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS, Lb.3.N.1191.

<sup>378</sup> GARCIA ELOSUA E., Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

orr.

zitza arpilatuak izan ziren. Hango ondasunak, autoritateek beraien jardunerako edota gerra esfortzua finantzatzeko erabiltzen zituzten. Beste asko, altxatuen aldeko pertsonen ondasun pertsonalak izatera pasa ziren. Horren adibide da Asuncion Iriondoren testigantza, non bere familiaren etxea konfiskatu zuten, bertako ondasun guztiekin<sup>379</sup>.

des usaban los bienes que encontraban en ellos para uso propio o para financiar el esfuerzo de guerra. Otros muchos pasaron a ser bienes personales de personas afines al alzamiento. Un ejemplo de ello lo encontramos en el testimonio de Asunción Iriondo, que le confiscaron la casa de su familia con todas las pertenencias<sup>379</sup>.

**JUZGADO ESPECIAL N.º 1**  
DE  
**INCAUTACION DE BIENES**  
DE LA  
**PROVINCIA DE GUIPÚZCOA**

En expediente n.º --- que se instruye por este Juzgado Especial para declarar administrativamente la responsabilidad civil que proceda exigir a Don

Jose Joaquin Uranga Arruti, n.º 1377  
 X Rafael Aguirregaviria Irigoyen, n.º 1378  
 X Jose Maria Urbieta Egaña, n.º 1379  
 X Javier Aguinagalde Unanue, n.º 1380  
 X Marcelino Egaña Arancibia, n.º 1381  
 X Lazaro Ulacia Arcocha, n.º 1382  
 X Francisco Osa Alcibar, n.º 1383  
 X Juan Ulacia Arcocha, n.º 1384  
 X Ignacio Esmola Elosua n.º 1385  
 vecinos de Deva

en proveido de esta fecha he acordado dirigir a V. la presente a fin de que con las formalidades legales se proceda a citar a los expresados Srs. de comparecencia en este Juzgado Especial sito en los locales de la Audiencia Provincial de esta Ciudad, el día 5 de junio y hora 10 mañana y caso de no hallarse en esa se manifieste fecha en que se ausentó y a donde se cree lo hizo.

Sírvase V. devolver urgentemente la presente orden cumplimentada sin dar lugar a recuerdos.


Dios guarde a V. muchos años.

San Sebastián a 28 de enero de 1939.

III AÑO TRIUNFAL

*Se interesa envíe por separado las diligencias de citación para su unión al expediente respectivo.*  
*Quen furruntak da*

**Sr. Juez Municipal de DEVA.-**



Ondasunen Konfiskaziorako batzordeak ikertutako debar batzuen zerrenda. (DUA). / Lista de debarras investigado por la Comisión de Bienes Incautados. (AMD).

“Ez genuen etxerik. Konfiskatua zegoen dena, etxe guztia. Esaten zuen amak 13 koltxoi zeudela zilarrezko mahai-tresna eta guzti. Tabernan gordetzen zituzten gauza guztiak ere etxean genituen. Etxe guztia konfiskatu zuten. Ni gogoratzen naiz etxeaz, dena gaizki harrapatu genuen, egur guztiak eta txarto laga zituzten eta grifo bat zabalik apropos utzi zuten. Denbora bat etxera sartu gabe egon ginen ... hiru urte”.

“No teníamos casa. Estaba confiscado todo, toda la casa. Decía la madre que había 13 colchones, cubiertos de plata y todo. Todas las cosas que guardaban en el bar las tenían también en casa. Confiscaron toda la casa. Me acuerdo de la casa, todo lo encontramos mal, todas las maderas y demás las dejaron mal y dejaron un grifo abierto a propósito. Estuvimos un tiempo sin entrar a casa... tres años”.

<sup>379</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.


Etxeko ondasunak konfiskatu zizkietenak familien zerrenda:

Lista de familias a las que les confiscaron los bienes de la casa:

IZENAK / NOMBRES	KONFISKAZIOA / CONFISCACIÓN
<b>ALTZIBAR SORAZU, FAMILIA</b>	Etxebizitza eta altzariak konfiskatu. / La casa y los muebles.
<b>ARRIZABALAGA ALBERDI, FAMILIA</b>	Soldaduek etxeko oiloak eta arraultzak eraman zieten behin baino gehiagotan. / Los soldados se llevaron las gallinas y los huevos de casa más de una vez.
<b>ARRONA SALEGUI, FAMILIA</b>	Etxeko oilo guztiak hil eta eraman altxatuen soldaduek. / Los golpistas mataron todas las gallinas y se las llevaron.
<b>COROSTOLA SALEGUI, PETRA</b>	Isun ekonomikoa abertzalea zelako. / Sanción económica por ser abertzale.
<b>DEBA ALBIZURI, JULIA</b>	Josteko makina. / La máquina de coser.
<b>EGAÑA ALBERDI, FAMILIA</b>	Irailak 23an soldadu frankistek etxea sakeatu. / El 23 de septiembre los soldados franquistas les saquearon la casa.
<b>ELOSUA COROSTOLA, FAMILIA</b>	Etxeko ondasunak, ez zituzten inoiz berreskuratu. / Los bienes de casa; nunca los recuperó.
<b>IRIONDO LIDERDABURU, FAMILIA</b>	Taberna eta etxeko ondasun guztiak. Iturri bat irekita utzi eta etxea kaltetu. / Todos los bienes del bar y de casa. Dejaron un grifo abierto y la casa dañada.
<b>IRIONDO MENDIZABAL, FAMILIA</b>	Etxea konfiskatu. / La casa.
<b>LIZARZABURU IRIONDO, LEOCADIO</b>	500 pezetako dohaintza burutu behar izan zuen herrira itzultzean. / Tuvo que hacer una donación de 500 pesetas al volver al pueblo.
<b>MARQUIEGUI ARRIOLA, FAMILIA</b>	Bizi ziren txaleta konfiskatu. / El chalet donde vivían.
<b>MARTIJA ALDALUR, JOSE</b>	2000 pezetako isuna Autoritate Militarrak herrira itzuli zenean. / La autoridad militar le impuso una multa de 2000 pesetas al volver al pueblo.
<b>RIESGO MAYO, FRANCISCO</b>	Kontu korronteko diru guztia konfiskatu. / Todo el dinero de la cuenta corriente.
<b>RIESGO OÑEDERRA, FAMILIA</b>	Etxea eta ondasunak. Ondasunak berreskuratu, etxea ez. / La casa y sus bienes. Recuperaron los bienes, la casa no.
<b>URQUIRI, SILVERIO</b>	Eraikitzen ari zen hotela konfiskatu. / El hotel que estaba construyendo.

Herrian berau burutzeko, Junta de Requisa deiturikoa eratu zen, "abandonatutako" ondasunak biltzeaz arduratu zen, hots, herritik ihes egin behar izan zuten pertsona eta familien ondasunak. Ondasun hauek kudeatzeaz arduratu ziren, asko eta asko desagertu egin zirelarik, altxatuen aldeko etxe eta lokaletan amaitu zutelarik.

Para realizar esto en Deba, se creó una junta de requisas. Se encargaba de recoger los bienes "abandonados", es decir, bienes de las personas y familias que tuvieron que huir del pueblo. Se encargaron de gestionar esos bienes, pero muchos de ellos desaparecieron y terminaron en viviendas y locales de personas afines a los sublevados.



Tropak herrira sartu zirenean, autoritate frankistei burutu zitzaizkien donazioak. (bua). / Donaciones realizadas a las autoridades franquistas cuando las tropas entraron al pueblo. (AMD).

orr.

Iriondo Mendizabal familiari dagokionez, herritar baten salaketa zela eta, etxea konfiskatu zioten, etxe gabe geratuz. Horrez gain, hainbat salaketa jaso zituzten, etxean egiten zuten sagardoaren egoera txarra edota animalien gaineko kexekin. Ondorioz, herriko epailea, Jose Maria Eizaguirre Mendicute eta farmazilariak etxea behin baino gehiagotan miatu zieten<sup>380</sup>.

Carmen Riesgo Oñederraren familiari, etxea eta ondasunak konfiskatu zizkieten, etxea Itziarko baseritarren kuartel bezala ezarri zutelarik. Udalak ez zizkien altzariak itzuli nahi eta Zarauzko komandantziara joan behar izan ziren hauek eskatzera. Altzariak berreskuratu bazituzten ere, etxea ez zuten inoiz berreskuratu eta beste etxebizitza batera bizitzera joan behar izan ziren. Bere aita Francisco Riesgo Mayori kontu korrontean zuen diru guztia konfiskatu zioten<sup>381</sup>. Silverio Urquiri jaunaren kasuan, Urquiri Hotelaren jabea zen, herrira etortzen zen udatarrei zerbitzua ematen ziena. Obretan zegoen berria egiten eta altxamendua eman zenean, "Pro-avion" kanpainaren alde jardun zuen, hau da, Eusko Jaurlaritzaren aldeko abiazio batentzako kapital ekonomikoa lortze aldera sortu zen kanpainan. Gerraren bilakaera zela eta, Belgikara erbesteratu behar izan zen. Udalak, Silverioren eraikuntza konfiskatu zuen, abandonatu egin zuela argudiatuz. Hasiera batean altxatuek kuartel moduan erabili zuten eta udalak almatzen bezala erabili zuen ostean, hainbat material gordetzeko (tartean autoritate frankista berriek konfiskatzen zituzten ondasunak). Horrez gain, gerra ostean, Falangeko Sección Femenina antolakundeko emakumeak etortzen ziren hotelean uda pasatzera. Antolakunde hau, frankismoan emakumeek parte hartu zezaketen antolakunde bakarra izan zen eta bere helburua,

En lo que se refiere a la familia Iriondo Mendizabal, les confiscaron la casa por una denuncia de un vecino. Además, recibieron varias denuncias con quejas sobre la mala calidad de la sidra que hacían o de los animales que tenían en casa. En consecuencia, el juez del pueblo, José María Eizaguirre Mendicute, y el farmacéutico inspeccionaron más de una vez su casa<sup>380</sup>.

A la familia de Carmen Riesgo Oñederra le confiscaron la casa y los bienes, y la casa la usaron como "cuartel de los baserritarras" de Itziar. El Ayuntamiento no les quería devolver los muebles y tuvieron que ir a la comandancia de Zarauz a reclamarlos. Aunque recuperaron los muebles, la casa no la recuperaron nunca y tuvieron que ir a vivir a otra vivienda. A su padre Francisco Riesgo Mayo le confiscaron todo el dinero que tenía en su cuenta corriente<sup>381</sup>. A continuación mencionaremos el caso de Silverio Urquiri, dueño del Hotel Urquiri, que ofrecía sus servicios a los veraneantes que iban a Deba. Cuando se dio el alzamiento estaba construyendo un nuevo hotel. Entonces, participó en la campaña "Pro-avión", que buscaba conseguir capital económico para una aviación para el Gobierno Vasco. Debido al desarrollo de la guerra, tuvo que exiliarse a Bélgica. El Ayuntamiento confiscó el edificio de Silverio, argumentando que lo había abandonado. Al principio los sublevados lo utilizaron como cuartel, y más tarde, el Ayuntamiento lo usó como almacén para guardar material diverso (entre otros, bienes que confiscaban las nuevas autoridades franquistas). Además, tras la guerra, venían a pasar el verano las mujeres de la Sección Femenina de la Falange. Esta organización era la única en la que podían participar las mujeres durante el franquismo,



Silverio Urquiriren hotela, gerraostean (Kutzateka). / El hotel de Silverio Urquiri tras la guerra. (Kutzateka).

<sup>380</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>381</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.



emakumen artean erregimenarekiko atxikimendua garatzea zen, espainiar nazional-katolizismoa sustatuz. Deban, uda pasatzen zuten, Urquiriren hotela zenean, bertan egunero gimnasia egiten zutelarik espainiako banderekin<sup>382</sup>. Silverio urte gutxitara hil egin zen, baina beraien seme-alabek, auzia izan zuten udalarekin beraienak ziren ondasunak berreskuratzeko eta kalte ordainak eskatzuz<sup>383</sup>. Beste ondasun bat Marquieguitarren txaleta bezala aipatzen dena da. Udalak, Marquiegui Arriola sendiarekin negoziatzen saiatu zen bertatik onurak ateratzeko<sup>384</sup>.

y su objetivo era desarrollar la adhesión de las mujeres por el régimen, promoviendo el nacionalcatolicismo español. Pasaban el verano en Deba, en el hotel Urquiri, y todos los días hacían gimnasia con la bandera española<sup>382</sup>. Silverio murió a los pocos años, pero sus hijos tuvieron un pleito con el Ayuntamiento porque querían recuperar sus bienes y pedían indemnizaciones<sup>383</sup>. Otro bien que se menciona es el chalet de los Marquiegui. El Ayuntamiento intentó negociar con la familia Marquiegui Arriola para conseguir beneficios<sup>384</sup>.



**Sección Femenina Deban.** (GFA, Indalecio Ojanguren). / **La Sección Femenina en Deba.** (DFG, Indalecio Ojanguren).

<sup>382</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>383</sup> DUA signatura gabe. / AMD, sin signatura.

<sup>384</sup> EAH, DUA, 0079, 161 folioa. / AHE, AMD, 0079, f. 161.

orr.

Junta hau, 1939ko abendurako desegina zegoen jada, baina berak pilatutako ondasunak zeuden herrian oraindik. Gobernadore zibilaren aginduz, beraien jabe edota familiek hilabeteko epea zuten hauek erreklamatzeko, epe honetarik aurrera, udalak arropak, koltxoiak eta mantak Ospitaleari emango zizkion eta gainontzekoa enkantean salduko zen<sup>385</sup>. Asuncion Iriondoren kasuan, etxeko erloju baten bila joan behar izan ziren udaletxera<sup>386</sup>.


Errepresio ekonomikoaren beste mota bat, altxatuengandik ihes egin eta herrira itzultzen ziren pertsonen aurka abiatzen zirenak izan ziren. Horrela, beraien egoera normalizatzeko aldera, diru kopuru bat eskatzen zitzaizkien, isun edota dohaintza moduan agertzen zena. Horrela, dakigunez behintzat, Leocadio Lizarzaburu jaunak 500 pezetako dohaintza bat burutu behar izan zuen eta Jose Martijari berriz, Autoritate Militarrak 2000 pezetako isuna jarri zion herrira itzuli zenean.

Konfiskatutako ondasunak, udala urteetan zehar pilatu joan zen. Izan ere, hauek erreklamatzeko ezartzen zituzten oztopoez gain, altxamendua zela eta, bizia galdu zuten edota erbestera joan ziren debar ugari aurkitzen ziren. Gobernu Zibilarerkin hitz egin ostean 1940ko martxoaren 30ean, erreklamatu gabe zeuden ondasunak enkante bidez saltzeko erabakia hartu zuen Udalak, salerosketa irmo bilakatuko zuelarik ekainaren 8an. Bertan partaide bakarra egon zen, Nicolas Rementeria, nork 900 pezeta ordaindu zituen ondasun guztiengatik<sup>387</sup>.

Esta Junta estaba disuelta para diciembre de 1939. Los bienes acumulados todavía seguían en el pueblo y, por orden del gobernador civil, sus dueños o familias tenían un mes para reclamarlos. A partir de esa fecha, el Ayuntamiento daría las ropas, colchones y mantas al hospital, y lo restante se vendería en encante<sup>385</sup>. Aquí tenemos que mencionar el caso de Asunción Iriondo, que tuvo que ir al ayuntamiento en busca de un reloj de su casa<sup>386</sup>.

Otro tipo de represión económica, era el que se hacía contra las personas que habían huido de los sublevados y habían vuelto al pueblo. Así, para "normalizar" su situación, se les pedía una cantidad de dinero que aparecía como multa o donación. De ese modo, que sepamos, el señor Leocadio Lizarzaburu tuvo que hacer una donación de 500 pesetas y, por otro lado, a José Martija la autoridad militar le impuso una multa de 2000 pesetas cuando volvió al pueblo.

El Ayuntamiento fue acumulando durante años los bienes confiscados. De hecho, además de las trabas que ponían para poder reclamarlos, había muchos debarras que murieron o tuvieron que ir al exilio debido al alzamiento, y sus bienes se quedaban allí. Tras hablar con el Gobierno Civil, el 30 de marzo de 1940 el Ayuntamiento tomó la decisión de vender mediante encante los bienes que no habían sido reclamados. La compraventa se hizo firme el 8 de junio. Solo hubo un participante, Nicolás Rementería, que compró todos los bienes pagando 900 pesetas<sup>387</sup>.



Konfiskatutako ondasunen enkantea (DUA). / Encante de bienes confiscados (AMD).

<sup>385</sup> EAH, DUA, 0079, 147 folioa. / AHE, AMD, 0079, f. 147.

<sup>386</sup> Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

<sup>387</sup> EAH, DUA, 0079, 187 folioa. / AHE, AMD, 0079, f. 187.

## Erantzukizun politikoaren tribunalak

Orain arte, arlo ekonomikoko errepresio hau, gerra garaian garatu zela esan da, baina beraz ez zen eten Gerra Zibila amaitzearekin batera. 1939ko otsailaren 9an, gerra amaitzear zegoela, jurisdikzio berezi bati hasiera eman zitzaion, Erantzukizun Politikoaren Legea deiturikoa. Lege honen helburua, gerra ostean Estatu Espainiar guztian zehar Errepublikaren baitan jardun politikoren bat izan zuen pertsona ororen aurkako errepresioa hedatzea zen eta "subertsioa indartzen lagundu zutenen erruak kitatzea"<sup>388</sup>. Horretarako, auzitegi bereziak sortu ziren, Gipuzkoako herriez arduratu zena Iruñean (Nafarroa) kokatu zelarik, Erantzukizun Politikoaren Lurralde Tribunalaren izenarekin ezagutuko zena. Bertan, Espainiako Armada, magistratura eta FET-JONS antolakundeko kideak zeuden ordezkatuak. Auzitegi honen sententziak, izaera bereizgarri bat dute, atzeraeraginezkoak zirela. Hau da, nahiz eta epaitua izaten ari zen pertsona jadanik hilik egon, non aurkitzen zen ez jakin edo bere egoera ez ezagutu, epaitua izango zen eta epaia betetzearen ardura bere familiaren gain eroriko zen. Tribunal hau, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala ordezkatzear arduratu zen. Herrian, ondasun kopuru batetik gorako pertsona guztiak ikertzeko agindua eman zuen, beraien aurrekariaren arabera epaituak izan zitezkeen<sup>389</sup>. Auzitegi honek ematen zituen epaiak, hiru ardatz nagusitan mugitzen ziren, zigor ekonomikoa alde batetik, lanpostu publiko bat burutzeko ezgaitzeak bestetik eta deserriatzeak azkenik.

## Tribunales de responsabilidad política

Hasta ahora se ha solido decir que esta represión de ámbito económico se desarrolló durante la guerra, pero realmente no se interrumpió con el fin de la Guerra Civil. El 9 de febrero de 1939, estando la guerra a punto de terminarse, empezó a aplicarse una nueva jurisdicción especial: la Ley de Responsabilidades Políticas. El objetivo de esta ley era extender la represión en la posguerra, a todo el Estado español, y contra toda persona que hubiera tenido alguna actividad política durante la República, "(...) que sirva para liquidar las culpas de este orden contraidas por quienes contribuyeron con actos u omisiones graves a forjar la subversión..."<sup>388</sup>. Para ello, se crearon tribunales especiales. El que se encargaba de los pueblos de Gipuzkoa estaba en Iruñea y se llamaba Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas." Allí estaban representados miembros del Ejército Español, la magistratura y la FET-JONS. Las sentencias de este tribunal tienen una naturaleza característica, pues eran de efecto retroactivo, y por lo tanto, aunque la persona juzgada estuviera muerta o no se supiera dónde estaba, o cual era su situación, sería igualmente juzgada y la responsabilidad de cumplir la sentencia recaería sobre la familia. Este Tribunal sustituyó a la Comisión Provincial de Bienes Incautados de Gipuzkoa. En Deba, se dio la orden de investigar a todas las personas con cierta cantidad de bienes para arriba, para que fueran juzgados según sus antecedentes<sup>389</sup>. Las sentencias que daba este tribunal tenían tres ejes principales, sanción económica, inhabilitación para un puesto de trabajo público y el exilio.



Epaitegiek Debako autoritateei bidalitako informazio eskaera (DUA). / Petición de información de los juzgados a las autoridades de Deba (AMD).

<sup>388</sup> Estatuko Buletin Ofiziala, 44 zenbakia, 1936/02/13, 824-827 orrialdeak. / Boletín Oficial del Estado, nº 44, p. 824-827, 13/02/1936.

<sup>389</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.


orr.

Debarren kasuan, gutxienez 41 pertsona ikertuak izan ziren Erantzukizun Politikoen Tribunalen aldetik, batzuk Bizkaian ere epaituak izan zirelarik. Deigarria da, ondasunen irizpidea soilik erabili zutenez, altxamenduaren aldeko pertsonak ere ikertuak izan zirela, Jose Elosua Garate edota are deigarriagoa, Fernando del Valle Lersundi esaterako. Azken hau Debako alkate frankista izan zen urte batzuetan eta Compañía Tradicionalistako ordezkaria herrian.

Horrez gain, ikertutako batzuen kasuan, zerrendako batzuk debarrak ez izatearen kasua eman daiteke, urte horietan Deban bizi zirelako gehitu baitira. Izan ere, deserriratuak zeuden Debara, Manuel Morales Montes de Ocaren kasuan bezala, Las Palmaseko tribunalak ikertu zuen Manuel<sup>390</sup>.

Por lo menos 41 debarras fueron investigados por el Tribunal de Responsabilidades Políticas, y algunos fueron juzgados en Bizkaia. Como solo usaron el criterio de los bienes, llama la atención que también investigaran a personas afines al alzamiento, por ejemplo a José Elosua Garate; también resulta muy llamativo el caso de Fernando del Valle Lersundi, el que fuera durante unos años alcalde franquista y representante de Compañía Tradicionalista de Deba.

Además, en el caso de algunos investigados, puede darse que no fueran debarras y que durante esos años vivieran en Deba, porque estaban desterrados, como es el caso de Manuel Morales Montes de Oca, que estaba siendo investigado por el tribunal de Las Palmas<sup>390</sup>.



Tribunalak ikertzeko pertsonen datuak eskatu udalari. (DUA). / Petición de datos al ayuntamiento para que los investigara un tribunal. (AMD).

ERANTZUKIZUN POLITIKOEN TRIBUNALAK IKERTUTAKO DEBAKO PERTSONAK /  
PERSONAS DE DEBA INVESTIGADAS POR EL TRIBUNAL DE RESPONSABILIDADES POLÍTICAS

IZENAK / NOMBRES	IKERTZEN DUEN TRIBUNALA / TRIBUNAL QUE LO INVESTIGA	SENTENTZIA / SENTENCIA
AGUINAGALDE AIZPURUA, LUCIO	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
AGUIRRE AIZPURUA, JOSE MARIA	Gipuzkoa	
ALCIBAR IRIONDO, CARLOS	Gipuzkoa	Kondenatua, 50 pta / Condenado, 50 pesetas
AMILIBIA MACHIMBARRENA, JULIAN	Nafarroa / Navarra	Kondenatua, ondasun guztiaren galera eta 15 urteko deserriratzea. / Condenado; pérdida de todos los bienes y 15 años de destierro.
ANDONEGUI BERISTAIN, JAVIER	Gipuzkoa	Ikertua / Investigado
ANSOLA IRIONDO, PEDRO	Valladolideko epaitegi Militarra / Juzgado militar de Valladolid	3000 pezetako isuna. Servicio de Automovilismo de Valladoliden soldadu da. / Multa de 3000 pesetas. Soldado en Servicio de Automovilismo de Valladolid.

<sup>390</sup> Id.

IZENAK / NOMBRES	IKERTZEN DUEN TRIBUNALA / TRIBUNAL QUE LO INVESTIGA	SENTENTZIA / SENTENCIA
ANTIA ULACIA, ESTEBAN	Nafarroa / Navarra	Artxibatua / Archivado
ASTIGARRAGA MENDIZABAL, FERMIN		
BERASALUCE AGUINAGALDE, JOSE	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
DEL VALLE LERSUNDI, FERNANDO	Nafarroa / Navarra	Inkulpatua / Inculpado
ECHEVERRIA GALDOS, FERMIN	Nafarroa / Navarra	Ikertua, ondasunik gabea / Investigado; sin bienes
EGAÑA ALBERDI, MARCELINO	Nafarroa / Navarra	Inkulpatua / Inculpado
EGAÑA ARANCIBIA, MARCELINO	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
EGAÑA URBIETA, ANTONIO	Araba / Alava	Artxibatua / Archivado
ELOSUA GARATE, JOSE	Nafarroa / Navarra	Artxibatua / Archivado
ESNAOLA ELOSUA, IGNACIO	Gipuzkoa	
FERNANDEZ IRIONDO, JOSE	Nafarroa / Navarra	Artxibatua / Archivado
GASTIAIN ARRIETA, PEDRO	Gasteiz / Vitoria	
GOMEZ ELORRIAGA, JESUS	Bizkaia	Artxibatua. Deban preso aurkitzen zen. / Archivado Estaba preso en Deba.
GONZALEZ ALONSO, MARIA	Bizkaia	Gerra kontseiluan epaitua. / Juzgada en consejo de guerra.
GONZALEZ MARTIN, AGUSTIN	Araba / Alava	Arabako lehen epaitegi militarrek prozedura irekia bere aurka eta aurkezteko eskatu. Espetxealdi arinduan aurkitzen da Lasao Txiki baserrian bizitzen. / El primer juzgado militar de Araba tiene abierto procedimiento contra él y le pide que se presente. Vive en el caserío Lasao Txiki en situación de prisión atenuada.
IRIONDO IRIONDO, MANUEL	Nafarroa / Navarra	
LAFUENTE MAÑOSO, ISAAC	Bizkaia	
LARRINAGA LEJARDI, JUAN	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
LAZCANO GOROSTOLA, FRANCISCO	Gipuzkoa	Ez da agertzen, erbestean dago. / No aparece, está en el exilio.
LETE OREGUI JUAN JOSE	Gipuzkoa	Nafarroan epaitua. / Juzgado en Nafarroa.
LIZARZABURU LASA, FRANCISCO		Artxibatua / Archivado
LIZARZABURU IRIONDO, LEOCADIO	Nafarroa / Navarra	
LOMBIDE SAN MARTIN, JOSE MARIA	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
MARTIJA ALDALUR, JOSE		
MINTEGUI URIGUEN, RUPERTA	Bizkaia	1904 zenbakidun sententzia. / Sentencia nº 1904.
MORALES MONTES DE OCA, MANUEL	Las Palmas	Las Palmaseko tribunalak bere deklarazio bat eskatu. Baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen Deban. / El tribunal de Las Palmas pide una declaración suya. Estaba en libertad condicional en Deba..
ODRIOZOLA BASURTO, JOSE	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
OSTOLAZA ZABALA, JOSE MANUEL	Nafarroa / Navarra	Kondenatua / Condenado
RIESGO ANSOLA, FRANCISCO	Nafarroa / Navarra	Kondenatua / Condenado
RODRIGUEZ EPELDE, MANUEL	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
SALEGUI GARICAECHEVERRIA, JUAN	Nafarroa / Navarra	Kondenatua / Condenado
SAN EMETERIO BODIN, ESTEBAN	Gipuzkoa	Bere gaineko informea eskatu zuten tribunalek herriari. / Los tribunales pidieron un informe sobre él al pueblo.
SENOSIAIN MARTINEZ DE GOÑI, BENEDICTO	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
URBIETA EGAÑA, JOSE MARIA	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado
VITORIA ECHEVERRIA, ROQUE	Gipuzkoa	Artxibatua / Archivado



Zerrenda honetan, Errepublikara garaiko udal zinegotzi bat aurkitzen da, Marcelino Egaña Arancibia. 43 urte zituen (1937) eta ezkondua zegoen. Ofizioz merkataria zen. Arlo ideologikoan, EAJko kide nabarmena izan zen herrian eta

En esa lista, encontramos a un concejal de la época republicana: Marcelino Egaña Arancibia. Tenía 43 años (1937) y estaba casado. Era comerciante. Ideológicamente, era un miembro destacado del PNV y fue miembro de la corporación

Orr.

udalbatzako kidea izan zen<sup>391</sup>. Bertan, pisu nabarmena izan zuen, alkateorde karguaz arduratu baitzen Errepublikara iratzen. Altxatuen tropak herria hartu zutenean, Bizkaira ihes egin zuen eta bertan Debako Udala erbestean mantentzeaz arduratu zen kideetako bat izan zen, alkateorde kargua mantenduz. Bilbotik Santanderrera eta azkenik Asturiasera lekualdatu zen, frankisten aurrerabidea zela eta. Iparraldeko Frontea erortzeaz zela, Frantziako Estatura ebakuatu zuen. 1941eko urriak 31ean, Iruñeko Erantzukizun Politikoen Tribunalak prozesatu egin zuen, bere gainerako txosten bat eskatu udalari. Honen erantzuna, Antonio Termino Guardia Zibilarren postuko komandanteak idatzi zuen, azpimarratzen herriko altxatuen aldeko zirenen defentsan jardun zuela<sup>392</sup>. Hau izan daiteke kausa, nahiz eta zinegotzi izan, inolako epaiketara edota espetxealdirik ez izateko. Badirudi kausa artxibatu egin zitzaiola ere, ez baita inolako sententziarik agertzen.

municipal<sup>391</sup>, teniendo un peso notable en él, ya que ostentó el cargo de teniente alcalde durante la República. Cuando las tropas sublevadas tomaron Deba, fue evacuado a Bizkaia, y fue uno de los encargados (mantuvo el cargo de teniente alcalde) de mantener el Ayuntamiento de Deba en el exilio. Por el avance de los franquistas se fue de Bilbo a Santander y al final a Asturias. Cuando estaba el Frente del Norte al caer, fue evacuado al Estado francés. El 31 de octubre de 1941, fue inculcado por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas de Iruñea, el cual pidió un informe al Ayuntamiento de Deba. La respuesta la escribió Antonio Termino, comandante del puesto de la Guardia Civil, resaltando que anduvo defendiendo a los que eran afines a los sublevados en el pueblo<sup>392</sup>. Esa pudo ser la razón por la que, aunque había sido concejal, no sufriera ningún juicio ni encarcelamiento. Parece que también fue archivada la causa, ya que no aparece ninguna sentencia.



Marcelino Egaña Arancibia jaunaren gainerako ikerketa eskaera eta erantzuna (DUA). / Petición de investigación, y respuesta, sobre el señor Marcelino Egaña Arancibia. (AMD).

Guztira, tribunal hauek, 15 pertsona kondenatu zituzten, debarrak, Deban bizi zirenak eta beraien jardun politikoa herrian garatu zutenak kontatzen baditugu.

En total, estos tribunales condenaron a 15 personas, si contamos a debarras, a los que vivían en Deba y a la gente que desarrolló su actividad política en el pueblo.

<sup>391</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, 16 fitxategia, 0007662 espedientea. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, fichero 16, exp. 0007662.

<sup>392</sup> DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

### AGUINAGALDE UNANUE, JAVIER

Nekazaria zen, ezkondua zegoen eta lau seme zituzten. Bik Deban jarraitzen zuten bizitzen, beste bat, altxatuen armadan borrokan ari zela hil zen, nahiz eta ez dakigun beste Debar asko bezala bortxaz errekrutatua izan zen edota boluntario joan zen. Laugarren seme bat "ausente" zegoela aipatzen da. EAJko zinegotzia zen Javier Debako Udaltzain, baina ez zuen altxamendu frankista eman zenean paper garrantzitsurik hartu eta herrian geratzeko hautua egin zuen. Errepublikara garaian izan zuen jardun politikoa zela eta, erantzukizun politikoa zituela ebatzi zuen tribunalak eta 200 pezetako isuna ezarri zioten<sup>393</sup>.

Era agricultor, estaba casado y tenía cuatro hijos. Dos seguían viviendo en Deba, un tercero murió luchando con el ejército de los sublevados, pero no sabemos si como muchos otros debarras fue reclutado a la fuerza o fue voluntario. Sobre el cuarto hijo se dice que estaba "ausente". Javier era concejal del PNV en la corporación municipal de Deba. Cuando se dio el alzamiento franquista no asumió ningún papel importante y decidió quedarse en el pueblo. Por la actividad política que tuvo durante la República, el tribunal decidió que tenía responsabilidades políticas y le impuso una multa de 200 pesetas<sup>393</sup>.

### ALCIBAR IRIONDO, CARLOS

Bilbon gerra kontseilu batean epaitua, matxinadari laguntza emateagatik kondenatua izan zen. Ezkondua zegoen eta 5 seme-alaba zituen. Ekonomikoki, kaudimengabeko pertsona deklaratu zen eta hori dela eta 50 pezetako isuna ezarri zioten<sup>394</sup>.

Fue juzgado en Bilbo mediante consejo de guerra y fue condenado por ayudar a la rebelión. Estaba casado y tenía 5 hijos. Se declaró insolvente económicamente, y a raíz de eso le impusieron una multa de 50 pesetas<sup>394</sup>.



Julian Amilibia Machimbarrena (Deba aldizkaria / Revista Deba).

### AMILIBIA MACHIMBARRENA, JULIAN

1909an jaio zen Donostian eta bertan bizi zen Julian, abokatu gisa lan eginez<sup>395</sup>. Ideologikoki ezkertiarra, JSU antolakundera eta PC alderdira afiliatua zegoen<sup>396</sup>. Gerra Zibila hastearekin batera, Debara etorri zen, non herriko Fronte Popularreko kide bilakatu zen hasiera batetik. Bertako kide izanik, ordena publikoaren arduradunetako bat bilakatu zen eta bere funtzioen baitan altxatuen aldekoak ziren eta arazoak zor zitzaizketen pertsonak atxilotu eta Abasolo jauregian zegoen espetxean zaintzapean jartzea zegoen. Irailaren amaieran, altxatuen indarrak herrira hurbiltzen zihoazela nabaria zenean, Bizkaia aldera joan zen<sup>397</sup>. Bertan, borrokan jarraitu zuen Eusko Gudarostean, Informazio ataleko teniente graduarekin. Bilboren defentsan, Artxandaren baitan garatutako borroketan, Begoñan ekainaren 14an, bonbardaketa batzuen ondorioz larriki zauritu zuten<sup>398</sup>. Horrela, fron-

<sup>393</sup> TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.3,N.1345.

<sup>394</sup> TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.1,N.486.

<sup>395</sup> TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.3,N.1295.

<sup>396</sup> CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,3,A0108503.

<sup>397</sup> TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.3,N.1295.

<sup>398</sup> AMILIBIA M.A., El diario de la nostalgia, Txalaparta, Tafalla, 2006.

Orr.

tean jasandako zauri hauengatik elbarri geratu zen eta La Roseria ospitalera ebakatu zuten, Bidarten<sup>399</sup>. Honek bat egiten du Erantzukizun Politikoen Tribunalarekin, non zehazten duen leku ezezagunean aurkitzen zela. Tribunal honek, 1941eko azaroak 15an epaitu zuen eta bere ondasun guztiak galtzera kondenatu zuen (45000 pezeta inguru) eta 15 urteko deserriratzera kondenatu zuen<sup>400</sup>. Sententzia hau, 1958an berraztertua izango da eta bertan indultatua izango da Julian<sup>401</sup>.

Hala ere, Julian ez zen berriro Euskal Herrira itzuliko, Hego Amerikara joan zen, Txile eta Argentinatik pasa ostean, Buenos Airesen Eusko Ikaskuntzako kide bilakatu zen. Artista bilakatu zen eta arte munduan lan ezberdinak burutu zituen. Australian zegoela zendu zen 1977an<sup>402</sup>.

Nació en Donostia en 1909, y vivía allí trabajando como abogado<sup>395</sup>. Ideológicamente era de izquierdas, y estaba afiliado a la organización JSU (Juventudes Socialistas Unificadas) y al PC (Partido Comunista)<sup>396</sup>. Al empezar la Guerra Civil, vino a Deba, donde se hizo miembro del Frente Popular desde el principio. Se convirtió en uno de los responsables del orden público, y entre sus funciones estaba detener a personas afines a los sublevados y que pudieran crear problemas, y llevarlas a la cárcel que había en el palacio Abasolo. A finales de septiembre, cuando era inminente la llegada de los sublevados al pueblo, se fue hacia Bizkaia<sup>397</sup>. Allí, siguió luchando en el Ejército Vasco con la graduación de teniente, en la sección de información. En la defensa de Bilbo, durante los combates de Artxanda, el 14 de junio fue gravemente herido en Begoña, a raíz de unos bombardeos<sup>398</sup>. Por esas heridas que sufrió en el frente se quedó inválido, y fue evacuado al hospital La Roseria en Bidart<sup>399</sup>. Esto coincide con lo que decía el Tribunal de Responsabilidades Políticas, que precisaba que estaba en paradero desconocido. Fue juzgado por ese tribunal el 15 de noviembre de 1941 y condenado a perder todos sus bienes (alrededor de 45 000 pesetas) y a 15 años de destierro<sup>400</sup>. Esa sentencia fue revisada en 1958, y a Julián se le concedió el indulto<sup>401</sup>.

Sin embargo, Julián no volvió a Euskal Herria. Se fue a Sudamérica y estuvo en Chile y Argentina. Fue miembro de Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos en Buenos Aires. Se convirtió en artista y realizó varios trabajos en el mundo del arte. Murió en 1977 estando en Australia<sup>402</sup>.

### IRIONDO IRIONDO, MANUEL<sup>403</sup>

Errepublikara garaian, EAJren alde lan egiteagatik eta Fronte Popularrak sostengatzeagatik 1500 pezetako isuna ezarri zion Tribunalak<sup>404</sup>.

El tribunal le impuso una multa de 1500 pesetas por trabajar a favor del PNV y por apoyar al Frente Popular durante la República<sup>404</sup>.

### LAZCANO GOROSTOLA, FRANCISCO

Deban bizi zen. EAE alderdira afiliatua zegoen (beste iturri batzuek EAJ aipatzen dute)<sup>405</sup>. Abertzalea eta ezkertiarra, ideia hauen defentsan lan asko egin zuen Errepublikaren urteetan. Altxatuen zutabeak Debara hurbiltzen zirela ikusita, Bizkaira ihes egin zuen. Bertan, altxatuen aurka borrokan jarraitu zuen eta Mallabian ezarri zen, bertako Defentsa Komiteko kide bilakatu zen eta Ordena Publikoko arduradun izendatu zuten gainera. Hori dela eta, 1938ko ekainaren 8an, 6. Eskualde Militarreko Jeneral buruak 75000 pezetako isuna ezarri zion. Hala ere, Franciscok ez zion isun honi aurre egin, izan ere Iparraldeko Frontea erori aurretik itsasoz Ipar Euskal Herrira ihes egitea lortu zuen, Donibane Lohitzunen ezarriz. Bertatik, beste euskaldun askok bezala



Julian Amilibia Machimbarrenaren heriotzaren notizia. (Deba aldiakaria). / Noticia sobre la muerte de Julián Amilibia Machimbarrena. (Revista Deba).

<sup>399</sup> Aranzadiko datu basea. / Base de datos de Aranzadi.

<sup>400</sup> TRRP, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.3,N.1295.

<sup>401</sup> CDMH, Tribunal Nacional de Responsabilidades Políticas, 75/00077.

<sup>402</sup> Julian Amilibia Machimbarrena, Auñamendi Eusko Entziklopedia, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/amilibia-machimbarrena-julian-de-ar-9858/tik-ortua>. / Julián Amilibia Machimbarrena, Auñamendi Eusko Entziklopedia, extraído de la página: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/amilibia-machimbarrena-julian-de-ar-9858/>

<sup>403</sup> Bere gaineko datu pertsonalak, gerra kontseiluan epaitutakoaren atalean aurki daitezke. / Los datos personales sobre él, se encuentran en el capítulo sobre los juzgados en consejo de guerra.

<sup>404</sup> TRRP, ES/NA/AGN/F363/TRP\_SENTENCIAS,Lb.2,N.675.

<sup>405</sup> Aranzadiko datu basea. / Base de datos de Aranzadi.



Amerikarako bidea egin zuen beranduago. 1958. urtean, auzia berririo aztertu zuten, non Donostiako auzitegiak bere egoera eta kokapena ez zuela ezagutzen adierazi zuen. Epaitegiak, epaia berraztertu ostean indultatu egin zuen<sup>406</sup>.

Vivía en Deba. Estaba afiliado al partido ANV (otras fuentes mencionan PNV)<sup>405</sup>. Abertzale e izquierdista, trabajó mucho por esos ideales durante la República. Viendo que las columnas sublevadas se acercaban a Deba, huyó a Bizkaia. Allí siguió combatiendo contra los sublevados y se estableció en Mallabia; se hizo miembro del Comité de Defensa local y, además, fue nombrado responsable del orden público local. Por eso, el general en jefe de la 6ª Región Militar le impuso una multa de 75 000 pesetas el 8 de junio de 1938. De todos modos, Francisco no hizo frente a esa multa porque antes de caer el Frente Norte logró huir a Iparralde por mar. Allí se estableció en Donibane Lohitzune. Más tarde, como otros muchos vascos, se fue a América. 1958. En 1958, revisaron la causa, y el juzgado de Donostia dice desconocer la situación y la localización del encausado. Tras revisar la sentencia fue indultado<sup>406</sup>.

### **LIZARZABURU IRIONDO, LEOCADIO**

Arotza zen eta Debako bizilaguna, Leocadio. Alarguna zen eta lau seme-alaba zituen, bi adin txikikoak. Debako Agrupación Republicano-Socialista taldeko afiliatua zen eta ezaguna zen herrian hauteskunde garaietan alderdi honen ideien defentsan egiten zuen propagandagatik. Ez zuen parte hartze nabarmenik izan altxamenduaren ostean, baina bere afiliazio politikoa zela eta, frankistek egin ziezaioketenaren beldur ihes egitea erabaki zuen, lehenik eta behin Bizkaia eta gero Santanderrera, non preso egin zuten altxatuek. Herrira itzuli zenean, Mugimendu Nazionalarentzat 500 pezetako "donazio" bat burutu zuen eta CNSra (Central Nacional Sindicalista) afiliatu zen. 1939ko apirilaren 21ean hil zen. Hala ere, bere heriotzak ez zuen errepresio frankistaren katea eten eta Erantzukizun Politikoen Tribunalak 500 pezetako isuna ezarri zien Leocadioren ondorengoei eta Leocadiok utzitako ondasunekin ordaindu behar izan zuten<sup>407</sup>.

Era carpintero, vecino de Deba. Viudo, tenía cuatro hijos, dos de ellos menores de edad. Estaba afiliado a la Agrupación Republicano-Socialista de Deba, y era conocido en el pueblo, por la propaganda que hacía en defensa de los ideales de ese partido durante las elecciones. Su participación no fue relevante tras el alzamiento, pero por miedo a lo que le pudieran hacer los franquistas por su afiliación política, decidió escapar del pueblo. Primero se fue a Bizkaia y luego a Santander, donde fue apresado. Cuando volvió al pueblo, hizo una "donación" de 500 pesetas para el Movimiento Nacional y se afilió al CNS (Central Nacional Sindicalista). Murió el 21 de abril de 1939. Aun así, su muerte no rompió la cadena de represión franquista y el Tribunal de Responsabilidades Políticas impuso una multa de 500 pesetas a los descendientes de Leocadio, y tuvieron que pagarlos con los bienes que él les dejó<sup>407</sup>.

### **MARTIJA ALDALUR, JOSE**

Nekazaritzatik eta bere baserriko abereetatik bizi zen Jose eta bere familia, ezkondua zegoen eta zazpi seme alaba zituzten. EAJ alderdiko kide zen eta 1936an Debako Udalbatzako zinegotzi zen alderdi hau ordezkatzuz. Ez zuen parte hartze nabaririk izan herriaren bilakaera politikoan, bertan geratu zelarik altxatutako tropak herrian sartu zirenean. Debako Autoritate militarrek 2000 pezetako isuna jarri zion. 1937ko urtarrilaren 11n hil zen, hala ere, 1941eko irailaren 5an, 100 pezetako isuna jarri zien Tribunalak bere ondorengoei<sup>408</sup>, sententzia, bere seme politikoa zen Francisco Unanue Albizuri jakinarazi zioten<sup>409</sup>.

Jose y su familia vivían de la agricultura y de la ganadería de su caserío; estaba casado y era padre de siete hijos. Era miembro del PNV, y en 1936 fue concejal de la corporación municipal de Deba representando a ese partido. No tuvo una participación relevante en la evolución política del pueblo, y cuando las tropas sublevadas entraron en el pueblo no se movió de allí. La autoridad militar de Deba le impuso una multa de 2000 pesetas. Murió el 11 de enero de 1937. Sin embargo, el 5 de septiembre de 1941, el Tribunal impuso a sus descendientes una multa de 100 pesetas<sup>408</sup>. La sentencia se la notificaron a su hijo político Francisco Unanue Albizu<sup>409</sup>.

### **OSTOLAZA ZABALA, JOSE MANUEL**

